400/2013 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa onartzen duena.

Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretua, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa onartzen duena, Estatuko Aldizkari Ofizialaren 137. zk.an argitaratua. Uraren Euskal Agentziak itzulia.

Uztailaren 20ko 1/2001 Errege Dekretu Legegileak onartutako Urei buruzko Legearen testu bategineko 40.1 artikuluak ezartzen duenez, honako hauek izango dira plangintza hidrologikoaren helburu orokorrak: ur-jabari publikoaren eta uren egoera egokia eta behar bezalako babesa lortzea, ur-eskariak betetzea, eskualdearen eta arloaren garapenaren oreka eta harmonizazioa, baliabidearen aukerak handituz, haren kalitatea babestuz, haren erabilera ekonomizatuz, eta haren erabilerak ingurumenarekin eta gainerako baliabide naturalekin harmonian arrazionalizatuz. Ildo horretatik, aipatutako artikuluak, 3. atalean, honako hau ezartzen du: plangintza hidrologikoa arroko plan hidrologikoen eta Plan Hidrologiko Nazionalaren bidez egin behar da (azken hori Plan Hidrologiko Nazionalari buruzko uztailaren 5eko 10/2001 Legeak onartu zuen).

Plangintza hidrologikoaren arauzko esparrua honako hauek osatzen dute: 2000/60/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, urriaren 23koa, Uraren Esparru Zuzentaraua gisa ezagutzen den uren politikaren esparruko Europar Erkidegoko jardun-esparrua ezartzen duena; Urei buruzko Legearen adierazitako testu bategina; Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudia, apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretuak onartutako Urei buruzko Legearen testu bategineko I., IV., V., VI., VII. eta VIII. aurretiazko tituluak garatzen dituena; uztailaren 6ko 907/2007, Errege Dekretuak onartutako Plangintza Hidrologikoaren Araudia; irailaren 10eko ARM/2656/2008, Aginduaren bidez onartutako Plangintza Hidrologikoari buruzko Jarraibidea; ekainaren 23ko 1/2006 Legea, Euskadiko Urei buruzkoa (Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen-esparruan); 9/2006 Legea, apirilaren 28koa, plan eta programa jakin batzuek ingurumenaren gainean dituzten eraginen inguruko ebaluazioari buruzkoa; 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikorako prozedura arautzen duena; 60/2011 Errege Dekretua, urtarrilaren 21ekoa, uren politikaren esparruko ingurumen-kalitaterako arauei buruzko; 1514/2009 Errege Dekretua, urriaren 2koa, kutsaduraren eta narriaduraren aurka lurpeko uren babesa arautzen duena: 1620/2007 Errege Dekretua, abenduaren 7koa, araztutako urak berrerabiltzeko araubide juridikoa ezartzen duena; 903/2010 Errege Dekretua, uztailaren 9koa, uholde-arriskuak ebaluatu eta kudeatzeari buruzkoa. Gainera, uholdeen arriskuari dagokionez, kontuan hartuko da 2011ko uztailaren 29ko Ministro Kontseiluaren Erabakia, uholde-arriskuen aurrean babes zibileko Estatuaren Plana onartzen duena, eta 1994ko abenduaren 9ko Ministro Kontseiluaren Erabakia, uholde-arriskuaren aurrean babes zibileko plangintzari buruzko Oinarrizko Jarraibidea onartzen duena (horretan, uholde-arriskuaren aurrean autonomia-erkidegoen planen oinarrizko edukia eta funtzioak ezartzen dira).

Arauzko esparru hori Espainiak sinatutako nazioarteko itunen barruan sartzen da; bereziki, mugaz gaindiko ibilguen eta nazioarteko aintziren babesari eta erabilerari buruzko Nazio Batuen Hitzarmenean (Helsinkin sinatu zen, 1992ko martxoaren 17an), Ipar Atlantikoko itsas ingurumena babesteko OSPAR Hitzarmenean (Parisen sinatu zen, 1992ko irailaren 22an) eta uraren kudeaketari buruzko Erabakian (Tolosan sinatu zen, 2006ko otsailaren 15ean).

Aurreko arauzko esparrua, plangintzan parte hartzen duten organoei dagokienez, honako hauek osatzen dute: 126/2007 Errege Dekretua, otsailaren 2koa, erkidego arteko arroak dituzten mugape hidrografikoetako agintari eskudunen batzordeen osaera, funtzionamendua eta eskuduntzak arautzen dituena; 1627/2011 Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Estatuaren eskumen-esparruari dagokion Uraren Kontseiluaren osaera, egitura eta funtzionamendua ezartzen dituena; 220/2007 Dekretua, abenduaren 4koa, Uraren Euskal Agentziaren Erabiltzaileen Batzarrari buruzkoa; 221/2007, abenduaren 4koa, Uraren Euskal Agentziari buruzkoa; eta 222/2007 Dekretua, abenduaren 4koa, Euskadiko Ur Kontseiluarena, Uraren Euskal Agentziaren partaidetza, gobernu eta aholkularitzako organoen osaera eta araubidea ezartzen dituena, Euskadiko Urei buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legeak ezarritakoa garatzeko.

Urei buruzko Legearen testu bategineko 40.3 artikuluak ezartzen duenez, plan hidrologiko bakoitzaren lurralde-esparrua bat etorriko da dagokion mugape hidrologikoarenarekin. Beraz, arauzko esparrua otsailaren 2ko 125/2007 Errege Dekretuarekin osatzen da (horren bidez, mugape hidrografikoen lurralde-esparrua finkatzen da). Aipatutako errege-dekretuaren 3.2 artikuluan, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatia honela mugatzen da:

«Kantauri itsasora isurtzen duten ibaien arro hidrografikoak hartzen ditu, Barbadun ibaiaren arrotik hasita Oiartzun ibaiaren arroraino, Sequilla errekaren eta Barbadun ibaiaren arteko arroa barne dela, bai eta horien tarteko eta kostaldeko ur guztiak ere, eta Bidasoa (tarteko urak barne), Ugarana eta Errobi haien tarteko urak. Kostaldeko uren mendebaldeko muga Kobaron puntatik pasatzen den 2. orientazio-lerroa da, eta ekialdeko muga, berriz, Espainiako eta Frantziako lurraldeetako itsasoen arteko muga. Esparru hori nabarmen bat dator 1998ko Iparraldeko III. Plan Hidrologikoarekin.

Era berean, arau honek erantzun egiten die otsailaren 2ko 125/2007 Errege Dekretuaren seigarren xedapen gehigarrian jasotako eskakizunei. Errege-dekretu horretan ezartzen da Mugapeko Plan Hidrologikoa eskumena duten administrazio hidraulikoen plan hidrologikoekin bat etorriz prestatuko dela. Izan ere, uztailaren 8ko 1551/1994 Errege Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu zaizkio Euskadiko barne-arroen inguruko funtzioak eta zerbitzuak, Mugapeko plangintza hidrologikoaren kudeaketa bateratua eta koordinazioa ziurtatzeko. Plangintza hori 2012ko uztailaren 18an sinatutako lankidetza-hitzarmenean sortutako Kide Anitzeko Koordinazio Organoaren bidez egituratzen da. Dokumentu horretan ezartzen dira Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiari dagokion Plan Hidrologikoa prestatzeko jarraibideak, honako hauek harmoniaz bateratuta: alde batetik, erkidego arteko arroetarako Estatuko Administrazio Nagusiak prestatutako Plan Hidrologikoa (maiatzaren 8ko 650/1986 Errege Dekretuaren 1.1 artikuluaren arabera) eta, bestetik, bertako arroetarako Euskal Autonomia Erkidegoak egindako Plan Hidrologikoa, Uraren Euskal Agentziaren (URA) bidez, ekainaren 23ko 1/2006 Legearen bitartez. Horiek, aurretiaz, dagozkien esparruetan bideratu dira, baina modu koordinatuan.

Horrenbestez, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak eta Uraren Euskal Agentziak landu duten plan hidrologiko hau. Horrek dakar aurreko Iparraldeko III. Plan Hidrologikoa indargabetzea, arroko plan hidrologikoak onartzen dituen uztailaren 24ko 1664/1998 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa. Indargabetze hori, era berean, plan honen arauzko edukiko zehaztapenetara zabaltzen da (berori 1999ko abuztuaren 13ko Aginduaren bidez argitaratu zen).

Horretarako, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren jarduna, Estatuko eskumen-esparruan, oro har, Urei buruzko Legearen testu bategineko 23.1.a) artikuluan ezarritakoan oinarritzen da, eta Mugapeko Gobernu Batzordearen eta Uraren Kontseiluaren bitarteaz adierazi da, aurrerago zehazten den moduan.

Autonomia Erkidegoaren eskumen-esparruan, Uraren Euskal Agentziaren jarduna Urei buruzko Legearen testu bategin bereko 41.1 artikuluan xedatutakoan oinarritzen da. Bertan, honako hau ezartzen da: «Autonomia Erkidegoko lurralde-esparruan osorik barne hartutako arroetan, dagokion arroko erakundeak edo eskumena duen administrazio hidraulikoak prestatuko ditu arroko plan hidrologikoak eta horien ondorengo berrikuspenak egingo ditu». Era berean, 40.6 artikuluan honako hau finkatzen da: «onartu egingo dira, baldin eta 40.1, 3 eta 4, eta 42. artikuluetan ezarritakora egokitzen badira, beste arro batzuetako baliabideetan eraginik ez badute eta, hala badagokio, Plan Hidrologiko Nazionalean ezarritakora moldatzen badira».

Plan Hidrologiko hau prestatzeko bi administrazio publikoek (Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa eta Uraren Euskal Agentzia) jarraitutako prozedura hiru etapatan garatu da: lehen etapan, Plangintza Hidrologikoaren Araudiko 78.1 artikuluaren arabera prestatutako lan-programan, aurreikusitako faseetarako egutegi bat, Mugapeari buruzko azterlan orokor bat eta kontsulta-formulak prestatu ziren; bigarren etapan, Mugape Hidrografikoko uren kudeaketaren lotuta, Gai Garrantzitsuen Behin-behineko Eskema egin zen; eta, hirugarren etapan, Plan Hidrologikoa bera idatzi zen.

Plangintza hidrologikorako prozesuaren bigarren etapan, sei hilabetez nahitaezko kontsulta publikoa egin ondoren, uren kudeaketaren lotuta, Gai Garrantzitsuen Behin-behineko Eskemaren inguruan jasotako proposamenei, oharrei eta iradokizunei buruzko txostena egin zen, eta, dokumentu horretan, egokitzat hartutakoak bildu ziren. Hala, Gai Garrantzitsuen Eskemen dokumentua osatu zen.

Ondoren, Plangintza Hidrologikoaren Araudiko xedapen iragankor bakarraren indarrez (irailaren 17ko 1161/2010 Errege Dekretuak gaineratu zuen), Mugapeko Ur Kontseilua oraindik eratuta ez zegoenez, uren kudeaketarekin lotutako Estatuaren eskumen-esparruko Gai Garrantzitsuen Eskema Arroko Erakundeko Gobernu Batzordearen nahitaezko txostenaren pean jarri zen, 2010eko urriaren 21ean egin zuen bileran, eta hark aldeko txostena eman zion

dokumentuari. Bestalde, Agintari Eskudunen Batzordeak onespena eman zuen 2010eko abenduaren 16an egindako bileran. Autonomia Erkidegoaren eskumen-esparruari dagokionez, uren kudeaketarekin lotutako Gai Garrantzitsuen Eskema Euskadiko Uraren Kontseiluak 2010eko maiatzaren 19an egindako bilkuran emandako adostasunarekin onartu zen.

Plangintza-prozesuaren hirugarren etapan, Arroko Erakundeak eta Uraren Euskal Agentziak Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikorako proiektu-proposamena idatzi zuten; hurrenez hurren, Estatuko eta Autonomia Erkidegoko eskumen-esparruen barruan. Planaren lanketa gidatzeko, honako irizpide hauek hartu ziren kontuan: ingurumenaren, ekonomiaren eta gizartearen arloetako iraunkortasuna uraren erabileran, kudeaketa integratuaren bitartez eta ur-baliabideak epe luzera babestuz, uren egoeraren narriadurari aurrea hartuz, ingurune eta ekosistema urtarrak babestuz eta hobetuz, kutsadura murriztuz, eta uholdeen eta lehorteen ondorioei aurrea hartuz.

Plan Hidrologikoa lantzearekin batera, hura garatzeko eta erabakiak hartzeko prozesu osoan zehar, Planaren ingurumen-ebaluazio estrategikorako prozesua gauzatu da, Plangintza Hidrologikoaren Araudiko 71.6 artikuluan xedatutakoaren arabera. Hala, Plan Hidrologiko hau prozedura horren mende jarri da, apirilaren 28ko 9/2006 Legeak ezartzen duenez; plangintza horretan ingurumen-alderdiak barne hartzeko asmoarekin.

Ondorioz, 2008ko abuztuaren 22an, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak (Estatuaren eskumen-esparruko Plan Hidrologikoa prestatzeko arduraduna da, eta, beraz, esparru horretako ingurumen-ebaluazio estrategikorako prozesuaren organo sustatzailea) hasierako dokumentua igorri zuen. Dokumentu horrek hasiera eman zion zegokion ingurumen-organoari (Ingurumen, Landa-ingurune eta Itsas Inguruneko Ministerioko Ingurumen Kalitate eta Ebaluazioko Zuzendaritza Nagusia; egun, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa dena) Plan Hidrologikoa prestatzeko prozesua hasi izana jakinarazteko izapidea, apirilaren 28ko 9/2006 Legearen 18. artikuluan finkatzen denez. Era berean, 2008ko urriaren 8an, Uraren Euskal Agentziak prozesuari hasiera eman zion Autonomia Erkidegoaren eskumen-esparruan. Hala, Eusko Jaurlaritzako orduko Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumen Sailburuordetzari izapidea hasteko eskatu zion.

Eraginpeko administrazio publikoei eta publiko interesdunari kontsultatzeko nahitaezko izapidearen ondoren, ingurumen-organoak, Autonomia Erkidegoko eskumen-esparruan (2009ko urtarrilaren 28an) eta Estatuaren eskumen-esparruan (2009,ko apirilaren 29an), Erreferentziazko Dokumentua igorri zuen, adierazitako Legearen 9. eta 19. artikuluetan jasotzen denez. Erreferentziazko Dokumentuan, ingurumen-irizpide estrategikoak, aplikatzekoak diren iraunkortasun-printzipioak eta Plan Hidrologikoaren ingurumen-iraunkortasunari buruzko txostena prestatzean kontuan hartu beharreko informazioaren edukia jasotzen da.

Ingurumen Iraunkortasunari buruzko Txostenean, Plan Hidrologikoaren ondorioz ingurumenaren gainean ziur aski izan daitezkeen ondorioak identifikatu, deskribatu eta ebaluatzen dira, bai eta haren helburuak eta lurralde-esparrua kontuan hartzen dituzten arrazoizko hautabide batzuk ere (teknikoki eta ingurumen-aren aldetik bideragarriak direnak).

Plana prestatzeko prozesuarekin jarraituz, Plan Hidrologikorako proposamenaren nahitaezko kontsulta publikoaren aurretik, eta plangintza-prozesuan interesa duten aldeen parte-hartze aktiboa gauzatzeko helburuarekin, bai Arroko Erakundeak, bai Uraren Euskal Agentziak informazio-jardunaldiak, lantegiak eta adituen mahaiak antolatu zituzten Mugape Hidrografikoko hainbat lekutan (oro har, jendeari zuzenduta), eta, gainera, informazio-liburuxkak eta inkestak argitaratu eta hedatu zituzten.

Geroago, Plan Hidrologikorako proposamena eta Ingurumen Iraunkortasunari buruzko Txostena kontsulta publikoaren pean jarri ziren 6 hilabetez. Kontsulta hori 2010eko abenduaren 20an hasi zen Autonomia Erkidegoaren eskumen-esparrurako, eta 2011ko maiatzaren 4an Estatuaren eskumen-esparrurako. Kontsulta publikoa 2011ko ekainaren 20an eta azaroaren 4an itxi zen, hurrenez hurren.

Kontsulta publikorako aldia bukatu ondoren, Uraren Euskal Agentziak eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak txosten bana egin zuten jasotako proposamenen eta iradokizunen inguruan, eta egokitzat jo zituztenak gaineratu zituzten. Ondoren, Uraren Euskal Agentziak (2012ko urriaren 30ean) eta Konfederazioak (2012ko urriaren 18an) hura bakoitzari dagozkion organoen (Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseilua eta Mugapeko Uraren

Kontseilua) txostenaren pean jarri zuten. Plan Hidrologikorako proiektu-proposamenaren azken idazketan, Ingurumen Memoria kontuan hartu zen. Berori, Estatuaren eskumen-esparruan, 2012ko urrian igorri zen eta Ingurumeneko Estatuko idazkariak onartu zuen 2012ko azaroaren 20an, Plangintza Hidrologikoaren Araudiko 80.4 artikuluarekin bat etorriz; eta, Autonomia Erkidegoko eskumen-esparruan, 2012ko urriaren 1ean igorri zen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen sailburuordeak onartu zuen.

Agintari Eskudunen Batzordearen adostasunaz (2012ko urriaren 10ean), eta Eusko Jaurlaritzakoen (2012ko urriaren 30eko Gobernu Kontseiluaren bidez) eta Mugapeko Uraren Kontseilukoen (2012ko urriaren 18ko aldeko txostenaren bidez) adostasunaz; Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Kide Anitzeko Koordinazio Organoak, 2012ko azaroaren 8an, aho batez onartu zuen Plan Hidrologikorako proposamena, eta Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioari igorri zion, bidera zezan, 2012ko azaroaren 14an. Ministerioak proiektua Uraren Kontseilu Nazionalari bidali zion. Horrek, 2012ko abenduaren 13an, nahitaezko txostena eman zuen eta, ondoren, Gobernuari helarazi zion, errege-dekretu bidez onar zezan; Urei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 20ko 1/2001 Errege Dekretu Legegilearen 40. artikuluko 5. eta 6. ataletan xedatutakoa betetzeko.

Urei buruzko Legearen testu bategineko 42. artikuluan eta Plangintza Hidrologikoaren Araudiko 81. artikuluan jasotakoari jarraituz, Plan Hidrologiko honen edukia, alde batetik, memoria integratuan eta, bestetik, araudi komunean egituratzen da. Memoria integratuak bi gehigarri eta hiru eranskin ditu eta, bertan, Mugapearen deskribapen orokorra garatzen da; eta, araudi komunean (hamaika eranskin ditu), Plan Hidrologikoaren arauzko edukiko zehaztapenak biltzen dira eta errege-dekretu honen zati bereizezina da. Horrek ez dio izaera loteslea kentzen Memorian eta horren eranskinetan jasotako Planaren edukiari (zehazki, Neurrien Programari). Izan ere, Urei buruzko Legearen testu bategineko 40.4 artikuluaren arabera, plan hidrologikoak publikoak eta lotesleak dira.

Hain zuzen ere, Neurrien Programa tresna loteslea eta nahitaez bete beharrekoa da. Neurrien Programatik arauzko agindu nagusiak atera dira errege-dekretuaren jarraian datorren araudira lekualdatzeko. Beraz, programa horren oinarrizko printzipioak, egiturari dagokionez, adierazitako «Araudian» daude jasota; baina, horrek ez du esan nahi Neurrien Programaren gainerakoa nahitaez bete beharrekoa ez denik.

Plan Hidrologikoaren publizitatea, egituratzen deneko zatietako bakoitzaren hedadura kontuan izanik (errege-dekretu honen laugarren xedapen gehigarrian jasotzen denez), honela egituratzen da: Planaren eta horren gehigarrien arauzko edukia, onarpeneko errege-dekretuarekin batera, «Estatuko Aldizkari Ofizialean» formalki argitaratuta; eta Memoria eta horren eranskinak Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren eta Uraren Euskal Agentziaren web-orrian argitaratuta (www.chcantabrico.es eta www.uragentzia.net, hurrenez hurren).

Errege-dekretua bi artikuluz, sei xedapen gehigarriz, xedapen iragankor batez, xedapen indargabetzaile batez eta bi azken xedapenez osatzen da. Gainera, eranskin gisa, Plan Hidrologikoaren Araudia biltzen du.

Onartu den araudi berriak 87 artikulu ditu, honako gai hauekin lotutako bederatzi kapitulutan egituratuta: lurralde-esparrua eta ur-masen mugaketa (1. kapitulua), ingurumen-helburuak (2. kapitulua), emari ekologikoen erregimenak (3. kapitulua), erabileren lehentasuna eta bateragarritasuna (4. kapitulua), baliabideen esleipena eta erreserba (5. kapitulua), jabari publiko hidraulikoaren erabilera (6. kapitulua), jabari publiko hidraulikoaren eta uren kalitatearen babesa (7. kapitulua), uraren zerbitzuak kudeatzeko antolamendu-egiturak; kostuen berreskuratzea; araubide ekonomikoa eta finantzarioa; eskaera kudeatzeko planen jarraibideak; gardentasuna eta herritarren kontzientziazioa sustatzea (8. kapitulua); eta Plan Hidrologikoaren jarraipena eta berrikuspena (9. kapitulua).

Horren indarrez, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumeneko ministroak proposatuta, Ogasun eta Herri Administrazioetako ministroaren aldez aurreko onespenaz, Estatu Kontseiluarekin bat etorriz eta 2013ko ekainaren 7an egindako Ministroen Kontseiluak aurretiaz eztabaidatu ondoren,

XEDATU DUT:

1. artikulua. Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa onartzea

1. Uztailaren 20ko 1/2001 Errege Dekretu Legegilearen bidez onartutako Urei buruzko Legearen testu bategineko 40.5. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa onartu da.

2. Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoaren egitura, uztailaren 6ko 907/2007 Errege Dekretuak onartutako Plangintza Hidrologikoaren Araudiko 81. artikuluaren arabera, honako hau da:

a) Memoria bat, bi gehigarri eta hiru eranskin dituena. Gehigarriak hauek dira: Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko plangintza hidrologikoa Estatuaren eskumen-esparruan bideratzea (I) eta Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko plangintza hidrologikoa Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen-esparruan bideratzea (II). Eranskinak hauek dira: Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoaren memoria Estatuaren eskumen-esparruan (1), Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoaren memoria Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen-esparruan (2), dagozkion 11 eranskinekin batera, eta Neurrien Programa Integratua (3).

b) Planaren memoria bat, errege-dekretu honen eranskin gisa txertatutakoa eta honako izenburu hauek dituzten hamaika eranskin biltzen dituena: lurrazaleko ur-masak (1. eranskina); lurpeko ur-masak (2. eranskina); ur-masen erreferentziazko baldintzak eta mugak (3. eranskina); ingurumen-kalitateko arauak eta atalase-balioak lurpeko ur-masetarako (4. eranskina); ur-masa artifizialak edo asko aldatutakoak (5. eranskina); babestutako eremuen erregistroa (6. eranskina); ur-masetarako ingurumen-helburuak (7. eranskina); emari ekologikoen erregimenak (8. eranskina); azterlan hidraulikoak egiteko irizpide teknikoak (9. eranskina); olgeta-erabilerei buruzko jardunbide egokien gidak (10. eranskina); eta udalerriak dagokien jarduera komertzialaren/industrialaren arabera (11. eranskina).

3. Mugapeko Plan Hidrologikoaren lurralde-eremua mugape hidrografikoen lurralde-eremua finkatzen duen otsailaren 2ko 125/2007 Errege Dekretuaren 3.2 artikuluan zehaztutakoa da.

2. artikulua. Estatuko Administrazio Orokorrak sustatutako azpiegitura hidraulikoak egiteko baldintzak

Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoan aurreikusita dauden Estatuko Administrazio Orokorrak sustatutako azpiegitura hidraulikoak, egin aurretik, horien bideragarritasun teknikoari, ekonomikoari eta ingurumenekoari buruzko analisia egingo du Estatuko Administrazio Orokorrak. Nolanahi ere, haien eraikuntza alderdi hauen mende egongo da: ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruz indarrean dagoen araudia, aurrekontu-eskuragarritasuna eta dagozkion plan sektorialak, dagokien berariazko araudiak hala jasotzen duenean.

Lehen xedapen gehigarria. Ur-masen egoera baloratzeko metrikak eta atalaseak egokitu eta finkatzea

Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumeneko ministroaren Aginduaren bidez, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoko lehendakariak eta Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiak proposatuta, Mugapeko Uraren Kontseiluaren eta adierazitako agentziako Erabiltzaileen Batzarraren aldeko txostena jaso ondoren, ur-masen egoera ebaluatzeko beharrezko metrikak, erreferentziazko baldintzak eta atalaseak gaineratu, egokitu eta finkatu ahal izango dira; parametro horien identifikazioan eta erabileran sortzen diren aurrerapen zientifiko eta tekniko berrien arabera (nazionalak eta Europar Erkidegokoak).

Ur-masen narriadurarik ez dagoela kontuan hartzen da, baldin eta narriadura hori haien egoera zehatzago emango duten parametro berriak gaineratzen ondorio soilik denean. Ur-masen egoeraren bilakaera egiaztatzeko, Plan Hidrologikoaren hurrenez hurreneko berrikuspenetan, balorazio eguneratuagoarekin batera, Plan honetan hasiera batean jasotakoa zehaztuko da.

Bigarren xedapen gehigarria. Neurrien Programa

Memorian jasotako eta haren 3. eranskinean garatutako Neurrien Programaren barruan (Plan Hidrologiko honetan barne hartuta dago), lehentasuna emango zaie, aurrekontu-eskuragarritasunaren arabera, egoera edo potentzial «ona» baino txarragoa duten ur-masen gainean eragina duten jardunak, proposatutako ingurumen-helburuak lortzeko eta egoera edo potentzial ona aurreikusitako epeetan gauzatzeko. Era berean, jardun horien barruan, ingurumenaren eta ekonomiaren ikuspegitik iraunkorrenak diren neurriak sustatuko dira. Hori guztia, 1.2.b) artikuluan adierazitako araudian sartu diren Neurrien Programaren zatiak nahitaez betetzearen kalterik gabe izango da. (horien edukiagatik beragatik nahitaezko izaera ondorioztatzen denean).

Hirugarren xedapen gehigarria. Mugaz gaindiko ur-masak

Plan Hidrologiko honetan egiten diren ur-masen aipamen guztiak, arauzko ikuspegitik, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatira mugatuta daude. Ondorioz, Planean aipatzen diren Mugape Hidrografikoko mugaz gaindiko ur-masak, bai eta horien tipologiak, erreferentziazko baldintzak eta ingurumen-helburuak ere, Frantziarekin egiten den lankidetzaren emaitzen arabera aldatu ahal izango dira; bereziki, 2006ko otsailaren 15ean Tolosan uraren kudeaketaren inguruan hartutako Erabakiaren esparruan. Aldaketa horiek egiteko baldintzak lehen xedapen gehigarrian deskribatutakoak izango dira.

Laugarren xedapen gehigarria. Publizitatea

Plan hidrologikoak publikoak direnez, Urei buruzko Legearen testu bategineko 40.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, edonork aukera izango du Plan Hidrologikoaren edukia kontsultatzeko Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren egoitzan eta Uraren Euskal Agentziaren bulegoetan. Era berean, informazio hori adierazitako administrazioen web-orrian egongo da eskuragarri (www.chcantabrico.es eta www.uragentzia.net, hurrenez hurren).

Era berean, Plan Hidrologikoaren alderdien kopiak edo ziurtagiriak lortu ahal izango dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 37. artikuluan xedatutakoaren arabera; bai eta haren edukiak eskuratu, ingurumen-gaietan informazioa eskuratu, publikoki parte hartu eta auzitegietara joateko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legean jasotako baldintzetan.

Bosgarren xedapen gehigarria. Araubide ekonomikoa

Errege-dekretu hau aplikatzearen ondorioz, Estatuko Administrazio Orokorraren esparruan, ezin izango da langile-gastua inola ere gehitu. Hala badagokio, errege-dekretu honetan jasotako arauzko betebeharren ondorioz sor litezkeen giza baliabideen behar berriei erantzuteko, langileak berrantolatu edo birbanatu beharko dira.

Seigarren xedapen gehigarria. Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa eguneratu eta berrikustea

Urei buruzko Legearen testu bategineko hamaikagarren xedapenaren 6. atalari jarraituz, Plan hau 2015eko abenduaren 31 baino lehen berrikusiko da.

Xedapen iragankor bakarra. Uhaldien emari ekologiko minimoak eta maximoak

1. Plan hau indarrean jarri aurretik indarrean dauden emakidetarako, Plangintza Hidrologikoaren Araudiko 18. artikuluan xedatutakoaren arabera itun-prozesua gauzatu arte eta emari ekologikoen erregimena horien titularrei jakinarazi arte, uztailaren 24ko 1664/1998 Errege Dekretuaren 1.1.a).3 artikuluaren bidez onartutako Iparraldeko III. Plan Hidrologikoan ezarritako gutxieneko ingurumen-emariak izango dira aplikatzekoak.

2. Uholde-arriskuaren kartografia prestatzeko, Iparraldeko III. Plan Hidrologikoan ezarritako uhaldi-emariak hartuko dira; non eta, Administrazio Hidraulikoak emari horiek eguneratu eta baliozkotzen ez dituen.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Iparraldeko arroko III. Plan Hidrologikoa indargabetzea

Iparraldeko III. Plan Hidrologikoa indargabetuta geratu da; horrenbestez:

a) Arroko plan hidrologikoak onartzen dituen uztailaren 24ko 1664/1998 Errege Dekretuaren «Iparraldeko III. Plan Hidrologikoa» 1.1.a).3 artikulua.

Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretua, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa onartzen duena, Estatuko Aldizkari Ofizialaren 137. zk.an argitaratua. Uraren Euskal Agentziak itzulia.

b) Uztailaren 24ko 1664/1998 Errege Dekretuak onartutako arroko Iparraldeko I., Iparraldeko II. eta Iparraldeko III. plan hidrologikoen arauzko edukia duten zehaztapenak argitaratzen dituen 1999ko abuztuaren 13ko Aginduaren «Iparraldeko III. Plan Hidrologikoa» III. eranskina.

Lehenengo azken xedapena. Eskumen-titulua

Errege-dekretu honek jarduera ekonomikoaren oinarriak eta koordinazioa ezartzen ditu, Konstituzioaren 149.1.13. artikuluan xedatutakoaren arabera, Euskadiren eskumenari eragiten dion Plan Hidrologikoaren zatiari dagokionez, erkidego barruko arroekin lotuta; eta urak autonomia-erkidego batetik baino gehiagotik igarotzen direnean baliabide eta aprobetxamendu hidraulikoen inguruko legeriaren, antolamenduaren eta emakidaren gaineko eskumena Estatuari esleitzen dion 149.1.22. artikuluarekin bat etorriz, Estatuko Administrazio Orokorraren eskumenean eragina duen Plan Hidrologikoaren zatiari dagokion, erkidego arteko arroekin lotuta.

Bigarren azken xedapena. Indarrean jartzea

Errege-dekretu hau indarrean jarriko da berori «Estatuko Aldizkari Ofizialean» argitaratu eta hurrengo egunean.

Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretua, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa onartzen duena, Estatuko Aldizkari Ofizialaren 137. zk.an argitaratua. Uraren Euskal Agentziak itzulia.

KANTAURI EKIALDEKO MUGAPE HIDROGRAFIKOAREN ESPAINIAKO ZATIKO PLAN HIDROLOGIKOAREN ARAUZKO EDUKIA ETA ERANSKINAK

AURKIBIDEA

I. KAPITULUA LURRALDE EREMUA, AGINTARI ESKUDUNAK, UR MASEN DEFINIZIOA ETA BABESTUTAKO EREMUEN ERREGISTROA

1. artikulua. Lurralde-eremua eta denbora-horizonteak
2. artikulua. Agintari eskudunak
3. artikulua. Lurrazaleko ur-masen identifikazioa eta mugaketa
4. artikulua. Lurpeko ur-masen identifikazioa eta mugaketa
5. artikulua. Erreferentziazko baldintzak eta mugak egoera moten artean
6. artikulua. Lurpeko ur-masen egoera kimikoaren adierazleak
7. artikulua. Ur-masa artifizialak edo asko aldatutakoak
8. artikulua. Babestutako eremuen erregistroa

2. KAPITULUA. INGURUMEN HELBURUAK

9. artikulua. Ingurumen-helburuak
10. artikulua. Ur-masen egoeraren aldi baterako narriadura
11. artikulua. Aldaketa berrietarako baldintzak

3. KAPITULUA. EMARI EKOLOGIKOEN ERREGIMENA

12. artikulua. Emari ekologikoen erregimenari buruzko gai orokorrak
13. artikulua. Emari ekologiko maximoak
14. artikulua. Emari ekologiko minimoak
15. artikulua. Emari ekologikoen erregimena ezartzeko prozesua

4. KAPITULUA. ERABILEREN LEHENTASUNA ETA BATERAGARRITASUNA

16. artikulua. Uraren erabilerak
17. artikulua. Erabileren lehentasun-ordena

5. KAPITULUA. BALIABIDEEN ESLEIPENA ETA ERRESERBA

18. artikulua. Ustiapen-sistemak zehaztea
19. artikulua. Baliabideen esleipena Barbadun sisteman
20. artikulua. Baliabideen esleipena Nerbioi sisteman
21. artikulua. Baliabideen esleipena Butroe sisteman
22. artikulua. Baliabideen esleipena Oka sisteman
23. artikulua. Baliabideen esleipena Lea sisteman
24. artikulua. Baliabideen esleipena Artibai sisteman
25. artikulua. Baliabideen esleipena Deba sisteman
26. artikulua. Baliabideen esleipena Urola sisteman

Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretua, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa onartzen duena, Estatuko Aldizkari Ofizialaren 137. zk.an argitaratua. Uraren Euskal Agentziak itzulia.

27. artikulua. Baliabideen esleipena Oria sisteman

28. artikulua. Baliabideen esleipena Urumea sisteman

29. artikulua. Baliabideen esleipena Oiartzun sisteman

30. artikulua. Baliabideen esleipena Bidasoa sisteman

31. artikulua. Baliabideen esleipena Pirinioetako ibaien sisteman

6. KAPITULUA. JABARI PUBLIKO HIDRAULIKOAREN ERABILERA

1. SEKZIOA. Erabilera pribatiboak

32. artikulua. Lurpeko uren hartuneen eta iturburuen arteko distantziak

33. artikulua. Neurgailuen instalazioa

2. SEKZIOA. Baimenak eta emakidak

34. artikulua. Emakidei buruzko arau orokorrak

35. artikulua. Hiri-hornidurarako ur-zuzkidurak

36. artikulua. Abeltzaintza-erabileretarako ur-zuzkidurak

37. artikulua. Ureztatzeko ur-zuzkidurak

38. artikulua. Industria-erabileretarako ur-zuzkidurak

39. artikulua. Golf-zelaiak eta gainazal lorategidunak ureztatzeko, eta igerilekuak betetzeko ur-zuzkidurak

40. artikulua. Ureztatzeko emakidak

41. artikulua. Akuikulturarako eta bestelakoetarako zuzkidurak

42. artikulua. Emakida-epeetarako mugak

43. artikulua. Emakiden iraungitzea

44. artikulua. Presen edo presa txikien bidezko aprobetxamendu-emakidetarako gutxieneko baldintzak

45. artikulua. Emakida-emarien aldaketa eta berrikuspena

46. artikulua. Lurpeko uren erabilera. Aurreko aprobetxamenduen gaineko eragina eta emari ekologikoen babesa

47. artikulua. Lurpeko uren hartuneen arteko gutxieneko distantziak

48. artikulua. lurpeko uren hartuneak zigilatzea

49. artikulua. Kostaleko akuiferoak gazitzearen aurkako babesa eta babes-araubide orokorra

50. artikulua. Lurpeko ur-masak babesteko beste printzipio batzuk

51. artikulua. Aprobetxamendu geotermikoetarako zundaketak

7. KAPITULUA. JABARI PUBLIKO HIDRAULIKOA, ITSASO ETA LEHORRAREN ARTEKO JABARI PUBLIKOA ETA UREN KALITATEA BABESTEA

1. SEKZIOA. Arau orokorrak

52. artikulua. Gehieneko uhaldi-emariak eta uholde-arriskuko eremuak zehaztea

53. artikulua. Erabilera-mugak uholde-arriskuko zaintza-eremuan

54. artikulua. Uholdeen aurreko babes-neurriak

55. artikulua. Zubien eta estalduren diseinuari, eta ibilguen trazadura babestu eta aldatzeko egitura-neurriei buruzko berariazko arauak

Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretua, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa onartzen duena, Estatuko Aldizkari Ofizialaren 137. zk.an argitaratua. Uraren Euskal Agentziak itzulia.

56. artikulua. Urbanizatu beharreko eremu berrien eta komunikabideen drainatzea

2. SEKZIOA. Itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoko igarotzeko eta babes-zortasuneko eremuan baimenak emateko arauak

57. artikulua. Babes-zortasuneko eremuko jardunak

58. artikulua. Igarobide-zortasuneko eremuko jardunak

59. artikulua. Hirigintza- eta lurralde-plangintzari buruzko txostenak

3. SEKZIOA. Eremu babestuak

60. artikulua. Irizpide orokorrak

61. artikulua. Hornidurarako ur-masak

62. artikulua. Ingurune urtarrarekin lotutako habitata edo espezieak babesteko izendatutako eremuak

63. artikulua. Ur mineralak eta termalak babesteko perimetroak

64. artikulua. Ibai-erreserba naturalak

65. artikulua. Hezeguneak

66. artikulua. Babes bereziko eremuak

4. SEKZIOA. Isurketak

67. artikulua. Isurketa-baimenak

68. artikulua. Hiri-eremuetatik datozen isurketak

69. artikulua. Industria-eremuetatik datozen isurketak

70. artikulua. Saneamendu-sistema orokorrak eta hondakin-ur hiritarren araztegiak

71. artikulua. Hondakin solidoen instalazioetatik datozen isurketak

72. artikulua. Hirigintza- eta lurralde-plangintzari buruzko txostenak

73. artikulua. Neurri gehigarriak aplikatzea

74. artikulua. Gutxieneko emari zirkulatzailea eta ibilgurako isurketa

5. SEKZIOA. Araztutako urak berrerabiltzea

75. artikulua. Hondakin-urak berrerabiltzea

8. KAPITULUA. URAREN ZERBITZUAK KUDEATZEKO ANTOLAMENDU EGITURAK. KOSTUAK BERRESKURATZEA. ARAUBIDE EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA. ESKAERA KUDEATZEKO PLANEN JARRAIBIDEAK. GARDENTASUNA, HERRITARREN KONTZIENTZIAZIOA ETA PARTE HARTZEA SUSTATZEA

76. artikulua. Uraren zerbitzuak kudeatzeko orientazio-printzipioak eta sustapen-neurriak

77. artikulua. Uraren zerbitzuen kostuak

78. artikulua. Uraren zerbitzuen kostuak berreskuratzeko jarraibideak

79. artikulua. Eskaera kudeatzeko planak. Horiek egiteko jarraibideak

80. artikulua. Gardentasuna eta herritarren kontzientziazioa sustatzeko jarraibideak

81. artikulua. Parte-hartze publikoa gauzatzeko prozedura

Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretua, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa onartzen duena, Estatuko Aldizkari Ofizialaren 137. zk.an argitaratua. Uraren Euskal Agentziak itzulia.

82. artikulua. Neurrien Programaren finantzaketa

9. KAPITULUA. PLAN HIDROLOGIKOAREN JARRAIPENA ETA BERRIKUSPENA

83. artikulua. Plan Hidrologikoaren jarraipena

84. artikulua. Plan Hidrologikoaren berrikuspena

85. artikulua. Lehorteetarako plan bereziaren berrikuspena

86. artikulua. Uholde-arriskua kudeatzeko planaren berrikuspena

87. artikulua. Plan Hidrologikoaren ondoren izendatutako eremu babestuak

ERANSKINAK

1.1 eranskina. Lurrazaleko ur-masak. Ibai-kategoria

1.2 eranskina. Lurrazaleko ur-masak. Aintzira-kategoria

1.3 eranskina. Lurrazaleko ur-masak. Tarteko uren kategoria

1.4 eranskina. Lurrazaleko ur-masak. Kostaldeko uren kategoria

2. eranskina. Lurpeko uren masak

3.1 eranskina. Erreferentziazko baldintzak eta mugak egoera moten artean ibai-kategoriako ur-masetan

3.2 eranskina. Erreferentziazko baldintzak eta mugak egoera moten artean asko aldatutako ur-masetan eta aintziratzat jo daitezkeen ur-masa artifizialetan

3.3 eranskina. Parametro fisiko–kimiko ez-aldakorren egoera moten arteko mugak tipologiaren arabera, ibai-kategoriako ur-masetan

3.4 eranskina. Erreferentziazko baldintzak eta mugak egoera moten artean aintzira naturalen kategoriako ur-masetan

3.5 eranskina. Erreferentziazko baldintzak eta mugak egoera moten artean tarteko kategoriako ur-masetan

3.6 eranskina. Erreferentziazko baldintzak eta mugak egoera moten artean kostaldeko kategoriako ur-masetan

4. eranskina. Ingurumen-kalitateko arauak eta atalase-balioak lurpeko ur-masetarako

5.1 eranskina. Asko aldatutako ibaien ur-masak

5.2 eranskina. Aintzira artifizialen ur-masak

5.3 eranskina. Tarteko ur-masa oso aldatuak

6.1 eranskina. Hiri-hornidurarako lurrazaleko ur-masak, Babestutako Eremuen Erregistroan jasotakoak

6.2 eranskina. Hiri-hornidurarako lurpeko ur-masak, Babestutako Eremuen Erregistroan jasotakoak

6.3. eranskina. Hiri-hornidurarako etorkizunerako ur-hartuneak dituzten ur-masak

6.4. eranskina. Ekonomikoki garrantzitsuak diren espezie urtarren babes-eremuak, Babestutako Eremuen Erregistroan jasotakoak. Arrainak babesteko eremuak

6.5. eranskina. Ekonomikoki garrantzitsuak diren espezie urtarren babes-eremuak, Babestutako Eremuen Erregistroan jasotakoak. Moluskuak eta bestelako ornogabeak babesteko eremuak

6.6. eranskina. Olgetarako erabilerako ur-masak, Babestutako Eremuen Erregistroan jasotakoak. Tarteko eta kostaldeko uren bainu-eremuak

Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretua, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa onartzen duena, Estatuko Aldizkari Ofizialaren 137. zk.an argitaratua. Uraren Euskal Agentziak itzulia.

6.7. eranskina. Babestutako Eremuen Erregistroan sartutako eremu sentikorrak

6.8. eranskina. Babestutako Eremuen Erregistroan jasotako habitata edo espezieak babesteko eremuak

6.9. eranskina. Babestutako Eremuen Erregistroan sartutako ur mineralak eta termak babesteko perimetroak

6.10. eranskina. Babestutako Eremuen Erregistroan sartutako ibai-erreserba naturalak

6.11. eranskina. Hezeguneen Inbentario Nazionalean edo Ramsar hitzarmenean sartutako hezeguneak

6.12. eranskina. Babestutako Eremuen Erregistroan jasotako babes bereziko eremuak. Natura- eta ingurumen-intereseko tarteak

6.13. eranskina. Babestutako Eremuen Erregistroan jasotako babes bereziko eremuak. Babes bereziko hezeguneak

6.14. eranskina. Babestutako Eremuen Erregistroan jasotako babes bereziko eremuak. Bestelako figurak

7.1. eranskina. Ibai naturalen kategoriako ur-masetarako ingurumen-helburuak

7.2. eranskina. Asko aldatutako ibaien kategoriako ur-masetarako (urtegiak salbu) ingurumen-helburuak

7.3. eranskina. Aintziratzat har daitezkeen asko aldatutako ur-masetarako (urtegiak) ingurumen-helburuak

7.4. eranskina. Aintzira naturalen kategoriako ur-masetarako ingurumen-helburuak

7.5. eranskina. Aintziratzat har daitezkeen ur-masa artifizialetarako ingurumen-helburuak

7.6. eranskina. Tarteko ur naturalen kategoriako ur-masetarako ingurumen-helburuak

7.7. eranskina. Asko aldatutako tarteko uren kategoriako ur-masetarako ingurumen-helburuak

7.8. eranskina. Kostaldeko uren kategoriako ur-masetarako ingurumen-helburuak

7.9. eranskina. Lurpeko ur-masetarako ingurumen-helburuak

8.1. eranskina. Gutxieneko emari ekologikoak ohiko egoeran eta deklaratutako lehortearen ondoriozko larrialdi-egoeran

8.2. eranskina. Gehieneko emari ekologikoak

9. eranskina. Azterketa hidraulikoak egiteko irizpide teknikoak

10. eranskina. Olgeta-erabilerei buruzko jardunbide egokien gidak

11. eranskina. Udalerriak dagokien jarduera komertzialaren/industrialaren arabera

TAULAK

1. taula. Gehieneko zuzkidura gordin onargarriak, biztanle eta eguneko litrotan, hiri-hornidurarako. Metodo generikoa

2. taula. Gehieneko zuzkidura gordinak etxe-erabilerarako. Metodo bereizia

3. taula. Batez besteko zuzkidurak urtaroko biztanleriarentzat

4. taula. Abeltzaintzarako ur-zuzkidurak

5. taula. Ureztatzeko ur-zuzkidurak (m^3/ha eta urte)

6. taula. Industriarako ur-zuzkidurak

7. taula. Produkzio elektrikoko zentraletarako ur-zuzkidurak

8. taula. Zubiak diseinatzeko babesak

Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretua, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa onartzen duena, Estatuko Aldizkari Ofizialaren 137. zk.an argitaratua. Uraren Euskal Agentziak itzulia.

ARAUDIA

1. KAPITULUA

LURRALDE EREMUA, AGINTARI ESKUDUNAK, UR MASEN DEFINIZIOA ETA BABESTUTAKO EREMUEN ERREGISTROA

1. artikulua. Lurralde-eremua eta denbora-horizonteak

1. Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoaren lurralde-eremua mugape hidrografikoen lurralde-eremua finkatzen duen otsailaren 2ko 125/2007 Errege Dekretuaren 3.2 artikuluan zehaztutakoa da.

2. Denbora-horizonteak, uztailaren 20ko 1/2001 Errege Dekretu Legegileak onartutako Urei buruzko Legearen testu bategineko hamaikagarren xedapen gehigarriaren 6. atalaren arabera, eta uztailaren 6ko 907/2007 Errege Dekretuak onartutako Plangintza Hidrologikoaren Araudiaren arabera, honako hauek dira: 2015 (lehen horizontea), 2021 (bigarren horizontea) eta 2027 (hirugarren horizontea).

2. artikulua. Agintari eskudunak

Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoan izendatutako agintari eskudunak Planaren Memoriako 12. kapituluan jasotzen dira.

3. artikulua. Lurrazaleko ur-masen identifikazioa eta mugaketa

1. Lurrazaleko 138 ur-masa mugatu dira: 117 ibai-kategoriakoak dira (horietatik 9 urtegitzat har daitezke), 3 aintzira-kategoriakoak, 14 tarteko uren kategoriakoak eta 4 kostaldeko uren kategoriakoak. Ur-masa horiek guztiak 1. eranskinean daude zerrendatuta.

2. Ibai-kategoriako ur-masen artean, 6 ibai-ardatz kantauriar-atlantiko nagusi karedunak motakoak dira; 23 ardatz kantauriar-atlantiko txiki karedunak motakoak dira; 40 Euskal Pirinioetako ibaiak motakoak dira; 30 ibai kantauriar-atlantiko karedunak motakoak dira; 9 kostaldeko ibai kantauriar-atlantikoak motakoak dira; urtegitzat har daitekeen ibaietako 1 monomiktikoa, hezeguneetako silizeoa, 15 ºC-tik beherako urteko batez besteko tenperaturaduna, buru eta tarte garaietako ibaiei dagokiena motakoa da; urtegitzat har daitekeen ibaietako 1 monomiktikoa, hezeguneetako kareduna, sare nagusiko ibaiei dagokiena motakoa da; eta urtegitzat har daitekeen ibaietako 7 monomiktikoa, hezeguneetako kareduna, 15 ºC-tik beherako urteko batez besteko tenperaturaduna, buru eta tarte garaietako ibaiei dagokiena motakoak dira.

3. Aintzira-kategoriako ur-masak honela banatzen dira: ekarpen mistoko sakonera txikiko urmael diapiriko erdiiraunkor fluktuatzaileak motako 1; monomiktikoa, hezeguneetako kareduna, 15 ºC-tik beherako urteko batez besteko tenperaturaduna, buru eta tarte garaietako ibaiei dagokiena motako 1; eta monomiktikoa, hezeguneetako silizeoa, 15 ºC-tik beherako urteko batez besteko tenperaturaduna, buru eta tarte garaietako ibaiei dagokiena motako 1.

4. Tarteko uren kategoriako ur-masen artean: 2 estuario atlantiko intermareala ibaiaren nagusitasunaz estuarioaren gainetik motakoak dira; 8 estuario atlantiko intermareala itsas nagusitasunaz motakoak dira; eta 4 estuario atlantiko azpimareala motakoak dira.

5. Kostaldeko 4 ur-masak Kantauri ekialdeko kostaldeko ur atlantikoak, azaleratzerik gabe agerian daudenak motakoak dira.

4. artikulua. Lurpeko ur-masen identifikazioa eta mugaketa

Lurpeko 28 ur-masa daude mugatuta, eta horiek 2. eranskinean zerrendatzen dira.

5. artikulua. Erreferentziazko baldintzak eta mugak egoera moten artean

Lurrazaleko ur-masen kategoria eta mota bakoitzerako erreferentziazko baldintzak, eta oso egoera onaren eta egoera onaren arteko, eta egoera onaren eta neurrizkoaren arteko mugak 3. eranskinean bildutako tauletan daude zehaztuta.

6. artikulua. Lurpeko ur-masen egoera kimikoaren adierazleak

Lurpeko ur-masen egoera kimikoa baloratzeko erabili beharreko kutsatzaileei dagokienean, plan hidrologiko honek hartutako atalase-balioak kalkulatzeko, aintzat hartu da lurpeko urak kutsaduraren eta narriaduraren aurka babesteko arauak finkatzen dituen urriaren 2ko

1514/2009 Errege Dekretuan ezarritakoa. Adierazitako errege-dekretuaren arabera, ur-masa bakoitzerako, hainbat substantziatarako atalase-balioak zehaztu dira. Substantzia horien artean daude: amonioa, merkurioa, beruna, kadmioa, artsenikoa, trikloroetilenoa eta tetrakloroetilenoa. Adierazitako substantzietarako hartutako atalase-balioak, eta nitratoetarako eta plagizidetarako ingurumen-kalitateari buruzko arauak 4. eranskinean daude bilduta.

7. artikulua. Ur-masa artifizialak edo asko aldatutakoak

Asko aldatutako 35 ur-masa mugatu dira: 31 ibai-kategoriakoak dira (horietatik 9 urtegitzat har daitezke), eta 4 tarteko uren kategoriakoak. Era berean, aintziratzat har daitezkeen 2 ur-masa artifizial mugatu dira. Horiek guztiak 5. eranskinean daude zerrendatuta.

8. artikulua. Babestutako eremuen erregistroa

Babestutako Eremuen Erregistroan sartzen dira, Europar Erkidegoko araudia eta beste araudi batzuk aplikatuta, babestu beharrekoak diren ingurune urtarrarekin lotutako eremuak. Babestutako Eremuen Erregistroko kategoriak, Plangintza Hidrologikoaren Araudiko 24. artikuluaren arabera, honako hauek dira:

a) Hiri-hornidurarako ur-masak, gutxienez, eguneko 10 metro kubikoko bolumena ematen dutenak edota 50 lagun baino gehiago hornitzen dituztenak. 6.1 eta 6.2 eranskinetan biltzen dira, hurrenez hurren, hiri-hornidurarako lurrazaleko eta lurpeko ur-masak, Babestutako Eremuen Erregistroan jasotakoak. Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, autonomia-erkidego horretako Urei buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 32. artikuluan xedatutakoa betetzeko; Planaren lehen horizontearen barruan, 10 biztanle baino gehiago hornitzen dituzten hartunean sartuko dira, haren lehen berrikuspenean barne har daitezen.

b) Hiri-hornidurarako etorkizuneko ur-hartuneko masak, a) atalean adierazten diren gutxieneko bolumenari edo hornitutako gutxieneko pertsona kopuruari buruzko baldintza betetzen dutenak. Kategoria horri dagozkion masak 6.3 eranskinean jasotzen dira.

c) Ikuspegi ekonomikotik garrantzitsuak diren espezie urtarrak babesteko deklaratutako eremuak:

   - Uraren Administrazio publikoari eta Plangintza Hidrologikoari buruzko Araudia, uztailaren 29ko 927/1988 Errege Dekretuak onartutako Urei buruzko Legearen II. eta III. tituluak garatzen dituena. Araudi horrek ekarri egiten du arrainak bizitzeko egokiak izateko babesa edo hobekuntza behar duten ur kontinentalen kalitateari buruzko uztailaren 18ko 78/659/EEE Zuzentaraua. 6.4 eranskinean bildutako eremuak.

   - 345/1993 Errege Dekretua, martxoaren 5ekoa, itsasoko uren, eta moluskuen eta itsasoko beste ornogabe bizi batzuen produkzioaren kalitateari buruzko arauak ezartzen dituena. 6.5 eranskinean bildutako eremuak.

d) Olgeta-erabilerakotzat deklaratutako ur-masak, bainu-urtzat deklaratutako eremuak barne direla, bainu-uren kalitatea kudeatzeari buruzko urriaren 11ko 1341/2007 Errege Dekretuaren arabera. 6.6 eranskinean, tarteko eta kostaldeko uretan deklaratutako bainu-eremuak zerrendatzen dira. 10. eranskinean, olgeta-erabilerei buruzko jardunbide egokien gidak biltzen dira.

e) Urrakortzat deklaratutako eremuak, nekazaritza-iturrietatik datozen nitratoek sorrarazitako kutsaduraren aurka urak babesteari buruzko arauak aplikatuta: 261/1996 Errege Dekretua, otsailaren 16koa, nekazaritza-iturrietatik datozen nitratoek sorrarazitako kutsaduraren aurka urak babesteari buruzkoa. Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoan ez dago kategoria horretako eremurik.

f) Sentikortzat deklaratutako eremuak, hondakin-ur hiritarren tratamenduari buruzko arauak aplikatuta: 11/1995 Errege Dekretu Legegilea, abenduaren 28koa, hondakin-ur hiritarren tratamenduan aplikatzekoak diren arauak ezartzen dituena. Kategoria honetako eremuak 6.7 eranskinean jasotzen dira.

g) Habitata edo espezieak babesteko deklaratutako eremuak, uraren egoera mantendu edo hobetzea beraiek babesteko faktore garrantzitsua dutenak: garrantzi komunitarioko lekuak (GKL), hegaztiak bereziki babesteko eremuak (HBBE) eta kontserbazio bereziko

Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretua, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa onartzen duena, Estatuko Aldizkari Ofizialaren 137. zk.an argitaratua. Uraren Euskal Agentziak itzulia.

Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretua, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa onartzen duena, Estatuko Aldizkari Ofizialaren 137. zk.an argitaratua. Uraren Euskal Agentziak itzulia.

eremuak (KBE), Natura 2000 Sareko naturagune babestuetan sartutakoak. Horiek Ondare Naturalari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen esparruan izendatuak dira. Atal honi dagozkion espazioak 6.8 eranskinean daude jasota.

h) Ur mineralak eta termalak babesteko perimetroak, dagokien berariazko legeriaren arabera onartutakoak. Onartutako perimetroak 6.9 eranskinean zerrendatzen dira.

i) Oso egoera ekologiko onean egoteagatik eta gizakiak esku hartu ez izateagatik edo esku-hartze txikia izateagatik deklaratutako ibai-erreserba naturalak. Identifikatutako ibai-erreserba naturalak 6.10 eranskinean jasotzen dira.

j) Hezeguneen Espainiako Inbentarioan sartzeko proposatuta egoteagatik (martxoaren 12ko 435/2004 Errege Dekretuaren arabera) edo Ramsar hitzarmeneko zerrendan sartuta egoteagatik hautatutako hezeguneak. Babestutako Eremuen Erregistroan sartutako hezeguneen zerrenda 6.11 eranskinean jasotzen da.

k) Babes bereziko eremuak. Kategoria honen barruan, honako tipologia hauek bereizten dira:

- Interes naturala edo ingurumenekoa duten ibai-tarteak; halakotzat hartuta babes berezia behar duten tarte bereziki bakanak. Tarte horiek 6.12 eranskinean zerrendatzen dira.
- Babes bereziko hezeguneak: Hezeguneen Espainiako Inbentarioan edo Ramsar hitzarmenean sartutako hezeguneen kategorian barne hartuta ez dauden, baina babesteko hautatu diren hainbat hezeguneri dagozkie. 6.13 eranskinean daude bilduta.
- Beste babes-figura batzuk: 6.14 eranskinean, dagoeneko adierazitako inolako ataletan jasota ez dauden, baina egoki babesteko hautatu diren bestelako figurak jasotzen dira.

2. KAPITULUA
INGURUMEN HELBURUAK

9. artikulua. Ingurumen-helburuak

1. 7. eranskinean, planaren esparruan identifikatutako ur-masa bakoitzerako ingurumen-helburuak eta horiek gauzatzeko epeak jasotzen dira. Plan honetan, ez dago aurreikusita ingurumen-helburu arinagorik ezartzea.

2. Babestutako Eremuen Erregistroko eremuetarako ingurumen-helburuak ur-masetarako helburu orokorrekiko gehigarriak dira. Izan ere, horiekin lotuta daude eta adierazitako eremuak deklaratzeko baliatutako legerian jasotako helburuetara jotzen dute, bai eta beraiek babestu, antolatu eta kudeatzeko tresnek ezartzen dituzten helburuetara ere.

10. artikulua. Ur-masen egoeraren aldi baterako narriadura

Ur-masa baten ego gehiagoren egoera aldi baterako narriatuz gero, ondoko hauek dira arrazionalki ezustekotzat edo apartekotzat har daitezkeen egoerak (Plangintza Hidrologikoaren Araudiko 38. artikuluaren arabera):

a) Uholde larritzat hartuko dira probabilitate ertainekoak, uholde-arriskuak ebaluatu eta kudeatzeko uztailaren 9ko 903/2010 Errege Dekretuaren 8. artikuluko 1. ataleko b) kategoriarekin bat etorriz. Probabilitate handieneko uholdeak uholde larritzat hartu ahal izango dira, baldin eta uholde horien inpaktuak ere ezohikoak badira.

b) Lehorte luzetzat ulertuko dira aplikatzekoa den Alerta eta Behin-behineko Lehorte Egoeretan Jarduteko Plan Berezian xedatutakoaren arabera deklaratutako larrialdi-egoerari dagozkionak.

c) Arrazoiz aurreikusi ezin izan diren istriputzat hartuko dira, besteak beste: ustekabekoak diren noizbehinkako isurketak, hondakin eta produktu industrialak

biltegiratzeko sistemetan izandako akatsak, azpiegitura hidraulikoen eta saneamendukoen ustekabeko hausturak, industrietako suteak eta garraioan izandako istripuak. Era berean, baso-suteen ondoriozko egoerako kontuan hartuko dira.

d) Beste fenomeno natural muturreko batzuk kontuan hartuko dira; hala nola, lurrikarak, itsasikarak, tornadoak, elur-jausiak, etab.

Plangintza Hidrologikoaren Araudiko 38. artikuluak aldi baterako narriadura-egoeretarako ezarritako baldintzak bete beharko dira.

11. artikulua. Aldaketa berrietarako baldintzak

Plan honen indarraldian ur-masa baten edo gehiagoren egoera aldatuz gero, aldaketa baten ondorioz; Plangintza Hidrologikoaren Araudiko 39. artikuluan ezarritako xedapenak aplikatu beharko dira.

Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretua, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa onartzen duena, Estatuko Aldizkari Ofizialaren 137. zk.an argitaratua. Uraren Euskal Agentziak itzulia.

3. KAPITULUA
EMARI EKOLOGIKOEN ERREGIMENA

12. artikulua. Emari ekologikoen erregimenari buruzko gai orokorrak

1. Uztailaren 20ko 1/2001 Errege Dekretu Legegileak onartutako Urei buruzko Legearen testu bategineko 59.7 artikuluaren arabera, emari ekologikoak edo ingurumen-eskaerak ez dira erabileratzat hartuko artikulu horretan eta hurrengoetan jasotakoaren eraginetarako; eta ustiapen-sistemei oro har ezartzen zaien murrizketatzat jo behar dira, 13.6 artikuluan ezarritakoaren kaltetan izan gabe.

2. Plan Hidrologiko hau indarrean jarri ondoren esleitzen diren emakida guztiek bertan ezarritako emari ekologikoen erregimena bete beharko dute. Era berean, klausuletan aurreikuspen hori jasotzen duten egungo emakidei aplikatzekoa izango da hori, 15. artikuluan adierazitakoaren kaltetan izan gabe.

3. Kapitulu honetan eta 8. eranskinean bildutako aginduetan, emari ekologiko minimoak, emari ekologiko maximoak eta horien denbora-banaketak jasotzen dira. Emari ekologikoen erregimenaren gainerako osagaiak Plan Hidrologikoaren indarraldian aztertuko dira, eta 2015eko abenduaren 31a baino lehen erabaki beharko dira.

13. artikulua. Emari ekologiko maximoak

1. Ibai-kategoriako eta tarteko kategoriako ur-masetarako, 8.1 eranskinean agertzen diren gutxieneko emari ekologikoak finkatu dira, bai ohiko egoera hidrologikorako, bai aplikatzekoa den Alerta eta Behin-behineko Lehorte Egoeretan Jarduteko Plan Berezian xedatutakoaren arabera deklaratutako lehortearen ondoriozko larrialdi-egoeretarako.

2. Ohiko egoera hidrologikorako ezarritako emari ekologiko minimoei eragin gabe eskaerei erantzuteko irtenbide tekniko bideragarriak daudenean, ez da aplikatzekoa izango zehaztutako emari ekologiko minimoen erregimena deklaratutako lehortearen ondoriozko larrialdi-egoerarako.

3. Lehen puntuan adierazitako gutxieneko emari ekologikoak kontuan hartutako lurrazaleko ur-masaren edo tartearen ibaian beherako muturrari dagozkio.

4. 8.1 eranskinekoekin bat ez datozen puntuetan, ibilguetako gutxieneko emari ekologikoak zehazteko, ondoko arauei jarraituko zaie:

a) Gutxieneko emari ekologikoak daudeneko bi punturen artean kokatutako leku batean gutxieneko emari ekologikoa kalkulatzeko, arro isurleko azalera-aldea aplikatuko da, jarraian adierazten den formulari jarraituz:

$$Q_x = Q_1 + \frac{(Q_2 - Q_1)}{(A_2 - A_1)} x (A_x - A_1)$$

Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretua, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa onartzen duena, Estatuko Aldizkari Ofizialaren 137. zk.an argitaratua. Uraren Euskal Agentziak itzulia.

Non:

Q1: Gutxieneko emari ekologikoa ibaian gorako puntuan. Ibaian gora, 8.1 eranskinean zehaztutako gutxieneko emari ekologikoa duen puntu bat baino gehiago egonez gero, emari handienekoa Q1 gisa hartuko da.

Q2: Gutxieneko emari ekologikoa ibaian beherako puntuan.

Qx: Gutxieneko emari ekologikoa kalkulatu nahi den puntuan.

A1: Arro isurlearen azalera ibaian gorako puntuan.

A2: Arro isurlearen azalera ibaian beherako puntuan.

Ax: Arro isurlearen azalera kalkulatu nahi den puntuan.

b) Gutxieneko emarietako erregimenaren balioa estrapolatu behar denean (hau da, gutxieneko emariak izendatuta dituen lehen puntutik ibaian gorako erregimen bat kalkulatu behar deneko buruko tarteetan), honako formula hau erabili beharko da:

$$Q_x = \frac{Q_1}{A_1} x\, A_x$$

Non:

Q1: Gutxieneko emari ekologikoa ibaian beherako puntuan.

Qx: Gutxieneko emari ekologikoa kalkulatu nahi den puntuan.

A1: Arro isurlearen azalera ibaian beherako puntuan.

Ax: Arro isurlearen azalera kalkulatu nahi den puntuan.

c) Txikiak izateagatik ur-masatzat izendatu ez diren eta ibai-kategoriako inolako ur-masarekin lotuta ez dauden ibilgu-tarteetan (batez ere, itsasora edo tarteko uretara isurtzen duten ibilgu txikiak), gutxieneko emari ekologikoa kalkulatzeko, arro isurleko km² bakoitzeko 2,0 l/s-ko balioa kontuan hartuko da; beste balio bat egokiro justifikatzen bada salbu.

d) Iturburuetan edo ibilguetako lurrazaleko urak lurrean zati batean edo erabat sar daitezkeen lekuetan, administrazio eskudunak hala erabakitzen duenean natura-ingurunean izan litezkeen eraginen arabera; gutxieneko emari ekologikoa berariazko azterlanen bidez zehaztuko da eta ez da aplikatzekoa izango aurreko ataletan deskribatutako prozedura. Berariazko azterlan horiek gutxieneko emari ekologikoak zehaztu beharko dituzte azterlanetan beraietan eragindakotzat hartzen den ibilguaren tarte osoan.

5. Ez dira galdagarriak izango unean-unean dagoen erregimen naturaletik gorako gutxieneko emari ekologikoak. Ibilgutik doan emaria ezarritako gutxieneko emari ekologikoa baino txikiagoa denean, ezingo da ur-deribaziorik egin, Plan Hidrologikoa honetan jasotako salbuespenak salbuespen.

6. Ohiko lehorte-egoeretan, herriak hornitzeko emakidek, Urei buruzko Legearen 59.7 artikuluari jarraituz, lehentasuna izango dute emari ekologiko minioen erregimenaren gainetik; baldin eta, aurretiaz, Administrazio Hidraulikoak hari erantzuteko hornidura-aukera bideragarririk ez dagoela irizten badio eta honako baldintza hauek betetzen badira:

a) Hornidurarako, emari zirkulatzailearen % 75 baino gehiago ez ateratzea.

b) Emari zirkulatzaileak gutxieneko emari ekologikoak baino txikiagoak diren bitartean, erabilitako ur kantitatea murrizteko neurri egokiak hartzea.

c) Emakidaren erakunde onuradunak hartutako neurriei eta lortutako emaitzei buruzko txostena egin eta Administrazio Hidraulikoari bidaltzea, gehienez 1 hilabeteko epean, egoera hasten denetik.

d) Nolanahi ere, emari ekologiko minimoak eraginpean egon diren aldia amaitu eta luzeen jota 6 hilabetera, hornidura-emakidaren onuradun den erakundeak

Administrazio Hidraulikoari jardun-plan bat entregatuko dio, horrelakoak gertatzeko aukerak gutxiagotzera bideratutakoa. Plan horretan, bidezkoa denaren arabera, honako hauek identifikatuko dira: kontsumoa aurreztera bideratutako neurriak, hornidura-sarean eraginkortasuna hobetzeko neurriak eta baliabideen hautabidezko iturriak, horiek kontrol- eta jarraipen-sistemarekin batera. Administrazio Hidraulikoak jardun-plan horren aplikazioaren jarraipena egingo du eta, hura behar adinakoa edo egokia ez dela irizten badio, hartunearen lehentasuna aplikatzea eten ahal izango da.

14. artikulua. Emari ekologiko minimoak

8.2 eranskinean, erregulazio-egitura handiak dituzten ibai-kategoriako ur-masa batzuetarako gehieneko emari ekologikoen erregimenak finkatzen dira.

15. artikulua. Emari ekologikoen erregimena ezartzeko prozesua

1. Emari ekologikoen erregimena indarrean dauden emakidei aplikatzekoa izango da horien titularrei jakinarazten zaienetik.

2. Titularrei aurreko atalean adierazten den emari ekologikoen erregimena jakinarazi aurretik, itun-prozesu bati ekingo zaio, Plangintza Hidrologikoaren Araudiko 18.3 artikuluan xedatutakoaren arabera. Prozesu horrek amaituta egon beharko du 2015eko abenduaren 31 baino lehen, berori data horren aurretik ezartzearen kaltetan izan gabe, hurrengo ataletan jasotako baldintzen arabera. Jakinarazpena egiten den arte, uztailaren 24ko 1664/1998 Errege Dekretuaren 1.1.a) artikuluaren bidez onartutako Iparraldeko III. Plan Hidrologikoaren gutxieneko ingurumen-emariak izango dira aplikatzekoak, errege-dekretu honen xedapen iragankor bakarraren arabera.

3. Itun-prozesuari eta, ondorioz, jakinarazpenari lehentasuna emango zaie, ur-masetarako eta babestutako eremuetarako ezarritako ingurumen-helburuak betetzean eragin handiena izan dezaketen aprobetxamenduei dagokienez.

4. Hitzartze-prozesuan, ezarpen-planaren aginduak finkatuko dira, eta, hala badagokio, beharrezkoak izan litezkeen egokitzapen-obrak egiteko gehieneko epea ere.

5. Itun-prozesuen ondorioz emari ekologikoen erregimenean ezar daitezkeen aldaketak –13.4.d) artikulua aplikatzeagatik edo Administrazio Hidraulikoak baliozkotutako emari ekologikoen erregina hobetzeko azterlanengatik– 1. atalean jasotako baldintzen arabera izango dira aplikatzekoak. Era berean, horiek Plana berrikusteko hurrengo ziloan sartuko dira; Mugapeko Uraren Kontseiluak eta Erabiltzaileen Batzarrak, dagozkien eskumen-esparruetan, horiek lehenago sartzea erabakitzen badute salbu, Plangintza Hidrologikoaren Araudiko 87.1 artikuluaren arabera.

Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretua, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa onartzen duena, Estatuko Aldizkari Ofizialaren 137. zk.an argitaratua. Uraren Euskal Agentziak itzulia.

4. KAPITULUA
ERABILEREN LEHENTASUNA ETA BATERAGARRITASUNA

16. artikulua. Uraren erabilerak

Plangintza Hidrologikoaren Araudiko 12. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, uraren erabilera hauek aintzat hartuko dira:

1. Erabileren sailkapena:

a) Biztanleriarentzako hornidura:

1) Hiriguneentzako hornidura:

i) Giza kontsumoa.

ii) Giza kontsumoaz bestelako etxe-erabilerako beste erabilera batzuk.

iii) Udala.

iv) Ur-kontsumo txikiko industriak, dendak, eta abeltzaintza- eta ureztatze-sailak, herriguneetan kokatutakoak eta udal-sareari lotutakoak.

Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretua, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa onartzen duena, Estatuko Aldizkari Ofizialaren 137. zk.an argitaratua. Uraren Euskal Agentziak itzulia.

2) Hiriguneetatik kanpoko beste hornidura batzuk.

b) Nekazaritza eta abeltzaintzako erabilerak:

1) Ureztatzea.

2) Abeltzaintza.

c) Energia elektrikoa sortzeko industria-erabilerak:

1) Zentral termiko berriztagarriak: termoeguzkikoak eta biomasa.

2) Zentral termiko berriztaezinak: ikatza eta ziklo bateratua.

3) Zentral hidroelektrikoak.

d) Aurreko ataletan barnean hartzen ez diren beste industria-erabilera batzuk:

1) Kontsumo-ondasunak sortzen dituzten industriak.

2) Aisialdiko eta turismoko industriak.

3) Erauzketa-industriak.

4) Indar eragilearen produkzioa.

e) Akuikultura.

f) Olgeta-erabilerak.

g) Nabigazioa eta ur-garraioa, salgaien eta pertsonen garraio-nabigazioa barne dela.

h) Bestelako erabilerak:

1) Publikoak.

2) Pribatuak.

2. Giza kontsumotzat hartzen da ura edateko, kozinatzeko, elikagaiak prestatzeko eta norberaren higienerako erabiltzea.

3. Aisialdiko eta turismoko industria-erabileretan sartuta daude ura natura-ingurunetik desbideratzea dakartenak; hornidurako hiri-sareen bidez zuzkitu ezin diren kirol-instalazioetako jarduerak (golf-zelaiak, eski-estazioak, ur-parkeak, kirolguneak eta antzekoak), zaldi-eskoletakoak, txakur-zaindegietakoak eta antzekoak ahalbidetzeko helburuarekin, bai eta industria-instalazio kulturalak (sutegiak, iturriak, zerrategiak, garbitegiak, mainak eta mota horretako bestelakoak) mantendu edo birgaitzeko helburuarekin ere.

4. Olgeta-erabileretan sartuta daude, aurreko atalean barne hartu gabe, olgeta pribatukoak edo kolektibokoak direnak, industria- edo merkataritza-jarduerarik gabe. Zehazki, ondoko hauek dira:

a) Ahitzekoa ez den moduan, urtegietan, ibaietan eta inguru naturaletan ura erabiltzen duten aisia-jarduerak; hala nola, ur lasaietan (bela, windsurf, arraunketa, motor-ontziak, uretako eskia, etab.) edo ur-amiletan (piraguismoa, raftinga, etab.) egiten diren ur-kirolak, bainua eta kirol-arrantza.

b) Zeharka urarekin lotuta dauden aisia-jarduerak, ura antzeko jardueretarako erakargune edo erreferentziagune gisa erabiltzen dutenak; hala nola: kanpaldiak, irtenaldiak, ornitologia, ehiza, mendi-ibilaldiak eta ur-eremu eta -ibilguetatik gertu egiten diren turismo- edo olgeta-jarduera guztiak.

5. 1. ataleko h) letran adierazitako erabileretan, aurreko kategorietako batean ere ez dauden erabilera guztiak bilduko dira, zentzu zabalean. Erabilera horiek ere ezin izango dute ingurumen-babeseko jardunak egiteko xedea; halakotzat, horniduraren ondoren lehentasunezkoak direnak.

Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretua, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa onartzen duena, Estatuko Aldizkari Ofizialaren 137. zk.an argitaratua. Uraren Euskal Agentziak itzulia.

17. artikulua. Erabileren lehentasun-ordena

1. Uraren erabileren artean ondoko lehentasun-ordena ezarri da, baliabidea eta horren ingurunea babestu eta kontserbatzeko eskakizunak kontuan izanda:

1. Biztanleriarentzako hornidura.

2. Abeltzaintza.

3. Aisiaren eta turismoaren industrietako erabileretatik baztertutako industria-erabilerak

4. Ureztatzea.

5. Akuikultura.

6. Olgeta-erabilerak, eta aisiaren eta turismoaren industrietako erabilerak

7. Nabigazioa eta ur-garraioa.

8. Bestelako erabilerak.

2. Lehentasun-ordenak ezingo du eraginik izan plan honek hurrengo kapituluan berariaz esleitutako baliabideetan, ez eta uraldiak mailakatzeko urtegietako babesetan ere.

3. Lehentasun-hurrenkera bera duten erabileretarako eskaera bat baino gehiago izanez gero, Administrazio Hidraulikoak eskaera iraunkorrenei emango die lehentasuna.

4. Biztanleriarentzako horniduretan, lehentasuna izango dute mankomunitateekin, partzuergoekin edo udalen sistema integratuekin lotutako eskaerek, bai eta kalitate-arazoak dituzten urak kalitate egokiko beste batzuekin ordezkatzeko ekimenek ere.

5. KAPITULUA
BALIABIDEEN ESLEIPENA ETA ERRESERBA

18. artikulua. Ustiapen-sistemak zehaztea

1. Plangintza Hidrologikoaren Araudiko 19. artikuluaren arabera, baliabideak ustiatzeko honako sistema hauek hartu dira:

a) Barbadun sistema.

b) Nerbioi sistema.

c) Butroe sistema.

d) Oka sistema.

e) Lea sistema.

f) Artibai sistema.

g) Deba sistema.

h) Urola sistema.

i) Oria sistema.

j) Urumea sistema.

k) Oiartzun sistema.

l) Bidasoa sistema.

m) Pirinioetako ibaien sistema.

2. Baliabideak ustiatzeko sistemen esparrua jarraian zehazten da:

a) Barbadun ustiapen-sistema: Barbadun ibaiaren arro osoa eta estuarioa biltzen ditu, Tresmoral, Pikon edo Kotorrio, Galdames eta Bezi ibaien arroak, eta Sopuertako lurpeko ur-masa barne direla.

Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretua, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa onartzen duena, Estatuko Aldizkari Ofizialaren 137. zk.an argitaratua. Uraren Euskal Agentziak itzulia.

b) Nerbioi ustiapen-sistema: Nerbioi, Cadagua, Ibaizabal, Altube, Zeberio, Ordunte, Asua, Galindo eta Gobelas ibaien arroak, eta Nerbioi-Ibaizabalen estuarioa biltzen ditu. Gainera, Altubeko urmaelen gunea hartzen du.

c) Butroe ustiapen-sistema: Butroe ibaiaren arro osoa eta estuarioa biltzen ditu, Oleta, Arretabarri, Atxispe, Zuzentze, Maruri eta Larrauri ibaien arroak barne direla. Era berean, Andrakas, Estepona, Bakio eta Infierno ibaien aldameneko arroak, eta Getxo-Bergara, Etxano eta Jata-Sollube lurpeko ur-masak hartzen ditu.

d) Oka ustiapen-sistema: Oka ibaiaren arro osoa eta estuarioa biltzen ditu, Mape, Muxika, Kanpantxu, Golako eta Oma ibaien arroak barne direla. Era berean, Artigas eta Laga ibaien aldameneko arro guztiak, eta Etxano, Oiz, Arrola-Murumendi, Gernika, Ereñozar, Getxo-Bergara eta Jata-Sollube lurpeko ur-masak hartzen ditu.

e) Lea ustiapen-sistema: Lea ibaiaren arro osoa eta estuarioa biltzen ditu, Oiz eta Arbina ibaien arroak barne direla. Era berean, Ea ibaiaren aldameneko arroa, eta Getxo-Bergara, Arrola-Murumendi eta Ereñozar lurpeko ur-masak hartzen ditu.

f) Artibai ustiapen-sistema: Artibai ibaiaren arro osoa eta estuarioa biltzen ditu, Bolibar, Urko eta Amailoa ibaien arroak barne direla. Era berean, Getxo-Bergara, Arrola-Murumendi, Ereñozar eta Izarraitz lurpeko ur-masak hartzen ditu.

g) Deba ustiapen-sistema: Deba ibaiaren arro osoa eta estuarioa biltzen ditu, Ego, Aramaio, Oñati, Urkulu, Arantzazu, Ubera, Angiozar, Lastur, Kilimoi, San Lorenzo eta Antzuola ibaien arroak barne direla. Era berean, Saturraran eta Mijoa ibaien aldameneko arroak, eta Aizkorri, Arrola-Murumendi, Etxano, Balmaseda-Elorrio, Aramotz, Arrasate, Altube-Urkilla, Aranzazu, Getxo-Bergara, Izarraitz eta Zumaia-Irun lurpeko ur-masak hartzen ditu.

h) Urola ustiapen-sistema: Urola ibaiaren arro osoa eta estuarioa biltzen ditu, Ibaieder, Altzolaratz, Barrendiola, Urtatza, Katuin, Sastarrain, Larraondo eta Otaola ibaien arroak barne direla. Era berean, Arama, Arrola-Murumendi, Gatzume, Tolosa, Arrasate, Aranzazu, Getxo-Bergara, Izarraitz eta Zumaia-Irun lurpeko ur-masak hartzen ditu.

i) Oria ustiapen-sistema: Oria ibaiaren arroa eta estuarioa biltzen ditu, bai eta Agauntza, Zaldibia, Amezketa, Araxes, Berastegi, Leitzaran, Estanda, Asteasu, Santiago eta Altxerri ibaien arro guztiak ere. Era berean, Iñurritzaren aldameneko arroa hartzen du.

j) Urumea ustiapen-sistema: Urumea ibaiaren arroa biltzen du, bai eta Añarbe, Landarbaso eta Ollin ibaien arroak, Urumearen estuarioa eta Igara ibaiaren aldameneko arroa ere.

k) Oiartzun ustiapen-sistema: Oiartzun ibaiaren arroa eta estuarioa, eta Zamora, Sarobe, Karrika eta Arditurri haren ibaiadarrena biltzen ditu. Era berean, Jaizkibel, Zumaia-Irun, Oiartzun, Aiako Harria eta Bortziriak mendigune paleozoikoa hartzen ditu.

l) Bidasoa ustiapen-sistema: Bidasoa ibaiaren arroa biltzen du, bai eta Zia, Ezkurra, Zeberia, Latsa eta Endara, Jaizubia eta Aldabe ibaien arro guztiak, eta Bidasoaren estuarioa ere.

m) Pirinioetako ibaien ustiapen-sistema: Urritzate eta Aritzakun (Frantziako Errobiren ibaiadarra) ibai-arroen buruak, eta Ugarana ibaiaren zerbitzari diren Arotzarena, Olabidea, Barreta, Alzagerri eta Lapitxuri ibaienak biltzen ditu. Gainera, Zubiondo, Imelestegi eta Beurreta-Buzanko ibaien (Aldudeko Errobiren zerbitzariak), eta Luzaide ibaiaren (Lizaideren zerbitzaria) arroak hartzen ditu.

19. artikulua. Baliabideen esleipena Barbadun sisteman

Sopuertari Sopuerta eta Galdamesko udalerrietako lurrazaleko eta lurpeko baliabideen 0,24 hm^3/urte esleitu zaio, Zadorra-Bilbo/Bizkaia hornidura-sistemaren bidez bete ez diren eskaerei erantzuteko.

Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretua, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa onartzen duena, Estatuko Aldizkari Ofizialaren 137. zk.an argitaratua. Uraren Euskal Agentziak itzulia.

20. artikulua. Baliabideen esleipena Nerbioi sisteman

- Cadagua ibaia.

1. Mena Haranari, eskaerei erantzuteko, urteko 0,44 hm³ esleitu zaio lurrazaleko baliabideetatik (Cadagua ibaia), eta egun erabiltzen dituen Salbada eta Mena-Urduña lurpeko ur-masen baliabideetatik.

2. Balmasedari, eskaerei erantzuteko, urteko 0,59 hm³ esleitu zaio lurrazaleko baliabideetatik, egun erabiltzen duen Balmaseda-Elorrio lurpeko ur-masaren baliabideetatik eta Bilbok hornitzen dizkion Ordunteko urtegian erregulatutako baliabideetatik.

3. Zallari, eskaerei erantzuteko, urteko 0,83 hm³ esleitu zaio lurrazaleko baliabideetatik, egun erabiltzen duen Balmaseda-Elorrio lurpeko ur-masaren baliabideetatik eta Bilbok hornitzen dizkion Ordunteko urtegian erregulatutako baliabideetatik.

4. Gueñesi, eskaerei erantzuteko, urteko 0,60 hm³ esleitu zaio lurrazaleko baliabideetatik, egun erabiltzen duen Balmaseda-Elorrio lurpeko ur-masaren baliabideetatik eta Bilbok hornitzen dizkion Ordunteko urtegian erregulatutako baliabideetatik.

5. Alonsotegiri, eskaerei erantzuteko, urteko 0,29 hm³-ko esleitu zaio, lurrazaleko baliabideetatik, egun erabiltzen duen Balmaseda-Elorrio lurpeko ur-masaren baliabideetatik eta Bilbo Bizkaia Ur Partzuergoak hornitzen dizkion Zadorra-Arratiako isuraldatzetik datozen Undurragako urtegian erregulatutako baliabideetatik.

6. Artziniega, Gordexola eta Okondo udalerriei, eskaerei erantzuteko, urteko 0,61 hm³ esleitu zaie, egun erabiltzen dituzten lurrazaleko baliabideetatik eta lurpeko baliabideetatik.

7. Nekazaritza-eskaerei erantzuteko, urteko 0,84 hm³ esleitu dira Cadagua ibaitik datozen baliabideetatik.

8. Zenbatetsitako industria-eskaerei erantzuteko, urteko 3,52 hm³ esleitu dira Cadagua ibaitik datozen baliabideetatik.

- Ibaizabal ibaia.

9. Elorriori, eskaerei erantzuteko, urteko 0,67 hm³ esleitu zaio lurrazaleko baliabideetatik, egun erabiltzen duen Balmaseda-Elorrio eta Etxano lurpeko ur-masaren baliabideetatik eta Durangaldea sistemak hornitzen dizkion Aramotz ur-masaren baliabideetatik.

10. Abadiñori, eskaerei erantzuteko, urteko 0,71 hm³ esleitu zaio lurrazaleko baliabideetatik, eta egun erabiltzen dituen Balmaseda-Elorrio, Etxano eta Oiz (Aia iturburua) lurpeko ur-masen baliabideetatik.

11. Zaldibarri, eskaerei erantzuteko, urteko 0,23 hm³ esleitu zaio lurrazaleko baliabideetatik, egun erabiltzen duen Etxano lurpeko ur-masaren baliabideetatik eta Durangaldea sistemak hornitzen dizkion Aramotz ur-masaren baliabideetatik.

12. Berrizi, eskaerei erantzuteko, urteko 0,50 hm³ esleitu zaio lurrazaleko baliabideetatik eta egun erabiltzen dituen Etxano eta Oiz (Oizetxebarrieta-A zundaketa) lurpeko ur-masen baliabideetatik.

13. Durangori, eskaerei erantzuteko, urteko 2,40 hm³ esleitu zaio, lurrazaleko baliabideetatik, eta egun erabiltzen dituen Etxano, Oiz (Ibarruri iturburua, Gallandas iturburua, eta Ibarruri, Gallandas eta Arria zundaketak) eta Aramotz (Mañariko iturburuak eta zundaketak) lurpeko ur-masen baliabideetatik.

14. Iurrietari, eskaerei erantzuteko, urteko 0,48 hm³ esleitu zaio, lurrazaleko baliabideetatik, eta egun erabiltzen dituen Etxano, Oiz (Ibarruri iturburua, Gallandas iturburua, eta Ibarruri, Gallandas eta Arria zundaketak) eta Aramotz (Mañariko iturburuak eta zundaketak) lurpeko ur-masen baliabideetatik.

15. Amorebieta-Etxanori, eskaerei erantzuteko, urteko 1,96 hm³ esleitu zaio lurrazaleko baliabideetatik, eta egun erabiltzen dituen Etxano (Etxano-A zundaketa) eta Balmaseda-Elorrio lurpeko ur-masen baliabideetatik.

16. Igorreri, eskaerei erantzuteko, urteko 0,44 hm³ esleitu zaio lurrazaleko baliabideetatik, eta egun erabiltzen dituen Aramotz (San Kristobal iturburua) eta Balmaseda-Elorrio lurpeko ur-masen baliabideetatik.

17. Lemoari, eskaerei erantzuteko, urteko 0,35 hm³ esleitu zaio lurrazaleko baliabideetatik, eta egun erabiltzen dituen Aramotz (San Kristobal iturburua) eta Balmaseda-Elorrio lurpeko ur-masen baliabideetatik.

18. Galdakaori, eskaerei erantzuteko, urteko 2,44 hm³-ko esleitu zaio, Lekubasoko urtegian erregulatutako lurrazaleko baliabideetatik, egun erabiltzen duen Balmaseda-Elorrio lurpeko ur-masaren baliabideetatik eta Bilbo Bizkaia Ur Partzuergoak hornitzen dizkion Zadorra-Arratiako isuraldatzetik datozen Undurragako urtegian erregulatutako baliabideetatik.

19. Atxondo, Garai, Mañaria, Izurtza, Larrabetzu, Bedia, Zeanuri, Areatza, Artea, Arantzazu eta Dimako udalerriei, eskaerei erantzuteko, urteko 1,15 hm3 esleitu zaie, egun erabiltzen dituzten lurrazaleko baliabideetatik eta lurpeko baliabideetatik.

20. Nekazaritza-eskaerei erantzuteko, urteko 0,01 hm³ esleitu dira eskuragarri dauden baliabideetatik.

21. Zenbatetsitako industria-eskaerei erantzuteko, urteko 13,80 hm³ esleitu dira Ibaizabal ibaitik datozen baliabideetatik.

- Nerbioi ibaia.

22. Urduñari, eskaerei erantzuteko, urteko 0,45 hm³ esleitu zaio lurrazaleko baliabideetatik, eta egun erabiltzen dituen Salbada eta Mena-Urduña lurpeko ur-masen baliabideetatik.

23. Amurriori, eskaerei erantzuteko, urteko 1,40 hm³ esleitu zaio lurrazaleko baliabideetatik, egun erabiltzen dituen Mena-Urduña eta Balmaseda-Elorrio lurpeko ur-masen baliabideetatik eta Maroñoko urtegian erregulatutako baliabideetatik.

24. Laudiori, eskaerei erantzuteko, urteko 1,73 hm³ esleitu zaio lurrazaleko baliabideetatik (Anauri ibaia, Altube ibaia), Balmaseda-Elorrio lurpeko ur-masaren baliabideetatik eta Maroñoko urtegian erregulatutako baliabideetatik.

25. Aiarari, eskaerei erantzuteko, urteko 0,65 hm³ esleitu zaio lurrazaleko baliabideetatik, egun erabiltzen dituen Salbada eta Mena-Urduña lurpeko ur-masen baliabideetatik eta Maroñoko urtegian erregulatutako baliabideetatik.

26. Orozkori, eskaerei erantzuteko, urteko 0,37 hm³ esleitu zaio lurrazaleko baliabideetatik, eta egun erabiltzen dituen Balmaseda-Elorrio eta Itxina (Aldabide iturburua) lurpeko ur-masen baliabideetatik.

27. Ugao-Miraballesi, eskaerei erantzuteko, urteko 0,34 hm³-ko esleitu zaio, lurrazaleko baliabideetatik, egun erabiltzen duen Balmaseda-Elorrio lurpeko ur-masaren baliabideetatik eta Bilbo Bizkaia Ur Partzuergoak hornitzen dizkion Zadorra-Arratiako isuraldatzetik datozen Undurragako urtegian erregulatutako baliabideetatik.

28. Arrigorriagari, eskaerei erantzuteko, urteko 1,17 hm³-ko esleitu zaio, lurrazaleko baliabideetatik, egun erabiltzen duen Balmaseda-Elorrio lurpeko ur-masaren baliabideetatik eta Bilbo Bizkaia Ur Partzuergoak hornitzen dizkion Zadorra-Arratiako isuraldatzetik datozen Undurragako urtegian erregulatutako baliabideetatik.

29. Basauriri, eskaerei erantzuteko, urteko 3,11 hm³-ko esleitu zaio, lurrazaleko baliabideetatik, egun erabiltzen duen Balmaseda-Elorrio lurpeko ur-masaren baliabideetatik eta Bilbo Bizkaia Ur Partzuergoak hornitzen dizkion Zadorra-Arratiako isuraldatzetik datozen Undurragako urtegian erregulatutako baliabideetatik.

30. Etxebarriri eta Doneztebeko Elizateari, eskaerei erantzuteko, urteko 0,71 hm³-ko esleitu zaie, lurrazaleko baliabideetatik, egun erabiltzen duen Balmaseda-Elorrio lurpeko ur-masaren baliabideetatik eta Bilbo Bizkaia Ur Partzuergoak hornitzen dizkion Zadorra-Arratiako isuraldatzetik datozen Undurragako urtegian erregulatutako baliabideetatik.

30. Bilbori, eskaerei erantzuteko, urteko 42,39 hm³-ko esleitu zaio, egun erabiltzen dituen Ordunte eta Zolloko urtegietan erregulatutako eta Cadagua ibaiko lurrazaleko baliabideetatik, eta Bilbo Bizkaia Ur Partzuergoak hornitzen dizkion Zadorra-Arratiako isuraldatzetik datozen Undurragako urtegian erregulatutako baliabideetatik.

32. Bilbo Handiri, eskaerei erantzuteko, urteko 73,22 hm³-ko esleitu zaio, Artiba eta Nocedaleko urtegietan erregulatutako lurrazaleko baliabideetatik, egun erabiltzen duen Balmaseda-Elorrio

Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretua, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa onartzen duena, Estatuko Aldizkari Ofizialaren 137. zk.an argitaratua. Uraren Euskal Agentziak itzulia.

lurpeko ur-masaren baliabideetatik eta Bilbo Bizkaia Ur Partzuergoak hornitzen dizkion Zadorra-Arratiako isuraldatzetik datozen Undurragako urtegian erregulatutako baliabideetatik.

33. Arakaldo, Zeberio, Arrankudiaga eta Zaratamoko udalerriei, eskaerei erantzuteko, urteko 0,49 hm³ esleitu zaie, egun erabiltzen dituzten lurrazaleko baliabideetatik eta lurpeko baliabideetatik.

34. Barakaldori, eskaerei erantzuteko, urteko 3 hm³ esleitu zaio, Oiolako urtegiak erregulatutako lurrazaleko baliabideetatik.

35. Zenbatetsitako industria-eskaerei erantzuteko, urteko 4,40 hm³ esleitu dira Nerbioi ibaitik datozen baliabideetatik.

36. Olgeta-erabileren eskaerei erantzuteko (golfa), urteko 0,64 esleitu dira, sisteman eskuragarri dauden baliabideetatik.

21. artikulua. Baliabideen esleipena Butroe sisteman

Ustiapen-sistema honen ur-eskaera garrantzitsuenak Mugapetik kanpoko ustiapen-sistemetatik datozen baliabideetatik hornitzen dira (Zadorra-Bilbo/Bizkaia hornidura-sistema).

22. artikulua. Baliabideen esleipena Oka sisteman

1. Kanpantxu-Olaldeko hiri-eskaerei erantzuteko, urteko 3,08 hm³ esleitu da, Kanpantxu ibaiaren lurrazaleko uretatik eta Olalde-B zundaketako lurpeko uretatik.

2. Bermeoko hiri-eskaerei erantzuteko, urteko 1,77 hm³ esleitu dira, Golako ibaiaren eta Sollubeko ipar-isurialdearen baliabideetatik.

3. Busturialdeko eskualdearen hornidura-sistema osatzeko, urteko 0,25 hm³ gorde da Ganbeko etorkizuneko baltsan (Munitibar).

23. artikulua. Baliabideen esleipena Lea sisteman

1. Munitibarko eta Aulestiko hiri-eskaerei erantzuteko, Lea ibaiaren lurrazaleko baliabideak esleitu dira, urteko 0,04 eta 0,06 hm³-tan zenbatetsiak, hurrenez hurren.

2. Lekeitioko hiri-eskaerei erantzuteko, urteko 0,8 hm³ esleitu da, Arbina ibaiaren lurrazaleko baliabideetatik.

24. artikulua. Baliabideen esleipena Artibai sisteman

1. Markinako eskaerei erantzuteko, Artibai eta Bolibar ibaien buruetatik datozen lurrazaleko baliabideak esleitu dira, urteko 0,11 eta 0,65 hm³-tan zenbatetsiak, hurrenez hurren.

2. Urkoko eta Etxebarriko eskaerei erantzuteko, Urko ibaiaren lurrazaleko baliabideak esleitu dira, urteko 0,11 eta 0,02 hm³-tan zenbatetsiak, hurrenez hurren.

3. Ondarroako hornidurarako, urteko 0,94 hm³ esleitu da, Amailoa ibaiaren lurrazaleko baliabideetatik.

4. Berriatuko hornidurarako, urteko 0,205 hm³ esleitu da, Artibai ibaiaren behe-arroko lurrazaleko baliabideetatik. Era berean, industria-eskaerei erantzuteko, urteko 0,07 hm³ esleitu da, Artibai ibaiaren behe-arroko lurrazaleko baliabideetatik.

25. artikulua. Baliabideen esleipena Deba sisteman

1. Debagoieneko hiri-eskaerei erantzuteko, urteko 8,71 hm³ esleitu da, Urkulu urtegitik eta Pol-Pol sistematik datozen lurrazaleko baliabideetatik.

2. Eibarko hiri-eskaerei erantzuteko, urteko 2,65 hm³ esleitu da, Aixola urtegitik eta Sagarerreka sistematik datozen lurrazaleko baliabideetatik.

3. Deba, Elgoibar, Mendaro eta Mutrikuko udalerrien hornidurarako, urteko 2,74 hm³ esleitu da Kilimon sistemaren lurpeko baliabideetatik (Irabanetako galeria, Mahalako iturburuak eta Kilimongo putzuak, funtsean).

4. Bergarako industria-eskaerei erantzuteko, urteko 1,03 hm³ esleitu da, Deba ibaiaren lurrazaleko baliabideetatik (hainbat hartune biltzen ditu).

Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretua, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa onartzen duena, Estatuko Aldizkari Ofizialaren 137. zk.an argitaratua. Uraren Euskal Agentziak itzulia.

Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretua, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa onartzen duena, Estatuko Aldizkari Ofizialaren 137. zk.an argitaratua. Uraren Euskal Agentziak itzulia.

26. artikulua. Baliabideen esleipena Urola sisteman

1. Urola Garaiko eta Urola Erdiko hiri-eskaerei erantzuteko, urteko 2,78 eta 8,92 hm³ esleitu dira, hurrenez hurren, Barrendiolako eta Ibaiederko urtegien baliabideetatik.

2. Urolako (Urretxu, Zumarraga, Aizarnazabal, Azpeitia, Azkoitia eta Legazpi) industria-eskaerei erantzuteko urteko 2,84 hm³ esleitu da, Urola e Ibaieder ibaien lurrazaleko baliabideetatik (hainbat hartune biltzen dituzte).

27. artikulua. Baliabideen esleipena Oria sisteman

- Oria Garaia.

1. Idiazabali, eskaerei erantzuteko, urteko 0,30 hm³ esleitu zaio, lurrazaleko baliabideetatik, egun erabiltzen duen Beasain lurpeko ur-masaren baliabideetatik eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioak hornitzen dizkion Arriarango urtegian erregulatutako baliabideetatik.

2. Beasaini, eskaerei erantzuteko, urteko 1,22 hm³ esleitu zaio, lurrazaleko baliabideetatik, egun erabiltzen dituen Beasain, Arama eta Aralar lurpeko ur-masen baliabideetatik eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioak hornitzen dizkion Arriarango eta Lareoko urtegietan erregulatutako baliabideetatik.

3. Lazkaori, eskaerei erantzuteko, urteko 0,64 hm³ esleitu zaio, lurrazaleko baliabideetatik, egun erabiltzen dituen Beasain eta Aralar lurpeko ur-masen baliabideetatik eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioak hornitzen dizkion Arriarango eta Lareoko urtegietan erregulatutako baliabideetatik.

4. Ordiziari, eskaerei erantzuteko, urteko 0,87 hm³ esleitu zaio, lurrazaleko baliabideetatik, egun erabiltzen dituen Arama eta Aralar lurpeko ur-masen baliabideetatik eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioak hornitzen dizkion Arriarango eta Lareoko urtegietan erregulatutako baliabideetatik.

5. Zegama, Segura, Zerain, Mutiloa, Olaberria, Gabiria, Ormaiztegi, Ezkio-Itsaso, Ataun, Zaldibia, Arama, Altzaga, Baliarrain, Gaintza, Abaltzisketa, Orendain, Itsasondo eta Legorretako udalerriei, eskaerei erantzuteko, urteko 1,83 hm³ esleitu zaie, egun erabiltzen dituzten lurrazaleko baliabideetatik eta lurpeko baliabideetatik.

6. Nekazaritza-eskaerei erantzuteko, urteko 0,14 hm³ esleitu dira eskuragarri dauden baliabideetatik.

7. Zenbatetsitako industria-eskaerei erantzuteko, urteko 7,56 hm³ esleitu dira Oria ibaitik datozen baliabideetatik.

- Oria Erdia.

8. Tolosari, eskaerei erantzuteko, urteko 1,81 hm³ esleitu zaio, lurrazaleko baliabideetatik, egun erabiltzen duen Tolosa lurpeko ur-masaren baliabideetatik eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioak hornitzen dizkion Ibiurgo urtegian erregulatutako baliabideetatik.

9. Leitzari, eskaerei erantzuteko, urteko 0,87 hm³ esleitu zaio, lurrazaleko baliabideetatik eta egun erabiltzen dituen Basaburua-Ultzamako eta Bortziriak-Kintoa mendigune paleozoikoetako ur-masen baliabideetatik.

10. Ibarrari, eskaerei erantzuteko, urteko 0,32 hm³ esleitu zaio, lurrazaleko baliabideetatik, egun erabiltzen duen Tolosa lurpeko ur-masaren baliabideetatik eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioak hornitzen dizkion Ibiurgo urtegian erregulatutako baliabideetatik.

11. Zizurkili, eskaerei erantzuteko, urteko 0,45 hm³ esleitu zaio, lurrazaleko baliabideetatik, egun erabiltzen duen Tolosa lurpeko ur-masaren baliabideetatik eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioak hornitzen dizkion Ibiurgo urtegian erregulatutako baliabideetatik.

12. Villabonari, eskaerei erantzuteko, urteko 1,16 hm³ esleitu zaio, lurrazaleko baliabideetatik, egun erabiltzen duen Tolosa lurpeko ur-masaren baliabideetatik eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioak hornitzen dizkion Ibiurgo urtegian erregulatutako baliabideetatik.

13. Andoaini, eskaerei erantzuteko, urteko 1,49 hm³ esleitu zaio, lurrazaleko baliabideetatik, egun erabiltzen dituen Tolosa eta Andoain lurpeko ur-masen baliabideetatik eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioak hornitzen dizkion Ibiurgo urtegian erregulatutako baliabideetatik.

14. Ikaztegieta, Alegia, Amezketa, Altzo, Bidegoian, Albiztur, Betelu, Araitz, Orexa, Lizartza, Gaztelu, Leaburu, Belauntza, Areso, Berastegi, Elduain, Berrobi, Hernialde, Anoeta, Irura, Alkiza, Larraul, Asteasu eta Adunako udalerriei, eskaerei erantzuteko, urteko 2,67 hm³ esleitu zaie, egun erabiltzen dituzten lurrazaleko baliabideetatik eta lurpeko baliabideetatik.

15. Nekazaritza-eskaerei erantzuteko, urteko 0,25 hm³ esleitu dira eskuragarri dauden baliabideetatik.

16. Industria-eskaerei erantzuteko, urteko 10,22 hm³ esleitu da lurrazaleko baliabideetatik.

- Oria Behea.

17. Lasarte-Oriari, eskaerei erantzuteko, urteko 1,38 hm³ esleitu zaio, lurrazaleko baliabideetatik, egun erabiltzen duen Andoain lurpeko ur-masaren baliabideetatik eta Urumea Sistemako Añarbeko Uren Mankomunitateak hornitzen dizkion Añarbeko urtegian erregulatutako baliabideetatik.

18. Usurbili, eskaerei erantzuteko, urteko 0,84 hm³ esleitu zaio, lurrazaleko baliabideetatik, egun erabiltzen duen Andoain lurpeko ur-masaren baliabideetatik eta Urumea Sistemako Añarbeko Uren Mankomunitateak hornitzen dizkion Añarbeko urtegian erregulatutako baliabideetatik.

19. Zenbatetsitako industria-eskaerei erantzuteko, urteko 1,58 hm³ esleitu dira Oria ibaitik datozen baliabideetatik.

20. Olgeta-erabileren eskaerei erantzuteko (golfa), urteko 0,08 esleitu dira, sisteman eskuragarri dauden baliabideetatik.

28. artikulua. Baliabideen esleipena Urumea sisteman

1. Urnietari, eskaerei erantzuteko, urteko 1,32 hm³ esleitu zaio, lurrazaleko baliabideetatik, egun erabiltzen duen Andoain lurpeko ur-masaren baliabideetatik eta Añarbeko Uren Mankomunitateak hornitzen dizkion Añarbeko urtegian erregulatutako baliabideetatik.

2. Hernaniri, eskaerei erantzuteko, urteko 1,66 hm³ esleitu zaio, lurrazaleko baliabideetatik, egun erabiltzen duen Andoain lurpeko ur-masaren baliabideetatik eta Añarbeko Uren Mankomunitateak hornitzen dizkion Añarbeko urtegian erregulatutako baliabideetatik.

3. Goizueta eta Aranoko udalerriei, eskaerei erantzuteko, urteko 0,19 hm³ esleitu zaie, egun erabiltzen dituzten lurrazaleko baliabideetatik eta lurpeko baliabideetatik.

4. Donostiari, Astigarragari eta Oiartzun ibaiaren arroko udalerriei, eskaerei erantzuteko, urteko 33,07 hm³ esleitu zaie, Añarbeko Uren Mankomunitateak hornitzen dizkien Añarbeko urtegian erregulatutako baliabideetatik.

5. Nekazaritza-eskaerei erantzuteko, urteko 0,08 hm³ esleitu dira sisteman eskuragarri dauden baliabideetatik.

6. Industria-eskaerei erantzuteko, urteko 18,23 hm³ esleitu da lurrazaleko baliabideetatik.

29. artikulua. Baliabideen esleipena Oiartzun sisteman

Nagusiki Errenteriako udalerrian zentralizatutako industria-eskaerei erantzuteko, urteko 3,41 hm³ esleitu dira, Oiartzun ibaiaren lurrazaleko baliabideetatik.

30. artikulua. Baliabideen esleipena Bidasoa sisteman

1. Baztani, eskaerei erantzuteko, urteko 2,20 hm³ esleitu zaio, lurrazaleko baliabideetatik eta egun erabiltzen dituen Basaburua-Ultzamako eta Bortziriak-Kintoa mendigune paleozoikoetako ur-masen baliabideetatik.

2. Donezteberi, eskaerei erantzuteko, urteko 0,28 hm³ esleitu zaio, lurrazaleko baliabideetatik eta egun erabiltzen duen Bortziriak-Kintoa mendigune paleozoikoetako ur-masaren baliabideetatik.

3. Lesakari, eskaerei erantzuteko, urteko 0,66 hm³ esleitu zaio, lurrazaleko baliabideetatik eta egun erabiltzen duen Bortziriak-Kintoa mendigune paleozoikoetako ur-masaren baliabideetatik.

4. Berari, eskaerei erantzuteko, urteko 0,46 hm³ esleitu zaio, lurrazaleko baliabideetatik eta egun erabiltzen duen Bortziriak-Kintoa mendigune paleozoikoetako ur-masaren baliabideetatik.

Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretua, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa onartzen duena, Estatuko Aldizkari Ofizialaren 137. zk.an argitaratua. Uraren Euskal Agentziak itzulia.

5. Beintza-Labaien, Urrotz, Oitz, Donamaria, Bertizarana, Ezkurra, Eratsun, Saldias, Zubieta, Ituren, Elgorriaga, Sunbilla, Arantza, Igantzi eta Etxalarko udalerriei, eskaerei erantzuteko, urteko 1,41 hm³ esleitu zaie, egun erabiltzen dituzten lurrazaleko baliabideetatik eta lurpeko baliabideetatik.

6. Iruni eta Hondarribiari, eskaerei erantzuteko, urteko 9,03 hm³ esleitu zaie, Domikoko eta San Anton edo Endarako urtegietan erregulatutako baliabideetatik eta Jaizkibel lurpeko ur-masaren baliabideetatik (horrek hartzen ditu iparraldeko iturburuak, hegoaldekoak eta Txingudiko Zerbitzuak, SAk kudeatzen dituen duela gutxi eraikitako zundaketak).

7. Nekazaritza-eskaerei erantzuteko, urteko 0,77 hm³ esleitu dira sisteman eskuragarri dauden baliabideetatik.

8. Industria-eskaerei erantzuteko, urteko 0,60 hm³ esleitu da sistemaren lurrazaleko baliabideetatik.

31. artikulua. Baliabideen esleipena Pirinioetako ibaien sisteman

1. Urdazubi/Urdax eta Zugarramurdiko udalerriei, eskaerei erantzuteko, urteko 0,06 hm³ esleitu zaie, egun erabiltzen dituzten lurrazaleko baliabideetatik eta lurpeko baliabideetatik.

2. Luzaideko udalerriari, eskaerei erantzuteko, urteko 0,08 hm³ esleitu zaio, egun erabiltzen dituen lurrazaleko baliabideetatik eta lurpeko baliabideetatik.

3. Nekazaritza-eskaerei erantzuteko, urteko 0,14 hm³ esleitu da sistemaren lurrazaleko eta lurpeko baliabideetatik.

6. KAPITULUA
JABARI PUBLIKO HIDRAULIKOAREN ERABILERA

1. SEKZIOA
Erabilera pribatiboak

32. artikulua. Lurpeko uren hartuneen eta iturburuen arteko distantziak

1. Urak ateratzeko, putzuak irekitzen direnean, apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretuak onartutako Urei buruzko Legearen testu bategineko I., IV., V., VI., VII. eta VIII. aurretiazko tituluak garatzen dituen Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiaren 87.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, haien arteko edo putzuen eta iturburuaren arteko gutxieneko distantziak honako hauek izango dira:

a) Segundoko 0,15 litrotik beherako emarietarako, hamar metro lurzoru urbanizatua bada, hogei metro landa-lurzorua bada eta ehun metro hortik gorako emarietarako.

b) Gutxienez distantzia berberei eutsi beharko zaie zelai baten putzuen eta aldameneko zelaietako iragazgaiztu gabeko ubideen edo urmaelen artean.

2. Salbuespen gisa, distantzia txikiagorako emakidak esleitu ahal izango dira, baldin eta interesdunak legeztatuta dauden aurreko aprobetxamenduen gainean eraginik ez dagoela egiaztatzen badu.

33. artikulua. Neurgailuen instalazioa

1. Urei buruzko Legearen testu bategineko 55.4 artikuluaren arabera, aprobetxamenduen titularrek beren kontura instalatu eta mantendu beharko dituzte benetan erabili edo kontsumitutako emariak, itzulitakoak eta jabari publiko hidraulikora isuritakoak erregistratu eta egiaztatzea ziurtatuko duten, eta emariak emandako gehienekoetara desbideratzea mugatuko duten neurketa-sistemak.

2. Titularra behartuta egongo da Administrazio Hidraulikoari (horrek erabakitzen duen eran eta aldizkakotasunez) erregistratutako emairen datuak ematera, emakidak ikuskatu eta kontrolatzeko dituen funtzioak hobekien bete ditzan, Plan Hidrologikoaren jarraipenaren barruan. Berariaz bestelakorik erabakitzen ez bada, urteko bolumenei buruzko datuak gutxienez urtean behin igorri beharko dira urtarrilean zehar.

Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretua, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa onartzen duena, Estatuko Aldizkari Ofizialaren 137. zk.an argitaratua. Uraren Euskal Agentziak itzulia.

3. Emakidadunak erregistratutako emarien datuak kudeatu eta gordeko dira, eta Administrazio Hidraulikoari igorriko zaizkio, maiatzaren 20ko ARM/1312/2009 Aginduaren arabera. Horren bidez, jabari publiko hidraulikoaren ur-aprobetxamenduek erabiltzen dituzten ur bolumenen, jabari publiko hidrauliko horretarako itzuleren eta bertarako isurketen kontrol eraginkorra egiteko sistemak arautzen dira. Era berean, agindu hori betetzeko, kontagailuak egiaztagarriak, zigilagarriak eta manipulaezinak izango dira.

4. Lurpeko urak hartzeko putzuen kasuan, gutxienez 25 mm-ko barne-diametroko tutu bat instalatzea eskatuko da (justifikatutako arrazoirik bada salbu), maila piezometrikoa irakurri ahal izateko, gutxienez ponparen xurgatze-eremuraino iritsi beharko den zunda edo hidronibel elektriko baten bidez. Bulkadako tutuaren irteeran, emariak kontrolatu eta neurtzeko gailu bat ipini beharko da, ezartzen diren xedapenen arabera. Era berean, putzuaren buruan, ur-laginak hartzeko irteera bat instalatu beharko da.

2. SEKZIOA
Baimenak eta emakidak

34. artikulua. Emakidei buruzko arau orokorrak

Urei buruzko Legearen testu bategineko 59. artikuluan, eta Jabari Publikoko Hidraulikoari buruzko Araudiaren 93. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera, emakida berrietarako eskaerarekin batera aurkezten den proiektuan edo aurreproiektuan, egoki justifikatuko da behar hidrikoen ebaluazioa, plan honetan eskaeren kalkuluari eta zuzkidurei buruz ezarritako balioetara egokituta. Aipatutako araudiaren 102. artikuluan adierazitakoaz gainera, honako hau zehaztuko da: eskatutako urteko eta hileko gehieneko bolumenaz eta berehalako gehieneko emariaz gainera, hala badagokio, desbideratze-erregimena, hau da, desbideratzea egun murriztuetan egiten deneko erabileraldia.

35. artikulua. Hiri-hornidurarako ur-zuzkidurak

1. Hiri-hornidurarako emakidak esleitu, berrikusi, aldatu eta berritzeko, hurrengo ataletan zehaztutako bi metodoetako bat aplikatuta kalkulatuko da ur-bolumena. Nolanahi ere, hiri-garapen berrietarako hornidura planifikatzeko, ekainaren 20ko 2/2008 Errege Dekretu Legegileak onartutako Lurzoruari buruzko Legearen testu bategineko 15.3.a) artikuluari eta Urei buruzko Legearen testu bategineko 25.4 artikuluari jarraitu behar izango zaie.

2. Metodo generikoan, udal-sarea hornitzen duten ur-erabilera guztiak orokorrean hartzen dira. Horien artean daude etxe-erabilera, industria- eta merkataritza-erabilera, udal-erabilera, ureztatze pribatua eta abeltzaintza-erabilera.

Halakoetan, 1. taulan jasotako gehieneko ur-zuzkidura gordinak ezarri dira, zuzkidura gordintzat hartuta goi-hornidurako sarean hartu beharreko bolumenaren eta hornidura-eremuko udal-erroldan izena emandako biztanle kopuruaren arteko zatidura.

1. taula. Gehieneko zuzkidura gordin onargarriak, biztanle eta eguneko litrotan, hiri-hornidurarako. Metodo generikoa

Sistemak hornitutako biztanleria	Lotutako merkataritza- eta industria-jarduera (11. eranskina)		
	Handia	Ertaina	Txikia
< 2.000 bizt.	340	310	290
2.000 – 10.000 bizt.	325	290	260
10.000 – 50.000 bizt.	300	260	-
50.000 – 250.000 bizt.	270	-	-
> 250.000 bizt.	250	-	-

3. Metodo bereizian, erabilera bakoitzerako gehieneko zuzkidura gordina zehaztuko da, honako ezaugarri hauen arabera:

a) Osasun-erabilera. Industria, kirol-instalazio eta abarretako aldageletarako hornidura. Zuzkidura hau ezarri da: 150-200 l/enplegatu-erabiltzaile/egun.

b) Etxe-erabilera. Etxeko hornidurari dagokio berariaz; udalen, denden, etab. beharrak baztertuta. Uraren gehieneko zuzkidura gordinak 2. taulan agertzen dira.

Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretua, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa onartzen duena, Estatuko Aldizkari Ofizialaren 137. zk.an argitaratua. Uraren Euskal Agentziak itzulia.

2. taula. Gehieneko zuzkidura gordinak etxe-erabilerarako. Metodo bereizia

Sistemak hornitutako biztanleria (biztanle kopurua)	Gehieneko zuzkidura gordina (l/bizt./egun)
100etik behera	220
101 eta 2.000 artean	210
2.001 eta 10.000 artean	205
10.001 eta 50.000 artean	200
50.001 eta 250.000 artean	195
250.000tik gora	190

c) Urtaroko biztanleria: turismoa eta bigarren bizitegia. Bigarren bizitegiko etxebizitza eta apartamentuetarako gehieneko zuzkidura gordinak etxe-erabilerarako adierazitakoen baliokidetzat hartzen dira. Urtaroko erabilerako txaletetako egoitzarako, gehieneko zuzkidura gordin hau erabiliko da: 350 l/biztanle/egun. Erabili beharreko ur bolumena kalkulatzeko, egoitzako 3,5 biztanleko okupazio-tasa eta behar bezala justifikatutako urteko batez besteko okupazio-denboraldi bat kontuan hartuko dira.

Urtaroko biztanleriarekin lotutako bestelako egoitzetarako, 3. taulan ezarritako zuzkidurak erabiliko dira.

3. taula. Batez besteko zuzkidurak urtaroko biztanleriarentzat

Establezimendu mota	Gehieneko zuzkidura gordina (l/plaza/egun)
Kanpina	120
Hotela	240

d) Udal-erabilerak, baldeatzeak, iturriak eta bestelakoak. Baldeatze-beharrak kalkulatzeko, zuzkidura hau hartuko da: 1,2 l/m²/egun.

e) Ospitale-erabilerak, geriatrikoak eta antzeko bestelako barne direla. Ur-beharrak kalkulatzeko, ohe kopurua edo, hala badagokio, plaza kopurua hartuko da oinarritzat. Zuzkidura honako hau izango da: 400 l/ohe-plaza/egun.

f) Hotel-erabilerak. Gehieneko zuzkidura gordin hau hartuko da: 5-10 m³/establezimendu/egun.

g) Nekazaritza eta abeltzaintzako erabilerak (abeltzaintza eta ureztatzea), eta parkeak eta lorategiak ureztatzera zuzendutako erabilera. Erabilera horiei buruz berariaz diharduten artikuluetan jasotako zuzkidurak erabiliko dira.

h) Hirigunearekin lotutako industria-erabilerak, hiri-sarean hartunea dutenak. Industria-erabilerari buruzko artikuluan jasotako zuzkidurak erabiliko dira.

i) Bestelako olgeta-erabilerak, etab. Erabilera horiei buruz berariaz diharduten artikuluetan jasotako zuzkidurak erabiliko dira.

Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretua, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa onartzen duena, Estatuko Aldizkari Ofizialaren 137. zk.an argitaratua. Uraren Euskal Agentziak itzulia.

36. artikulua. Abeltzaintza-erabileretarako ur-zuzkidurak

Abeltzaintza-erabileretarako ur-emakidak esleitu, berrikusi, aldatu eta berritzeko, 4. taulan jasotako zuzkidurak kontuan izango dira.

4. taula. Abeltzaintzarako ur-zuzkidurak

Abere mota	Abere ukuiluratuetarako zuzkidura (l/abel./egun)	Ukuiluratu gabeko aberetarako zuzkidura (l/abel./egun)
Esne-behiak	120	90
Haragi-behiak	100	70
Zaldiak	50	30
Bestelako abere larriak	75	50
Txerriak	20	15
Bestelako abere xeheak	35	20
Ardiak eta ahuntzak	8	5
Untxiak eta antzekoak	1,5	0,5
Hegazti xeheak (oilaskoak, indioilarrak, ahateak, etab.)	0,5	0,3

Ukuiluak garbitzeko ura eskatuz gero, beharrak zehazteko, abere ukuiluratuetarako eta ukuiluratu gabeetarako zuzkiduren arteko aldea kontuan izango da.

37. artikulua. Ureztatzeko ur-zuzkidurak

Emakidak esleitu, berrikusi, aldatu eta berritzeko espedienteetan, aurkako justifikaziorik ezean, 5. taulan ezarritako zuzkidura garbiak erabiliko dira.

5. taula. Ureztatzeko ur-zuzkidurak (m³/ha eta urte)

Landareak		Aire zabalean (4 hilabeteko ureztatzealdia)			Izoztearen aurka (m³/ha/ordu)	Plastikopean edo berotegietan (12 hilabeteko ureztatzealdia)	
Labore mota	Berariazko laboreak	Grabitatea	Ihinztadura	Tanta-jarioa		Hidroponikoa	Ez-hidroponikoa
Zuhain-landareak	-	2100	1800	-	-	-	-
Landare zurkarak	Kiwia	-	3200	3100	40	-	-
	Mahatsondoa	-	-	-	40	-	-
	Bestelako zurkarak	2400	2000	1800	40	-	-
Baratze-landareak	-	2200	1700	1500	40	5000	5500
-	Labore bioenergetikoak: bioetanola	2950-2000	2000-950	-	-	-	-
-	Neguko ale-zerealak	-	<1400	-	-	-	-
-	Aleko lekadunak	2500	1650	-	-	-	-
-	Artoa eta basartoa	3950-2500	2500-1750	-	-	-	-
-	Patata	3500-2500	2500-1450	-	-	-	
--	Erremolatxa	3450-2500	2500-600	-	-	-	-

38. artikulua. Industria-erabileretarako ur-zuzkidurak

Hiri-sareetara konektatu gabeko industriek edo industria-poligonoek eskatutako ur bolumenak justifikatzeko, ahal bada, benetako datuak jasoko dituen berariazko informazioa aurkeztu beharko da.

Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretua, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa onartzen duena, Estatuko Aldizkari Ofizialaren 137. zk.an argitaratua. Uraren Euskal Agentziak itzulia.

Daturik ezean, ondoko taula hauetan agertzen diren zuzkidurak hartuko dira: 6. taula (hainbat industria-sektoreri buruzkoa, produkzio elektrikoa salbuetsita) eta 7. taula (produkzio elektrikoko zentralen zuzkiduretan oinarritzen da).

6. taula. Industriarako ur-zuzkidurak

Sektorea	Zuzkidura (m^3/egun enplegatuko)	Zuzkidura (m^3 produzitutako tonako)
Esne-industriak	10-18	3-17
Elikadura	2-12	6-30
Edari alkoholikoak (ardoa/sagardoa)	0,3-0,8	2-3
Edari ez-alkoholikoak	5	6
Paper-industriak	32-86	16-34
Kautxu-transformatuak	0,6	2,32
Hiltegiak	3-6	5-7
Industria kimikoa	8-20	2-12
Ehungintza	8	115
Eraikuntza-materialak	0,5	0,15
Zementu-industriak	4,4	0,15
Siderurgia	8-12	3-8
Metalezko transformatuak	3-8	1-3

7. taula. Produkzio elektrikoko zentraletarako ur-zuzkidurak

Zentral mota	Hozte-zirkuitu itxia	Hozte-zirkuitu irekia (*)
	hm^3/100Mw-ko urteko potentzia instalatua	
Ziklo konbinatua	1,2-1,5	60-100
Ikatza edo fuel-olioa	2,3-2,8	90-125
Termoeguzkikoak	1,6-2,0	----

(*) Urteko 10.000 m^3-tik gorako bolumena duten hozte-zirkuitu industrialak ezingo dira erregimen irekikoak izan, hartunea estuario irekian edo kostaldeko ur-masan egiten bada salbu.

Zein industria mota ezarriko den jakina ez den industria-poligonoetarako, honako zuzkidura esleitu da: 4.000 m^3/ha/urte.

39. artikulua. Golf-zelaiak eta gainazal lorategidunak ureztatzeko, eta igerilekuak betetzeko ur-zuzkidurak

1. Golf-zelaiak ureztatzeko zuzkidurarako, oro har, zuzkidura hau ezarri da: 3.600 m^3/ha/urte. Gainazal lorategidunak ureztatzeko, gehieneko zuzkidura hau aplikatuko da: 2.000 m^3/ha/urte. Ureztatzealditzat urtean 4 hilabete hartu dira, eta, igerilekuak betetzeari dagokionez, horiek urtean behin soilik betetzea (eta galerak berritzea) baimenduko da.

2. Golf-zelaiak eta gainazal lorategidunak ureztatzeari dagokionez, leheneratutako urak berrerabiltzea bultzatuko da. Horretarako, eskatzaileak ureztatu behar diren gainazalen behar hidrikoei buruzko azterlan bat aurkeztu beharko du. Azterlanean, leheneratutako urak erabiliko direla jaso beharko da, Plan Hidrologiko Nazionalaren ekainaren 22ko 10/2001 Legearen 30. artikuluari eta Planaren 75. artikuluari jarraituz.

3. Ureztatze-sistemak landaredira egokitu beharko dira, eta uraren kontsumoa minimizatzen dituztenak erabiliko dira; adibidez, mikroureztaketa, tanta-jario bidezko ureztaketa, ordu-programagailu baten bidez erregulatutako ihinztagailu-sare bat edota, batez ere euri-egunetan, ureztatze-maiztasuna kontrolatzeko hezetasun-detektagailuak.

40. artikulua. Ureztatzeko emakidak

Ureztatze-aprobetxamenduak emateko proiektuetan, Administrazio Hidraulikoak, justifikatu beharko den interes publikoaren arabera beharrezkotzat jotzen duenean, drainatze-sareari eta ur-lurzoru erlazioari buruzko azterlan bat eskatu ahal izango du. Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiaren 106.2 b) artikuluaren arabera, kutsadura lausoa eta gatzen esportazioa mugatzeko abian jarri beharreko jardunbide egokiei buruzko analisi bat eskatuko da; bereziki, kalteberatzat hartutako eremuetarako.

41. artikulua. Akuikulturarako eta bestelakoetarako zuzkidurak

1. Arrain-haztegiak: Adierazitako beharrak aztertuko dira, beharrezkoak diren baltsen eguneko ur-berritzeen kopurua kontuan izanda.

Aurkako justifikaziorik ezean, salmonidoen arrain-haztegietarako, ur-beharra honela zehaztuko da:

- Inkubazioa: 30 berritze/egun
- Arrainkumeen hazkuntza: 20 berritze/egun
- Gizentzea: 15 berritze/egun

2. Suteen aurkako borroka: Kontuan izango da baltsa edo andela bete eta erabiltzeko, eta galerak berritzeko bolumena.

42. artikulua. Emakida-epeetarako mugak

1. Urei buruzko Legearen testu bategineko 59. artikuluan eta Publiko Hidraulikoaren Araudiko 97. artikuluan xedatutakoaren arabera, oro har, emakidak 20 urteko eperako esleituko dira. Beste iraupen batzuk finkatu ahal izango dira, luzeagoak edo laburragoak, behar bezala arrazoituta badaude; bereziki, obrak amortizatzeko beharrezko denbora kontuan izanda.

2. Plan Hidrologikoan aurreikusitako azpiegituren eraginpeko ur-masetarako, epemuga azpiegituren funtzionamendura lotuta izango duten emakidak esleitu ahal izango dira.

3. Urei buruzko Legearen testu bategineko 59.6 artikuluan araututako 10 urtera arteko luzapenak ez du gaindituko 75 urteko gehieneko iraupena, Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiaren 97. artikuluari jarraituz.

43. artikulua. Emakiden iraungitzea

1. Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiaren 115.4 artikuluari jarraituz, emakida oro ustiatu ahal izateko, dagozkion obren amaierako ikuskapen-akta onartu beharko da eta, oro har, haren baldintzak horretarako emandako epeetan osorik bete beharko dira. Baldintza horietako funtsezkoak ez betetzeak uraren erabilera pribatiborako eskubidea indargabetzeko espedientea berehala hastea ekarriko du berekin, Urei buruzko Legearen testu bategineko 66. artikuluarekin lotuta 53. artikuluari jarraituz.

2. Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiko 89.4 artikuluarekin bat etorriz, edozein arrazoi dela medio, Administrazio eskudunari itzuliko zaizkio aprobetxamendua ustiatzeko jabari publiko hidraulikoaren barruan egindako obra guztiak dohainik eta inolako kargarik gabe, emakidaren agirian ezarritako baldintzak betetzearen kaltetan izan gabe.

Une horretan, Administrazioak posibletzat eta komenigarritzat joko balu aprobetxamenduarekin jarraitzea, emakidadunari eskatu ahal izango dio itzuli beharreko ondasunak entregatzeko, ustiatu ahal izateko baldintzetan, Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiko 164.3, 165.3, eta 167.3 eta 4. artikuluak aplikatuz. Aldiz, hori aprobetxamenduarekin jarraitzea bideraezintzat hartuko balu, edo hari eustea interes publikoaren aurkakoa izango balitz, adierazitako araudiko 126 bis.4 artikuluaren ondorioetarako, jabari publikoan eraikitako eraistea eskatu ahal izango du, Administrazio Publikoen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 101. artikuluaren arabera.

44. artikulua. Presen edo presa txikien bidezko aprobetxamendu-emakidetarako gutxieneko baldintzak

1. Urei buruzko Legearen testu bategineko 98. artikuluan jasotako ondorioetarako, presen edo presa txikien bidez ura hartzeko xedea duten emakida-eskaera berrietan, azterlan gehitu beharko da. Azterlan horrek Administrazio Hidraulikoari bidea eman behar dio (dagokion ustiapen-sistemako kudeaketa-simulazioaren bidez) honako baldintza hauek betez zein ur kantitate izan daitezkeen aprobetxamenduaren xede: ingurumenari kalterik ez eragitea, Plan Hidrologikoan adierazitako emari ekologikoen erregimenak errespetatzea eta lehendik zeuden beste emakida batzuei erantzuteko eskuragarritasuna ez murriztea.

2. Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiko 126.bis artikuluan jasotako ondorioetarako, emakida berriaren aprobetxamendu-proiektuan, argiro bereizitako epigrafe batean, ingurumen-eragina minimizatzera zuzendutako neurriak jaso beharko dira. Neurri horien artean, hartunearen

tartean emari ekologikoen erregimena errespetatzekoak eta, hala badagokio, leheneratzekoak ez ezik, honako hauek egongo dira:

a) Emaria eta horren aldaketak neurtu eta erregistratzeko gailuak instalatzea, egiaztapen azkarra egin ahal izateko.

b) Hala badagokio, azpiegituretan pasabideko gailuak instalatzea. Horiek, tartean eraginpean dagoen edo egon beharko lukeen iktiofaunaren arabera, ez diote hari zirkulatzea eta gora egitea galarazi behar.

c) Arrainak turbinetan sartzea eragotziko duten gailuak instalatzea.

d) Bidezkoa bada, azpiegiturak hustuz gero, iktiofauna erreskatatzeko aukera emango duten elementuak gehitzea.

e) Kanalak, karga-ganberak eta bestelako azpiegiturak ixtea, pertsonentzako eta lurreko faunarentzako (bereziki, ugaztun handiak) arriskuak saihesteko moduan.

f) 500 m-tik gorako luzerako kanaletan pasabideak gaitu beharko dira, abereak eta lurreko fauna (bereziki, ornodun handiak) gai izan daitezen haiek gurutzatzeko eta ibaiaren bazter naturalera heltzeko.

g) Eraginpeko urbazterreko landarediaren gaineko, hezeguneen gaineko eta, baita ere, babestutako eremuen gaineko kalteak baloratzea eta horiek arintzeko neurriak hartzea.

h) Eraginpeko ibai-geomorfologiaren gaineko kalteak baloratzea eta horiek arintzeko neurriak hartzea.

3. Minizentral hidroelektrikoetarako emakida berriei dagokienez, ez da baimengarria izango enbolodun edo hidropunta izeneko ustiapen-jarraibidea. Enbolodunek honela funtzionatzen dute: ordu gutxi batzuetan, turbinatze-aldiak eta geldialdiak txandakatzen ditu, presa txikian eta/edo karga-ganberan ur-maila leheneratu arte. Horrek, ibaian, batez besteko emari natural zirkulatzailearekiko % 25etik gorako emari-aldaketak sorrarazten ditu. Dauden minizentraletan, ez da baimenduko enbolodunen adierazitako ustiapen-jarraibidearen bitartez turbinatzea, hori emakidaren baldintzetan berariaz jaso baldin badago salbu.

4. Minizentral hidroelektrikoetarako emakida berrietan eta, oro har, lehendik daudenetan, hala dela, ekipamendu-emariak emari zirkulatzailetara egokituko dira erregimen naturaleko urte hidrologikoan zehar. Emari horiek sailkatutako emarien kurbako Q80 eta Q100 arteko tartean egongo dira, aurretiaz emari ekologikoak deskontatu ondoren.

45. artikulua. Emakida-emarien aldaketa eta berrikuspena

1. Une bakoitzean desbideratutako emaria benetan erabilitako emarira egokituko da, emandakoa handiagoa izan arren.

2. Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiko 151.5 artikuluaren arabera, emakiden ezaugarrien aldaketa batzuk proiektuen lehiaketa berririk gabe bideratuko dira, baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Emarien gehienez ehuneko 10eko aldaketa, gainetik edo azpitik, eta, hala badagokio, gainera, Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiko 128. artikuluan jasotako mugak ez gainditzea.

b) Emakida-indizearen gehienez ehuneko 10eko aldaketa, gainetik edo azpitik; produkzio hidroelektrikora zuzendutako emakiden kasuan.

3. Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiko 156.2 artikuluan jasotako suposizioak, emakidak ofizioz berrikustea dakarrenak; besteak beste, kasu hauek sartzen ditu:

a) Emakida esleitzeko garaian beharrak eta bilakaera ebaluatzeko oinarri izango den erabileraren baldintzak edo ezaugarriak aldatzea.

b) Hirugarrenengan eraginik sorraraztea edo ibilguaren baldintza morfologikoetan aldaketa nabarmenak egitea. Horien artean daude hezeguneak nabarmen aldatzea eta habitatak edo espezieak galtzea.

Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretua, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa onartzen duena, Estatuko Aldizkari Ofizialaren 137. zk.an argitaratua. Uraren Euskal Agentziak itzulia.

Horrela egindako berrikuspenak ez du berekin kalte-ordainik ekarriko, Urei buruzko Legearen testu bategineko 65. artikuluaren arabera.

4. Aprobetxamendu baten benetako beharren ebaluaziorako (emakida-emariek horietara egokitu beharko dute) eta Urei buruzko Legearen testu bategineko 65.2 artikuluan adierazten den egiaztapenerako, Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiko 156.bis artikuluan ezarritako irizpideak kontuan hartuko dira.

5. Egoera txarrekotzat deklaratutako ur-masei dagokienez, ingurumen-helburuak gauzatzea beharrezkoa denean, aprobetxamenduaren titularrari errekerimendua egin ahal izango zaio beharrezkoak diren optimizazio-neurriak, aurrezte-neurriak eta inpaktua minimizatzeko neurriak har ditzan. Proposatu beharreko neurrien artean, besteak beste, honako aukera hauek izango dira: uraren erabileraren eraginkortasuna optimizatzeko eskuragarri dauden teknika egokienak aplikatzea, ustiapen-erregimenean aldaketak egitea eta leheneratutako urak erabiltzea. Aurreko egoeran, Administrazio Hidraulikoak emakida-emarien osotasuna edo zati bat beste jatorri bateko emariekin ordezkatzea ezarri ahal izango du.

46. artikulua. Lurpeko uren erabilera. Aurreko aprobetxamenduen gaineko eragina eta emari ekologikoen babesa

1. Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiko 184.4 artikuluan ezarritakoarekin lotuta, lurpeko uren aprobetxamendu berriek dauden hartuneetan izan dezaketen eragina zehazteko, Administrazio Hidraulikoak eskatzaileari eskatu ahal izango dio litezkeen eraginak justifikatzeko txosten hidrogeologiko bat aurkez dezan, hartune berrietan egindako ponpaketako edo ur-emaria neurtzeko saiakuntzetatik lortutako datuetan oinarrituta.

2. Emari ekologikoen erregimenari eustearen ondorioetarako, ibaietatik edo iturburuetatik gertu dauden edota emari ekologikoen erregimenean ustez eragina izan dezaketen lurpeko uren aprobetxamenduetarako, haietan izan litezkeen eraginak justifikatzeko txosten bat eskatu ahal izango da. Txosten horrek aurreko atalean ezarritako eskakizun tekniko berberak bete beharko ditu. Emakidaren ustiapen-erregimena egokitu beharko da, emari ekologikoen erregimenari ez eragitea bermatzeko.

47. artikulua. Lurpeko uren hartuneen arteko gutxieneko distantziak

Oro har, lurpeko uren aprobetxamendu berrien eta lehendik zeudenen eta/edo iturburuen arteko gutxieneko distantziak 32.1 artikuluan agertzen dira, haien urteko guztizko bolumenak 7.000 m³ gainditzen ez dituenean. Gainerakoetarako, distantziak Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiko 184.1 b) artikuluan ezarritakoak izango dira. Emakida esleitu ondoren, aurreko aprobetxamenduen gainean eraginik dagoela ikusiko balitz, aprobetxamendu berria itxiko da, kalte-ordain eskubiderik gabe.

48. artikulua. lurpeko uren hartuneak zigilatzea

Lurpeko ur-masen narriadura saihesteko, Administrazio Hidraulikoak beharrezko neurriak hartuko ditu erauzpen-jarduera etetea dakarten lurpeko uren eskubideak iraungi, berrikusi edo aldatzeko espedienteetan beharrezko neurriak har daitezen, titularrak material geldoaz putzuak, zundaketak edo antzeko obrak zigilatzen dituela ziurtatzeko, Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiko 188.bis artikuluari jarraituz. Salbuespen gisa, ez da beharrezkoa izango putzua zigilatzea hartunea Administrazio Hidraulikoaren kontrol-puntu batean transformatzen denean.

49. artikulua. Kostaleko akuiferoak gazitzearen aurkako babesa eta babes-araubide orokorra

1. Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiko 244. artikuluaren arabera, kostaldeko akuiferoetan, horiek ez gazitzea ziurtatzeko, jarraian adierazten diren irizpideei jarraituko zaie.

Putzuan maila itsasoaren batez besteko mailatik behera baldin badago, beharrezko azterlanak egingo dira akuiferoa gazituko ez dela ziurtatuko duten kontrol-elementuak zehaztu eta gauzatu ahal izateko. Halakoetan, kontuan hartuko dira itsasoarekiko litekeen komunikazioa, itsasoarekiko distantzia, sakonune-konoa eta, azkenik, putzuaren eta itsasoaren artean kontrol-zundaketa bat egiteko aukera.

2. Lurpeko gainerako ur-masetan, Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudian oro har ezartzen diren arauak izango dira aplikatzekoak, akuiferoen babesari dagokionean.

Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretua, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa onartzen duena, Estatuko Aldizkari Ofizialaren 137. zk.an argitaratua. Uraren Euskal Agentziak itzulia.

Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretua, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa onartzen duena, Estatuko Aldizkari Ofizialaren 137. zk.an argitaratua. Uraren Euskal Agentziak itzulia.

50. artikulua. Lurpeko ur-masak babesteko beste printzipio batzuk

1. Emakida duen hartune baten errendimendua hobetzeko asmoz, aukera izango da, Administrazio Hidraulikoaren aurretiazko baimenaz, Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiko 188. artikuluaren arabera, hura konpontzeko, aldatzeko edo haren inguruko 10 m-ko erradioan beste hartune bat gauzatzeko ere; baldin eta horrek hirugarrenengan eraginik sorrarazten ez badu eta lehendik zeuden beste hartune batzuetarako baimendutakoa baino distantzia txikiagoan kokatzen ez bada. Hartune berriak ezin izango du aurrekoaren dimentsioak eta sakonera gainditu. Hala badagokio, jatorrizko hartunea itxi eta zigilatu beharko da, Administrazio Hidraulikoak aurkakoa adierazten ez badu salbu.

2. Putzuak garbitu, garatu eta estimulatzeko lanak Administrazio Hidraulikoari jakinarazi beharko zaizkio gutxienez hilabeteko aurrerapenaz.

3. Lurpeko ur-masa baten egoera kuantitatibo txarra edo egoera kimiko txarra justifikazio-kausa nahikoa izan daiteke aprobetxamendu-eskaerak ukatzeko eta lehendik zeuden hartuneak itxi edo zigilatzeko errekerimendua egiteko. Tokiko kutsadurak eragindako lurpeko ur-masei dagokienez, oro har eta hartuneko uren helburua edozein dela ere, dagozkion maila kutsatzaileen zigilatze sanitarioa eskatu ahal izango da, lurpeko uraren kalitatea babestearren.

51. artikulua. Aprobetxamendu geotermikoetarako zundaketak

1. Zirkuitu itxiko aprobetxamendu geotermikoetarako zundaketak egiteko, aldez aurretik Administrazio Hidraulikoari horien berri eman behar zaio; gutxienez, ondorengo informazioa helarazita: kokapena, lanei ekiteko aurreikusitako data, zundaketen sakonera eta kopurua, aurreikusitako zigilatze mota, sustatzailea, zulaketa-enpresaren eta lanen ardura duen instalatzailearen sozietate-izen osoa eta erantzukizun zibileko aseguruaren polizaren kopia bat. Adierazitako jakinarazpena ikusirik, Administrazio Hidraulikoak errekerimendua egin ahal izango du jabari publiko hidraulikoan obra-baimenen beharrezko izapideak egiteko. Prozedura Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiaren 53. artikuluan jasotakoa izango da.

2. Sistema irekiko aprobetxamendu geotermikoen kasuan, espediente bakarrean izapidetuko dira emakida edo izen-ematea eta isurketaren baimena (printzipioz, akuifero berera itzultzea). Mota horretako aprobetxamendu geotermikoetan, ondoko gomendioak kontuan hartuko dira:

a) Oro har, erabilitako ura berori atera deneko akuifero berean injektatu beharko da. Ibai-akuifero sistemaren balantzean eraginik ez badago eta behar bezala justifikatutako ezohiko kasuetan besterik ez, ibilgura isurtzea baimendu ahal izango da.

b) Berariazko baimenaz izan ezik, urak jauzi termikoen bidez injektatuko dira. Horiek gehienez 6 ºC-koak izango dira eta, ahal dela, urte osoan zehar egon beharko dute jardunean (berokuntza eta hoztea). Hortik gorako jauzi termikoek behar bezala justifikatuta egon beharko dute.

3. Ingurunean kutsatzaileak inola ere sar ez daitezen diseinatu eta burutu beharko dira zulaketak aprobetxamendu geotermikoetarako, bai sistema irekian, bai itxian.

4. Aurreko atalean adierazitako zulaketetarako lanek kontrol eta jarraipen hidrogeologikoa izan beharko dute, zeharkatutako akuiferoen mailek duten garrantzia eta izaera zehazteko. Lan horiek teknikari eskudun baten zuzendaritzapean egongo dira. Hura, gainera, zigilatze-sistema egokiak diseinatu eta ezartzeaz arduratuko da. Adierazitako jarraipen hidrogeologikorik egiten ez bada, zulaketa egiten duen enpresak eta lanen zuzendaritza teknikoak trukagailu bertikalen eraztuna osorik zigilatzea ziurtatuko dute. Zigilatze-lana injekzio bidez egingo da, eraztun-eremu osoan zehar. Injekziorako, iragazkortasun txikiko prestatutako produktu geldoak erabiliko dira: bentonita-zementuzko kare-esnea, bentonitazko pelletak, etab.

5. Hirugarrenen beste aprobetxamendu batzuen gaineko eraginak eta akuiferoaren aldaketak saihesteko (besteak beste, akuiferoaren balantzearen, eta lurpeko fluxuaren ezaugarri fisiko-kimikoen eta hidrodinamikaren gainekoak), Administrazio Hidraulikoak, Urei buruzko Legearen testu bategineko 98. artikuluaren arabera, ingurunearen gaineko inpaktua ebaluatuko duen berariazko azterlan bat aurkeztea eskatu ahal izango du.

Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretua, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa onartzen duena, Estatuko Aldizkari Ofizialaren 137. zk.an argitaratua. Uraren Euskal Agentziak itzulia.

7. KAPITULUA
JABARI PUBLIKO HIDRAULIKOA, ITSASO ETA LEHORRAREN ARTEKO JABARI PUBLIKOA ETA UREN KALITATEA BABESTEA

1. SEKZIOA. Arau orokorrak

52. artikulua. Uhaldi-emari maximoak eta uholde-arriskuko eremuak zehaztea

1. Ondorengo artikuluetan zehazten diren uholde-arriskuko eremuetarako erabileren eta jardunen baimenetan, eskatzaileak eremuaren uholde-arriskua kontuan hartu beharko du uneko egoeran. Administrazio Hidraulikoak baliozkotutako berariazko azterlanik ezean, uholdeak gertatzeko probabilitatea dagoen egoeretarako erreferentziazko kartografia Uholde-arriskuko Eremuen Kartografia Sistema Nazionalean jasotakoa izango da, Kartografia Erregistro Nagusian inskribatutakoa, Sistema Kartografiko Nazionala arautzen duen azaroaren 23ko 1545/2007 Errege Dekretuaren arabera.

2. Uholde-arriskuaren kartografia finkatzeko, berori Administrazio Hidraulikoak zehazten ez duenez, «Azterketa hidraulikoak egiteko irizpide teknikoak» erabili ahal izango dira (9. eranskinean agertzen dira). Azterketa horiek egiteko, kontuan hartutako uhaldi-emariak zenbatetsiko dira. Horiek, Administrazio Hidraulikoak baliozkotutako bestelakorik ezean, 1664/1998 Errege Dekretuaren 1.1 a) artikuluaren bidez onartutako Iparraldeko III. Plan Hidrologikoan jasotakoak hartuko dira gehieneko uhaldi-emaritzat, xedapen iragankor bakarrarekin bat etorriz.

53. artikulua. Erabilera-mugak uholde-arriskuko zaintza-eremuan

1. Urei buruzko Legearen testu bategineko 11.3 artikuluaren arabera, uholde-arriskua ebaluatu eta kudeatzeko uztailaren 9ko 903/2010 Errege Dekretuan zehaztutako uholde-arriskua kudeatzeko planek ezartzen dutenaren kaltetan izan gabe, eta uholde-arriskua duten lurren lurzoruko oinarrizko egoera edozein dela ere, Urei buruzko Legearen testu bategineko 12.2.a) artikuluan xedatutakoaren arabera; ondorengo ataletan, uholde-arriskuko zaintza-eremurako mugak ezartzen dira.

2. Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiko 9.2 artikuluaren arabera, lehentasunezko fluxu-eremuan, bertan onartutako erabilerak eta jarduerak soilik onartu ahal izango ditu Administrazio Hidraulikoak, baldin eta uhaldien aurrean kalteberak ez badira eta eremu horren hustubide-ahalmenaren murrizketa garrantzitsurik ekartzen ez badute. Horrenbestez, oro har, eremu horretan ezin izango dira onartu:

a) Garajeak eta sotoak.

b) Kanpalekuak, inolaz ere.

c) Eraikuntza berriak, horien erabilera edozein dela ere; ondoko hauek barne hartuta: ikastetxeak edo osasun-etxeak, zaharren edo minusbaliatu fisiko edo psikikoen egoitzak, suhiltzaile-etxeak, babes zibileko zerbitzuen instalazioak, erregaia hornitzeko guneak, landetxeak eta animalien haztegiak.

d) Lehendik dauden eraikuntzak finkatzeko, bolumena areagotzeko, berritzeko edota haien desjabetze-balioa areagotzeko nahiz erabilera aldatzeko obrak, uhaldien aurrean kalteberatasuna handitzea baldin badakarte; eraikinaren higieneak, apaindurak eta kontserbazioak eskatzen dituzten konponketa txikiak salbuetsita.

e) Iragazkorrak ez diren berotegiak, itxiturak eta hesiak; hala nola, edozein motatako fabrikako horma-itxierak.

f) Mota guztietako material edo hondakinen betelanak eta metaketak; are gehiago, ondorio hauek ekar baditzakete: hustubide-sekzioa murriztea, jabari publiko hidraulikoaren kutsadura edo narriadura sorraraztea eta/edo flotatzea nahiz arrastatuak izatea, drainatze-obren eta zubien buxadura eraginez.

g) Ibilguarekiko paralelismo-joeraz diseinatutako azpiegitura linealak; saneamendukoak, hornidurakoak eta lurpeko bestelako kanalizazioak salbuetsita. Horiek, nolanahi ere, soluzio bideragarririk ez dagoen tokian tokiko eremuak kenduta. jabari publiko hidraulikoaren zortasun-eremutik at kokatu beharko dira.

3. Salbuespen gisa, plan hidrologiko hau indarrean jartzean lurzoru urbanizatuaren oinarrizko egoeran dagoen lurzoruan, Lurzoruari buruzko Legearen testu bategineko 12.3 artikuluan

xedatutakoaren arabera; lehentasunezko fluxu-eremuan eraikuntzak egitea baimendu ahal izango da, alde batean edo bietan finkatutako eraikuntza-mehelinak dituzten orubeetan eta lehendik dagoen lurzoru urbanizatuaren barruan osorik txertatutako orube isolatuetan.

Aparteko bi suposizio horietako edozeinetan, eraikuntzek eta/edo bertan ezartzen diren erabilerek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Ingurunearen uholde-arriskua nabarmen ez areagotzea, eta hiriguneko uholdeen aurkako litezkeen babes-jardunak ez baldintzatzea.

b) Bizitegi-erabilerak 500 urteko itzulaldiko uholde-kotaren gainetik egotea.

c) Dagokion herrirako Uholde Arriskua Kudeatzeko Planen, hala badagokio, ezartzen diren prebentzio-irizpide eta -neurriekin bateragarri izatea.

d) Herrestan eramatearen, diluzioaren nahiz iragaztearen ondorioz giza osasunarentzat eta ingurumenerako (lurra, ura, landaredia edo fauna) kaltegarri izan daitezkeen produktuak gorde, eraldatu, manipulatu, sortu edo isurtzen dituzten instalazioak ez izatea; ezta ikastetxeak, osasun-etxeak, zaharren edo minusbaliatu fisiko edo psikikoen egoitzak, suhiltzaile-etxeak, babes zibileko zerbitzuen instalazioak, erregaia hornitzeko guneak, araztegiak, instalazio elektrikoak, landetxeak eta animalien haztegiak ere.

e) Baimenaren eskatzaileak berariaz adieraztea ezagutzen eta bere gain hartzen dituela eraikuntza berrian dagoen arriskua eta kasurako aplikatzekoak diren babes zibileko neurriak, hura babesteko bidezkotzat hartzen dituen neurri osagarriak edozein direla ere.

Lehentasunezko fluxu-eremuan eraikitzeko ematen diren baimenak, baldintza horien arabera, Jabetza Erregistroari helaraziko zaizkio, eskatzailearen kontura, eskaeraren xede den finkaren gaineko jabariarekiko baldintza gisa.

4. Uholde-arriskuko eremurako baimenetarako, lehentasunezko fluxu-eremutik kanpo, plan hidrologiko hau indarrean jartzean lurzoru urbanizatuaren egoeran dagoen lurzoruan (Lurzoruari buruzko Legearen testu bategineko 12.3 artikuluan xedatutakoaren arabera), xehetasunezko azterlan hidrauliko bat eskatu ahal izango da, jarduna bideragarri egiteko beharrezko neurri zuzentzaileak zehaztu eta justifikatuko dituena. Neurri horiek, betiere, ingurumenaren aldetik onargarriak izango dira, eta ingurunean lehendik dagoen uholde-arriskua ez dute areagotuko.

Oro har, eremu horretan ezin izango dira onartu:

a) Garajeak eta sotoak, itxitura estankoen bidez iragazgaizten badira, uholde-kotaren gainetik aire-zuloak baldin badituzte, eta arrapalen edo eskailera-mailen bidez goratutako sarbideak badituzte salbu.

b) Kanpalekuak, inolaz ere.

c) Uholde larrien ondoriozko larrialdi-egoeretan irisgarritasuna ziurtatu behar deneko funtsezko azpiegitura publikoak; hala nola, ikastetxeak edo osasun-etxeak, zaharren edo minusbaliatu fisiko edo psikikoen egoitzak, suhiltzaile-etxeak eta babes zibileko zerbitzuen instalazioak.

d) Mota guztietako material edo hondakinen metaketak; are gehiago, ondorio hauek ekar baditzakete: hustubide-sekzioa murriztea, jabari publiko hidraulikoaren kutsadura edo narriadura sorraraztea eta flotatzea nahiz arrastatuak izatea, drainatze-obren eta zubien buxadura eraginez.

Lurzoru urbanizatuan, behar bezala justifikatutako ezintasun materialaren kasuan izan ezik, bizitegi-erabilera berriek 500 urteko itzulaldiko uhaldietan iristezina izango den kotan kokatu beharko dute. Muga hori landa-lurzoruko oinarrizko egoeran dauden lurretan kalteberak diren erabilera guztietara zabalduko da, Lurzoruari buruzko Legearen testu bategineko 12.2 artikuluaren arabera.

54. artikulua. Uholdeen aurreko babes-neurriak

1. Lurzoruari buruzko Legearen testu bategineko 12.3. artikuluan xedatutakoaren arabera, oinarrizko urbanizazio-egoera dagoen lurzoruan pertsonak eta ondasunak babesteko

Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretua, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa onartzen duena, Estatuko Aldizkari Ofizialaren 137. zk.an argitaratua. Uraren Euskal Agentziak itzulia.

egiturazko babes-jardunak egin behar direnean, Uholde Arriskuaren kudeaketa Planak herri horretarako ezarritakoa izango da babes-maila. Aurreikuspen hori eduki ezean, eta oro har, hirigunea gutxienez 100 urteko itzulketa-epealdian urpean gera daitekeen eremutik kanpo geratzeko moduko ubideratzea diseinatuko da.

2. Landa-lurzoruko oinarrizko egoeran dauden lurretan, Lurzoruari buruzko Legearen testu bategineko 12.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, dagozkion jardunak, uholdeen aurrean pertsonak eta ondasunak babesteko beharrezko babes-jardunak barne direla, uholde-arrisku handiko eremutik kanpo kokatu beharko dira –uztailaren 9ko 903/2010 Errege Dekretuaren 8.1.a) artikuluan jasotakoaren arabera–, jardunen aurretiazko uholde-arriskuko egoeran; baldin eta, hartu beharreko neurriek ur-mailen aurrean babesa ziurtatzen badute 500 urteko itzulaldiko uhaldietako ur-mailen aurrean.

Salbuespen gisa, uholde-arrisku handiko eremu horretan jardun horiek kokatu ahal izango dira; baldin eta, hartutako neurriek ziurtatzen badute uhaldien aurreko babesa ziurtatzen badute eta, aurretiaz, Administrazio Hidraulikoak haien alde erabakitzen badute. Horrek ez du nahitaez ekarri behar lurralde- eta hirigintza-antolamenduko tresnen aldetik lur horien pasabidea aurreikustea, landa-lurzoruko oinarrizko egoeratik lurzoru urbanizatuko egoerara.

3. Administrazio Hidraulikoak, uholde-arriskua kudeatzeko planek ezartzen dutenaren kaltetan izan gabe, Plan Hidrologiko Nazionalari buruzko uztailaren 5eko 10/2001 Legearen 28. artikuluan eta Urei buruzko Legearen testu bategineko 23. artikuluan xedatutakoaren arabera, lankidetza-protokolo orokorrak sustatuko ditu autonomia- eta toki-administrazioekin, uholde-arriskua duen eremuan erabilerak antolatu ahal izateko neurri-programak ezartzearren. Horiek, ibai bateko edo ibai tarte bateko uholdeen aurrean pertsonak eta ondasunak babesten ez ezik, ondoko helburu hauek gauzatzen lagundu behar dute: jabari publiko hidraulikoaren egoerari eustea, ur-ekosistemen narriadurari aurrea hartzea (horiek hobetzen lagunduz) eta uholdeetan korronteen erregimena babestea, ibilguen aldameneko lurren funtzioa bultzatuta, emarien mailakatzean eta garraiatutako karga solidoan.

4. Protokolo horiek izango dira administrazioen arteko koordinazio-tresna konponbide egokira iristeko, uholde-arriskua duen landa-lurzoruko egoeratik lurzoru urbanizatuko egoerara igarotzea aurreikusten den kasuetan; hiri-plangintza orokor baten lehen lanketa aurkezteko aurrerapen-fasean edo indarrean dagoen guztiz edo zati batean berrikustea proiektatzen denean, Urei buruzko Legearen testu bategineko 25.4 artikuluko txostenaren kaltetan izan gabe.

5. Uholdeen arriskuari dagokionez, kontuan hartuko da 2011ko uztailaren 29ko Ministro Kontseiluaren Erabakia, uholde-arriskuen aurrean babes zibileko Estatuaren Plana onartzen duena, eta 1994ko abenduaren 9ko Ministro Kontseiluaren Erabakia, uholde-arriskuaren aurrean babes zibileko plangintzari buruzko Oinarrizko Jarraibidea onartzen duena (horretan, uholde-arriskuaren aurrean autonomia-erkidegoen planen oinarrizko edukia eta funtzioak ezartzen dira). Horretarako, aplikatzekoak izango dira, dagozkien lurralde-eremuetan, uholde-arriskuaren aurreko babes zibileko planak: Euskal Autonomia Erkidegokoa (1999ko martxoaren 23ko Babes Zibilaren Batzorde Nazionalak homologatutakoa), Nafarroakoa (2002ko otsailaren 21ean homologatutakoa), eta Gaztela eta Leongoa (2010eko martxoaren 24koa).

55. artikulua. Zubien eta estalduren diseinuari, eta ibilguen trazadura babestu eta aldatzeko egitura-neurriei buruzko berariazko arauak

1. Hiri-eremuan zubi bat eraikitzeko, oro har, lehentasunezko fluxu-eremua libre utzi behar da. 30 m-ko argiraino, bao bakarra izango du. Argi handiagoetarako, 25 m-tik gorako argiko bao bat izango du, eta 6 m-tiko gorako argiko beste bat edo beste batzuk. Tarte zuzenetan, 25 m-tiko gorako baoa erdian kokatuko da, eta, tarte kurbatuetan, kurbaren kanpoaldean. Uren mailatik taularen beheko aurpegirainoko babesa, ahal dela, metro batekoa edo handiagoa izango da 500 urteko itzulaldiko uhaldirako. Nolanahi ere, zubiaren erdiko puntuan, babes hori zubiaren zabaleraren % 2,5ekoa izango da gutxienez.

2. Landa-eremutik igarotzen diren komunikazio-azpiegituretarako, argiak eta baoen banaketa aurreko paragrafoan zehaztutakora egokituko dira, eta uraren azalera libretik taularen azpialderainoko babesa ondoko datu hauen artean interpolatzearen emaitzazkoa izango da:

Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretua, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa onartzen duena, Estatuko Aldizkari Ofizialaren 137. zk.an argitaratua. Uraren Euskal Agentziak itzulia.

8. taula. Zubiak diseinatzeko babesak

Arroa (km^2)	Babesa (m)
5	0,15
10	0,25
25	0,40
50	0,50
100	0,75
1.000	1,00
2.000	1,50

3. Landa-eremuan, auzo-bideetako zubiek hustubide-ahalmen handiagoa izango dute ibaian gora eta ibaian behera ondo-ondoan dauden tarteek baino. 20 m-ko argiraino, ibilgua bao bakarraz gaindituko da. Argi handiagoetarako, 15 m-ko bao bat eta 2 m-tik gorako argietako beste bat edo beste batzuk egongo dira. Taularen behealdea aldameneko lurren gainetik cm-ra geratuko da, sarbidea ez bezala. Izan ere, sarbidea zubiaren inguruetaraino, lurren mailan ezarriko da, bidea zubia baino lehen urpetu dadin.

4. Ibilgu baten uhaldiek hiri-eremu bati eragiten diotenean, eremu horretatik ibaian beherako edozein zubitarako, eremuaren gaineko eraginak jasoko dituen azterlan orokor bat egin beharko da hura baimentzeko.

5. Irizpide orokor gisa, ez da baimenduko 0,5 km^2-tik gorako arro drainatzailea duten ibai tarteetan estaldurarik egitea. Zifra horretatik beherako arro isurleko azalera duten ibilguetan, era berean, saihestu egingo dira estalitako bideratzeak solidoen eta flotatzaileen arrasteak aurreikusten direnean, horiek nabarmen saihestezinak badira salbu. Halakoetan, saihestezintasun hori behar bezala justifikatu beharko da.

Salbuespen gisa, 1 km^2-rainoko arroetan ibilguak estaltzea baimendu ahal izango da azpiegitura estrategikoen kasuetan eta oso urbanizatuta dauden eremuetako arro-buruen kasu berezietan; ingurumenaren aldetik hain erasotzailea ez den eta arrisku txikiagoa izango duen beste aukera bideragarririk ez dagoela aurretiaz justifikatuta. Halakoetan, sekzioa bisitagarria izango da, eta gutxienez 2 m-ko altuera eta 2 m-ko zabalera izango du.

6. Oro har, debekatuta dago 1 km^2-tik gorako arro isurlea duten ibilguen trazadura aldatzea, salbu eta beharrezkoa bada hiri-eremuetako uholde-arriskua murrizteko, uholde-arriskua kudeatzeko bidezko planean jasotzen bada edo Administrazio Hidraulikoak onartzen badu. Era berean, trazadura aldatzea baimenduko da, ibilguaren naturHandiasuna areagotzeko bada, Administrazio Hidraulikoaren aurretiazko baimenaz. 1 km^2-tik beherako arroa duten ur ibilguak aldatzeko, jareduna justifikatuko duten hautabideen azterlanak egin beharko dira, eta prebentzio, zuzentze eta konpentsazioko neurri egokiak hartu beharko dira.

7. Salbuespen gisa, 2 km^2-rainoko arro isurleko ur-ibilguak aldatzea baimendu ahal izango da, azpiegitura estrategikoetarako eta udalaz gaindiko interesa duten jardunetarako; baldin eta, Administrazio Hidraulikoaren aldeko txostena izan duten lurraldea antolatzeko tresnetan halakotzat jasota badaude.

Aurreko kasuetan, jarduna justifikatuko duen, eta esku-hartzearen ondoriozko eragin ingurumenekoak, hidraulikoak eta hirigintzakoak ebaluatuko dituen hautabideen azterlan bat egitea eskatu ahal izango da. Hautabideen azterlan horretan, ematen den baimenean (hala badagokio) sartu beharreko prebentzio, zuzentze eta konpentsazioko beharrezko neurriak proposatu beharko dira.

56. artikulua. Urbanizatu beharreko eremu berrien eta komunikabideen drainatzea

1. Baliatutako arroaren edo arroen drainatzean aldaketa ekar ditzaketen urbanizazio, industria-poligono, hirigintza-garapen eta azpiegitura lineal berrietan, drainatze-sistema iraunkorrak gehitu beharko dira (zoladura iragazkorrak, ekaitzetarako andelak edo gailuak, etab.), lehen zegoen egoeraren balioarekiko jariatzearen litekeen areagotzea konpentsatu ahal izatea edo hutsala izatea ziurtatuko dutenak.

2. Arroaren ezaugarriak direla eta, beharrezkotzat jotzen denean, gainazal baten iragazgaizteak/urbanizatzeak sorraraz lezakeen jariatzeren areagotzea garrantzizkoa ez dela justifikatuko duen azterlan hidrologiko-hidraulikoa egitea eskatu ahal izango da. Azterlan hori

Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretua, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa onartzen duena, Estatuko Aldizkari Ofizialaren 137. zk.an argitaratua. Uraren Euskal Agentziak itzulia.

eskatu ahal izango da, betiere, jardun berriaren azalerak arroaren guztizko azaleraren gutxienez % 25 hartzen duenean.

3. Oro har, komunikabideen zeharkako drainatzeetan, ibar batean ezin izango da berezko arroaren azaleraren % 10etik gorako isurketa-eremurik gehitu. Baldintza hori beteko ez balitz, ibar hartzailearen ibilguak duen hustubide-ahalmena areagotu beharko da; 500 urteko itzulaldiko uhaldietan, hasierako egoerarekiko gehiegizko goratzerik ez gertatzeko moduan.

2. SEKZIOA. Itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoko igarotzeko eta babes-zortasuneko eremuan baimenak emateko arauak

57. artikulua. Babes-zortasuneko eremuko jardunak

1. Itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoko babes-zortasuneko eremurako baimenak emateko, kontuan izango da, plan honetan ezarritakoaz gainera, Kostaldeei buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legea, berori garatzeko araudia eta aplikatzekoak diren gainerako arauak.

2. Estuarioetako eta kostaldeko ekosistemen narriadurari aurrea hartzeko, irizpide orokor gisa, babes-zortasunean ezin izango dira eraiki urbanizazioaren elementuak; hala nola, espaloiak, bideak, sotoak, aparkalekuak edo garajeak eta, oro har, uneko egoera ekologikoa okerragotzea dakarten urbanizazioaren elementuak. Era berean, eremu horietatik kanpo geratu beharko dute lurpeko nahiz aireko instalazio linealek (hornidura edo saneamendua, telekomunikazioak, elektrizitatea, gasa, etab.) eta, ezinbestean babes-zortasunetik igaro behar dutenean, ahal dela, dauden bideen azpitik kokatu beharko dira.

3. Babes-zortasuneko eremuan dauden eraikuntzetan konponketa- eta hobekuntza-obrak egiteko baimenak emateko (betiere, igarobide-zortasuneko eremutik kanpo), honako baldintza hauek kontuan hartu beharko dira:

a) Bolumena areagotzea ez ekartzea, ez sestra gainean, ez lurpean (garajeak, sotoak, etab.).

b) Hormak osorik eraistea ez ekartzea; hau da, zolatik estalkiraino. Oro har, jatorrizko kanpoko hormen % 80 mantendu beharko da, eta horiek zati batean konpontzea justifikatutako kasuetan (segurtasuna, etab.) baimenduko da. Estalkia konpondu eta ordezkatu beharko da; baina, forma eta dimentsio berberez.

c) Narriatutako eraikuntzetan egin nahi diren obrak, baimendu ahal izateko, konponketa- eta hobekuntza-obratzat hartuko dira soilik; baldin eta eraikuntza horiek estalkia, ibilgailu-sarbidea eta, gutxienez, hormen % 75 badute. Eraberritze lanetan, betiere, dauden elementuak mantendu beharko dira; eta debekatuta egongo da horiek osorik edo zati batean eraistea. Salbuetsi egingo dira behar bezala egiaztatutako ezusteko edo ezinbesteko arrazoien ondorioz kalteak izateagatik birgaitu nahi diren eraikuntzak.

d) Ez dute bizitegi-erabilerarako aldaketa ekarriko. Salbuespen gisa, antzina nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueretarako (biltegia, ukuiluak, etab.) zuzendutako baserrien beheko eremuak bizitegi gisa erabiltzeko eraberritze-lana baimenduko da.

e) Dokumentazio teknikoan, xehetasunez jaso beharko dira lehen adierazitako birgaitze- eta eraberritze-obren instalazioek, obra eta erabilera osagarriek (behin-behineko edo behin betiko sarbideak, makineria, eraikuntzako materialen metaketak, etab.) sorraraz ditzaketen babes-zortasuneko eremuaren gaineko eraginen xehetasuna eta hedadura.

f) Obrek berekin ekar ditzaketen balio-gehikuntza ez da kontuan hartuko desjabetzearen ondorioetarako.

Salbuespen gisa, monumentu historiko deklaratuta dauden edo ondarea babesteko beste erregimen baten pean dauden eraikuntzak konpondu eta hobetzeko obrak baimendu ahal izango dira.

4. Babes-zortasuneko eremuan, kirol-instalazioak lur naturalaren gainetik metro bateko altuerara mugatuko dira, itxierak pertsonen ikuspegiak eragotzi ez ditzan. Oro har, estuarioetako eta itsasertzeko ekosistemen narriadura saihesteko, ezin izango da 3 m-tik gorako lur-erauzketarik eta lubetarik egin.

Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretua, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa onartzen duena, Estatuko Aldizkari Ofizialaren 137. zk.an argitaratua. Uraren Euskal Agentziak itzulia.

5. Babes-zortasunean gauzatu nahi diren oinezkoen pasealekuek, egun urbanizatu gabe dauden eremuetan, irisgarritasun-baldintzatzaileen ondorioz ezarritako gutxieneko zabalera izango dute: ahal dela, gehienez 2 metro, 3 metroraino zabaltzeko aukerarekin erabilera mistoa dutenean (oinezkoak eta bizikletak). Horiek gauzatzeko, tratamendu bigunak erabiliko dira, hiri-altzariak instalatu gabe eta, ahal den neurrian, ez dute argiztapenik izango. Dena den, argiztapena instalatzea beharrezkoa bada, baliza motakoa izango da lehentasunez.

58. artikulua. Igarobide-zortasuneko eremuko jardunak

1. Igarobide-zortasuneko eremuaren barruko eraikuntzak antolamenduz kanpo daude, egungo hirigintza-legerian jasotako ondorioekin.

2. Itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa babestearen ikuspegitik, Kostaldeei buruzko Legean jasotakoaren kaltetan izan gabe, babes-zortasuneko eremuaren lehen 30 metroetan ibilgailuentzako bideak daudela ikusiz gero, bide horiek lege horren 27. artikuluan adierazten diren zaintza eta salbamenduko ibilgailuak igarotzeko erabiliko dira, eta igarobide-zortasuna zabalik eta lur naturalaren edozein aldaketatik libre geratuko da beti (ingurune naturalarekin eta oinezkoen igarobide publikoarekin lotutako erabileretara zuzendutako aldaketak salbuetsita).

3. Kostaldeei buruzko Legearen 44.5 artikuluan adierazten diren oinezkoen pasealekutzat oinez igarotzera zuzendutako bidexkak hartu behar dira. Horiek, ingurunean integratuta eta hura desnaturalizatu gabe, aisialdi-jarduerak, eta ur-ekosistemez eta horien babes-eremuez gozatzeko jarduerak egiteko aukera eman behar dute.

59. artikulua. Hirigintza- eta lurralde-plangintzari buruzko txostenak

1. Estatuko Administrazioak, Kostaldeei buruzko Legea garatzen duen Araudiaren 205. artikulua aplikatuz, hiri- eta lurralde-plangintzari buruzko txostena egingo du, berez dagozkion eskumenak baliatzean oinarrituta, itsas eta lehorraren arteko jabari publikoa kudeatu eta babestearekin lotutako alderdiei dagokienez. Bestalde, Uraren Euskal Agentziak, ekainaren 23ko Urei buruzko Legearen 7.k) eta l) artikuluak aplikatuz, txosten bat egingo du hiri- eta lurralde-plangintzari buruzko dokumentuak bideratzean.

2. Aurreko atalean arabera luzatutako txostenak Estatuko Administrazioak eta Uraren Euskal Agentziak dituzten eskumenen kaltetan gabe izango dira (hurrenez hurren, itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoarekin lotutako emakidak esleitzeko, eta jabari publiko horren babes-zortasuneko eremuan baimenak emateko eta lehorretik itsasorako isurketetarako); administrazio bakoitzak, zuzenbidera egokituta, ebazteko bidezkotzat hartzen dituen baldintzetan.

3. SEKZIOA. Eremu babestuak

60. artikulua. Irizpide orokorrak

Dagozkien kategoria eta tipologietan Babestutako Eremuen Erregistroko eremuak izendatzeko eskumena duen administrazioak, Administrazio Hidraulikoari, izendapen horiekin lotutako aldaketen, alten edo bajen berri emango dio, adierazitako erregistroa eguneratzeko. Gainera, egon litezkeen antolamendu- eta kudeaketa-tresnak kontuan hartuko dira.

61. artikulua. Hornidurarako ur-masak

1. Hiri-hornidurara zuzendutako hartune guztiek, Babestutako Eremuen Erregistroko masetan kokatuta badaude, bidezko babes-perimetroa izango dute. Bertan, babestu beharreko eremuak eta kontrol-neurriak mugatuko dira, eta lurzoruaren erabilerak eta horietan garatu beharreko jarduerak arautuko dira, hartuneetako uraren kantitatearen eta kalitatearen gaineko eraginak saihesteko.

Administrazio Hidraulikoak, hura zehazteko, hartuneak duen arriskua eta hornitutako biztanleria kontuan hartuko ditu.

Ordura arte, babes-perimetroa lurpeko hartuneen inguruko erradio-magnitude finko batek mugatuko du; eta, lurrazaleko hartuneen kasuan, ondorengo erradio finkoko arro isurlearen gaineko arku batek:

a) 500 m, 15.000 biztanletik gora zerbitzatzen dituzten hornidura-sistemetako hartuneetan.

b) 200 m, 2.000 eta 15.000 arteko biztanle artean zerbitzatzen dituzten hornidura-sistemetako hartuneetan.

c) 100 m, 10 eta 2.000 arteko biztanle artean zerbitzatzen dituzten hornidura-sistemetako hartuneetan.

Hornidurarako urtegien kasuan, babes-perimetroak berariaz mugatzean, kontuan hartu beharko da, lurrazaleko eta lurpeko jariatze-arroa ez ezik, urtegira isuraldatutako litezkeen ibaiadarren arroa ere.

2. Hiri-hornidurarako ur-hartuneetarako emakida-eskaeretan, azterlan tekniko egokia izango duen babes-perimetrorako proposamena galdatu ahal izango zaio eskatzaileari.

3. Babes-perimetroen barruan, lurrazaleko ur-masetarako, hartutako emariak eta uren kalitatea babestea helburu duten zaintza-eremuetarako Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudian ezarritako arauak izango dira aplikatzekoak; eta, lurpeko ur-masetarako, aipatutako araudiaren 179. artikuluan ezarritakoak. Era berean, bereziki kontrolatu eta zainduko dira uren kalitatea giza kontsumorako uraren kalitateari buruzko osasun-irizpideak ezartzen dituen otsailaren 7ko 140/2003 Errege Dekretuan ezarritakoaren azpitik jaiste ekar dezaketen erabilera eta jarduera guztiak (aprobetxamendu berriak, lur-mugimenduak, obrak, etab.).

4. Hiri-hornidurarako ur-hartuneetarako babes-perimetroen barruko edozein baimen edo emakida bideratzeko, hornidura horren emakidadunaren txostena eskatuko da.

62. artikulua. Ingurune urtarrarekin lotutako habitata edo espezieak babesteko izendatutako eremuak

«Natura 2000 Sarea» guneetarako baimenei eta emakidei dagokienez, alor horretan eskumena duen organoari txosten bat eskatu beharko zaio. Txostenean, alderdi hauen inguruko irizpena eman beharko da: gunearekiko ageriko eraginik etor daitekeen, eta Ondare Naturalari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 45.4 artikuluaren arabera bidezko ebaluazioa egitea beharrezkoa den.

63. artikulua. Ur mineralak eta termalak babesteko perimetroak

Indarrean dagoen berariazko legeriaren arabera onartutako ur mineralen eta termalen babes-perimetroen esparruko ur-aprobetxamenduetarako emakidei dagokienez, horiek antolatzeko dokumentuak bete beharko dira, eskumena duen agintaritzaren txostena eskatuta.

64. artikulua. Ibai-erreserba naturalak

Zehaztutako erreserbak horietako bakoitzari lotutako ibai tarteei dagozkien jabari publiko hidraulikoko ondasunetara mugatzen dira. Tarte horietan, ez da baimenduko bertako baldintza naturaletan eragina izan dezakeen jarduerarik.

65. artikulua. Hezeguneak

Hezeguneetan edo horien babes-eremuetan eragina izatea aurreikusteko modukoa denean, emakidak edo baimenak esleitzea litekeen ingurumen-ondorioari buruzko analisiaren emaitzak baldintzatuko du. Hala, xehetasunez aztertu beharko dira jabari publiko hidraulikoaren eta itsas eta lehorraren arteko jabari publikoaren babesean eragina duten alderdiak, bai eta horri lotutako ingurune biotikoaren edo abiotikoaren gainean, eta erregimen naturalarekiko erasoen prebentzioan eragina duten alderdiak ere.

66. artikulua. Babes bereziko eremuak

1. Babes bereziko eremuetan, oro har, dagozkien antolamenduko dokumentuak edo arauak bete beharko dira, eta ingurune fisiko naturala, fauna edo flora alda dezaketen jabari publiko hidraulikoaren, itsas eta lehorraren arteko jabari publikoaren eta horien babes-eremuen gaineko esku-hartzeak saihestuko dira.

2. Babes bereziko eremuetan edo horien babes-eremuetan eragina izatea aurreikusteko modukoa denean, emakidak edo baimenak esleitzea litekeen ingurumen-ondorioari buruzko analisiaren emaitzak baldintzatuko du.

3. Ingurumen-intereseko tarteetan, uren kalitate naturalari eusteko beharrezko kontrol- eta jarraipen-neurriak hartuko dira, bai ibai-ibilguei dagokienez, bai eta horiei lotutako lurpeko sistemei dagokienez ere.

Oro har, tartearen berezko fauna eta flora naturalak aldatzeko joera duten ibilguaren gaineko esku-hartze guztiak saihestuko dira.

4. Interes naturaleko tarteetan, bertako fauna eta flora naturalak ez ezik, ingurune fisiko naturala alda dezaketen jarduerak mugatuko dira.

4. SEKZIOA. Isurketak

67. artikulua. Isurketa-baimenak

1. Urei buruzko Legearen testu bategineko 100.1 artikuluan eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiaren 245.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, debekatuta dago, oro har, ur kontinentalak nahiz jabari publiko hidraulikoaren beste edozein elementu kutsa dezaketen urak eta hondakin-produktuak zuzenean edo zeharka isurtzea, aldez aurretik administrazio-baimena baldin badago salbu.

2. Urei buruzko Legearen testu bategineko 100.2 eta 101.1 artikuluen eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiaren 245.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, isurketen baimenetan, zein baldintzatan egin behar diren finkatuko da, ezarritako ingurumen-helburuak lortzeko asmoz.

3. Nolanahi ere, ezarri, aldatu edo lekuz aldatu nahi den industria edo jarduera ezarri eta abian jarri aurretik lortu beharko da isurketa-baimena; eta, ondoren, administrazioak eman beharreko jarduera-lizentziaren edo jakinarazpenaren aurretik egingo da.

4. Isurketa orok aplikatzekoak zaizkion indarreko araudian ezarritako isurketa-ezaugarriak bete beharko ditu; eta ezaugarri horiek bete egin beharko dituzte isurketa egiten deneko ur-masarako finkatutako ingurumen-arauak eta helburuak (isurketa hori bakarrik eta gainerako isurketekin batera kontuan hartuta). Gainera, ondorengo artikuluetan zehaztutako arauak bete beharko dira.

5. Urei buruzko Legearen testu bategineko 104.1 artikuluan eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiaren 261. artikuluan ezarritakoaren arabera, Administrazio Hidraulikoak isurketa-baimenak berrikusi ahal izango ditu, isurketak Plan Hidrologiko honetan ezarritako ingurumen-helburuetarako egokitzeko. Horregatik, isurketa-baimena berrikusteko prozeduran, eskuragarri dauden teknika egokienak aplikatzea kontuan hartuko da; bereziki, sortutako isurketa murriztuta, erabilera eraginkorrena dakartenak.

6. Lehorretik itsaso eta lehorraren arteko jabari publikorako isurketei dagokienez, bete egingo da Kostaldeei buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legearen IV. kapituluko 2. sekzioan eta hura garatzeko araudian, substantzia arriskutsuak lehorretik itsasorako isurtzeari buruzko martxoaren 10eko 258/1989 Errege Dekretuan eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan xedatutakoa.

7. Administrazio Hidraulikoak arazketaren aurretik hondakin-uren emaria erregulatzeko betebeharra ezarri ahal izango du, ingurumen-helburuek hala eskatzen dutenean.

8. Urbanizazio isolatuen eta industria-poligonoen isuriak saneamendu publikoko sareetara konektatzea lehentasunezko aukeratzat hartuko da, jabari publiko hidraulikora edo itsaso eta lehorraren arteko jabari publikora zuzenean isurita banaka arazteko hautabidearen aurrean; baldin eta, isuri horiek, biodegradagarriak izateagatik, autonomiako edo tokiko administrazioek nahiz horien mendeko bestelako erakundeek kudeatutako saneamendu-sistema baten instalazioetan onar badaitezke. Urei buruzko Legearen testu bategineko 101.2 artikuluan, Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiko 253. artikuluan eta lehorretik itsasora jabari publikora isurtzeari buruzko indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera, eman beharreko isurketa-baimenean Administrazioak bidezkotzat jotzen dituen baldintzak ezartzearen kalterik gabe izango da hori guztia.

Lehendik dagoen sare batera konektatu nahi izanez gero, eskatzaileak saneamendu-kudeatzailearen txosten bat lortu beharko du. Horretan, proposatutako konexioa eremuan dagoen saneamendu-soluzioarekin bateragarria dela ziurtatuko da, eta konexiorako puntu egokia zehaztuko da.

9. Urei buruzko Legearen testu bategineko 97. artikuluan xedatutakoari jarraituz, jarduera jakin baten ondorioz kutsatzen diren eta bilketa-sistema bateratzaile nahiz bereizle batean jasotzen diren eurien jariatze-urak isurketa baimentzeko prozeduraren pean jarri beharko dira Administrazio Hidraulikoaren aurrean.

Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretua, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa onartzen duena, Estatuko Aldizkari Ofizialaren 137. zk.an argitaratua. Uraren Euskal Agentziak itzulia.

Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretua, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa onartzen duena, Estatuko Aldizkari Ofizialaren 137. zk.an argitaratua. Uraren Euskal Agentziak itzulia.

68. artikulua. Hiri-eremuetatik datozen isurketak

1. Hiri-eremuetako saneamendu-sistemetarako isurketa-baimenetan, Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiko 259 ter. 1 artikuluan ezarritako irizpideak kontuan izango dira.

2. Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak adierazitako 253 ter. artikuluaren 3. atalean adierazitako arau teknikoak garatzen ez dituen bitartean, honako irizpide hauek beteko dira:

a) Berariazko azterlanik ezean, saneamenduko sistema bateratzaileetako husteguiletatik ibaian behera kokatutako hodi biltzaileen edukiera, gutxienez, 20 litro/segundokoa izango da 1.000 biztanle baliokideko.

b) Hondakin-uren araztegiaren (HUA) akats baten ondorioz, Administrazio Hidraulikoaren iritziz, ibaian kalte handiak sortzea aurreikusteko modukoa denean, arazketa-lineen kopurua areagotzeko baldintza ezarri ahal izango da. Baldintza hori, era berean, bilketa-sistemako hondakin-uren ponpaketetarako.

c) Nolanahi ere, isurketa-emaria 2.500 m³/egunetik gorakoa eta ibaiaren diluzio-emariaren % 20tik gorakoa denean, dagokionaren arabera, bi arazketa- edo ponpaketa-linea instalazio beharko dira gutxienez.

d) 10.000 biztanle baliokidetik gorako hiri-aglomerazioetako hondakin-uren araztegien kasuan, ona baino egoera txarragoko ur-masetan edo horiekin zuzenean lotutako masetan isurtzen badute, Administrazio Hidraulikoak instalazioen funtzionamendua eta efluentearen kalitatea etengabe kontrolatzeko sistemak ezartzea eskatu ahal izango du.

69. artikulua. Industria-eremuetatik datozen isurketak

1. Industria-eremuetako saneamendu-sistemetarako isurketa-baimenetan, Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiko 253 ter. 2 artikuluan ezarritako irizpideak kontuan izango dira, eurialdietatik datozen urekin lotuta.

2. Industria baten isurketa-espedientean, beste industria baten hondakin-uren fluxua sar daiteke, lehenengoaren instalazioetan horiek batera arazteko; baldin eta horrek fluxu hori bere gain hartu eta isurketa-aitorpenean jasoarazi badu.

Bi industriaren edo gehiagoren isurketak efluente araztuak husteko eroanbide komunean bateratu daitezke, ingurune hartzailerako azken isurketa-puntu bakarraz. Halakoetan, industria bakoitzak isurketa-baimena izan behar du, berorren arazketa-instalazioez eta gainerako industriekiko isurketa-kontroleko puntu independenteaz. Elementu horiek ingurune hartzailera husteko adierazitako eroanbide komunera isurketa gaineratzen den gunetik ibaian dora kokatuko dira.

3. Hiritartzat har daitezkeen hondakin-uretarako goraldietako gainezkabideak hiri-eremuetatik datozen isurketetarako aurreikusitako araudiaren arabera erabiltzea besterik ez da onartuko.

4. Substantzia arriskutsuen ezusteko isurketak sorraraz ditzaketen prozesu kimikoak hartzen dituzten industrietan, ibai-sistemara edo akuiferora litezkeen isurketak galaraziko dituzten biltegiratze-andelak edo oztopo fisikoak ezarri beharko dira, Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiko 251.1 i) eta 257.3 artikuluen arabera.

5. Hartune propioa duten industria-instalazioetatik datorren isurketak, industria-jardueraren bereizgarriak ez diren parametro kutsatzaileak eduki ahal izango ditu, baldin eta titularrak egiaztatzen badu kutsadura hori bilketako uretatik datorrela. Egiaztapen hori bai isurtzeko baimen-eskaerarekin, bai isurketa baimenduen hurrenez hurreneko kontrolekin batera aurkeztu ahal izango du.

Hartuneko urek industria-jardueraren bereizgarriak diren parametro kutsatzaileak balituzte, Administrazio Hidraulikoak kontuan hartuko du titularrak aurkeztutako egiaztapena, baimentzen diren isurketako muga-balioak ezartzeko edo, hala badagokio, horiek aldatzeko; ingurune hartzailean ingurumen-kalitateari buruzko arauak betetzearren.

70. artikulua. Saneamendu-sistema orokorrak eta hondakin-ur hiritarren araztegiak

1. Isurketa baimentzeko eskaeraren aurretik, sustatzaileak aukera izango du saneamendu eta arazketako azpiegitura orokorrak zehaztuko dituen aurreproiektu bat aurkezteko Administrazio Hidraulikoaren aurrean.

Dokumentazio horretatik abiatuta, Administrazio Hidraulikoak aurretiazko ebaluazio bat egingo du, ikusteko aurreproiektuak betetzen ote dituen kalitate-arauak eta ingurumen-helburuak eta isurketaren ezaugarriak zein diren; eta, hala badagokio, eskatzaileari errekerimendua egingo dio isurtzeko baimen-eskaerarako egiten duen proiektuan bidezko zuzenketa sar ditzan.

3. Eurialdietatik datozen urei dagokienez, Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiko 246.2.e) eta 246.3.c) artikuluetan ezarritako irizpideak kontuan izango dira.

4. Gainera, Administrazio Hidraulikoak saneamendu-sistemetako isurketa-baimenen titularrei errekerimendua egin ahal izango die jariatze-urak gainezkatzearen ondoriozko kutsadura murrizteko minimizazio-plan bat aurkez dezaten. Plan horretan hainbat neurri barne hartuko dira, hala nola, xehetasunezko azterlan teknikoak, hondakin-uren eta jariatze-uren bolumenak araztegietarantz garraiatzea optimizatzeko, euriteetan saneamendu-sistemetako gainezkatzeen eragina murriztearren. Era berean, husteetarako aurreikusitako gauzatze-epeak eta kontrol-sistemak adieraziko dira; hala nola, laginak hartzea, hustutako eta hodi biltzailera eramandako efluentearen neurketak, eta bestelakoak.

71. artikulua. Hondakin solidoen instalazioetatik datozen isurketak

1. Ur kontinentalak kutsa ditzakeen solidoen edo erdisolidoen metaketa oro kontrolatutako zabortegietan egingo da. Horietan, lixibiatuak biltzeko sistema bat egongo da, horiek erabat kontrolatzea ziurtatzeko eta lurrean iragaztea galarazteko. Bidezko azterlanaren bitartez justifikatuko da hori. Lurrazaleko ibilgu baterako isurketarik izanez gero, Administrazio Hidraulikoaren bidezko isurketa-baimena eduki beharko da.

2. Hondakin solidoen zabortegi kontrolatu batek jabari publiko hidraulikoan eragina balu, Administrazio Hidraulikoari aurkeztu beharreko baimen-eskaerari, espero diren ingurumen-eraginei buruzko azterlan bat erantsi beharko zaio nahitaez. Azterlanaren edukia Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiko 237.2 eta 3. artikuluetan zehaztutakora egokituko da.

3. Geldoak ez diren eta, geldoak izanik, uren bidez garbitu daitezkeen solidoen metaketek lixibiatuen hodi biltzaile bat edukiko dute, eta efluenteek isurketa likidoen administrazio-tratamendua izango dute.

4. Plangintza Hidrologikoaren Araudiko IV. eranskinaren arabera substantzia arriskutsuak barne hartzen dituzten metaketak gainerakoetatik bereizirik egin beharko dira, eta lixibiatuak biltzeko sistemak estankotasun-baldintzak zorrotz bete beharko ditu.

72. artikulua. Hirigintza- eta lurralde-plangintzari buruzko txostenak

1. Plangintzari buruz Administrazio Hidraulikoak eman beharreko txostenetarako, Urei buruzko Legearen testu bategineko 25.4 artikuluaren arabera (ur kontinentalen araubideari eta aprobetxamenduari, eta jabari publiko hidraulikoko lurretan eta horien zortasun- eta zaintza-eremuetan baimendutako erabilerei buruzkoa da); sustatzaileak, aurreproiektu baten bidez, saneamendu-sarerako eta arazketarako proposatutako soluzioa zehaztu beharko du.

2. Lehendik dagoen sare batera konektatzea aurreikusten ez bada, 67.8 artikuluaren aginduak baliozkoak izango dira, bai bideragarritasunaren kasuan, bai aurkakoan.

73. artikulua. Neurri gehigarriak aplikatzea

1. Isurketek egoera ona lortzea arriskuan jartzen duteneko ur-masetan, legez kanpoko isurketen kasuan erabaki beharreko jardunak edozein izanik ere, Administrazio Hidraulikoak honako neurri gehigarri hauek aplikatu ahal izango ditu:

a) Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiko 247.2 artikuluan, eta lehorretik itsasorako isurketen arloan indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera, isurketa-baimen berriak ukatzea, bai eraginpeko masan, bai ibaian gora kokatutako zehazten diren masetan.

b) Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiko 247.2 artikuluan, Kostaldeei buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legearen 58. artikuluan eta bere garaian aplikatzekoa den

araudian xedatutakoaren arabera, isurketa-baimen berrikustea edota, hala badagokio, isurketa-baimenaren titularrari ohartaraztea, baimen hori plangintza hidrologikoaren helburuekin bateraezina izanez gero, baimenean emandako epea amaitu ondoren, Administrazioak berori baliogabetzeko alde bakarreko erabakia hartuko duela, inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.

c) Isurketa-elkarteak eratzeko errekerimendua egitea, Urei buruzko Legearen testu bategineko 90. artikuluan eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiko 253.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

2. Agorraldian ingurune hartzaileren ingurumen-helburuak gauzatzea arriskuan jar litekeen kasuetan, Administrazio Hidraulikoak, dagokion urtarorako, oro har eskatutakoak baino arazketa-errendimendu handiagoak edo mantenugaien ezabatze gehigarria (nitrogenoa, fosforoa edo biak) edota bata eta bestea eskatu ahal izango ditu.

3. Eremu sentikorretan eta horien arro isurleetan ingurumen-helburuak gauzatu ahal izateko, Administrazio Hidraulikoak 10.000 biztanle baliokidetik beherako populazioei zerbitzatzen dien HUAen isurketa-baimenaren titularrei errekerimendua egin ahal izango die mantenugaiak (nitrogenoa edo fosforoa) araztu eta ezabatzeko neurri gehigarriak har ditzaten.

74. artikulua. Gutxieneko emari zirkulatzailea eta ibilgurako isurketa

1. Isurketa baimentzeko kontuan hartu beharreko emaria ur txikien aldiko gutxieneko emari ekologikoari dagokio, normHandiasun hidrologikoaren baldintzetan.

2. Oro har, ez da hiri- edo industria-jarduera berrietarako isurketarik baimenduko tamaina eta arro drainatzaile txikiko ibilgu naturalen buruko tarteetan; baldin eta, isurketetarako eskuragarri dauden teknika hoberenak kontuan izanda ere, ingurune hartzailearen kalitateari buruzko arauak eta ingurumen-helburuak betetzeko egokiak ez badira.

Salbuespen gisa, lehendik daude jarduerei dagozkien isurketak baimendu ahal izango dira, karga kutsatzailea murriztuko duten arazketa-instalazio berriak baldin badituzte, eskuragarri dauden teknika hoberenak aplikatzen badituzte eta isurketa horiek bat egiten duteneko ur-masari aplikatzekoak zaizkion kalitate-helburuak betetzea eragozten ez badute.

3. 2. atalean adierazten diren ibilguetarako isurketa-baimenak emateko, isurketek bat egiten duteneko ur-masei aplikatzekoak zaizkien kalitate fisiko-kimikoaren helburuak betetzen duten kontuan hartuko da.

5. SEKZIOA. Araztutako urak berrerabiltzea

75. artikulua. Hondakin-urak berrerabiltzea

1. Urei buruzko Legearen testu bategineko 59.1 eta 109. artikuluetan xedatutakoaren arabera, aprobetxamendu batetik datozen hondakin-urak berrerabili ahal izateko, administrazio-emakida behar da, titularrak emakida hori eskatzen badu salbu. Halakoetan, administrazio-baimena beharko da soilik. Araztutako urak berrerabiltzeko, betiere, araztutako urak berrerabiltzeko araubide juridikoa ezartzen duen abenduaren 7ko 1620/2007 Errege Dekretuan xedatutakoa bete beharko da.

2. Ibilguan ateratzen den emariak edo hondakin-uren isurketak aurreikusita dauden epeetan ur-masaren egoera ona lortzea oinarritutako arriskuan jartzen dutenean, Administrazio Hidraulikoak, ofizioz, isurtzeko emakidaren edo baimenaren titularrari eskatu ahal izango dio araztutako urak berrerabiltzeko hautabidea azter dezan.

3. Era berean, emakida-eskaera berri batean, Administrazio Hidraulikoak eskaera hori leheneratutako uretarako emakidara bideratzeko aukera izango du; indarrean dagoen araudiaren arabera, emakida-erabilerek hori onartzen badute.

Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretua, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa onartzen duena, Estatuko Aldizkari Ofizialaren 137. zk.an argitaratua. Uraren Euskal Agentziak itzulia.

Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretua, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa onartzen duena, Estatuko Aldizkari Ofizialaren 137. zk.an argitaratua. Uraren Euskal Agentziak itzulia.

8. KAPITULUA
URAREN ZERBITZUAK KUDEATZEKO ANTOLAMENDU EGITURAK. KOSTUAK BERRESKURATZEA. ARAUBIDE EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA. ESKAERA KUDEATZEKO PLANEN JARRAIBIDEAK. GARDENTASUNA, HERRITARREN KONTZIENTZIAZIOA ETA PARTE HARTZEA SUSTATZEA

76. artikulua. Uraren zerbitzuak kudeatzeko orientazio-printzipioak eta sustapen-neurriak

1. Administrazio eskudunek bultzatu egingo dute hornidura- eta saneamendu-sistemen kudeaketa integratua, helburuok lortzeko gai izango diren udalaz gaindiko kudeaketa-egiturak sortu eta mantendu daitezen sustatuta: sareen errendimendu egokia ziurtatzea, kudeaketa profesionalizatua izango duen zerbitzua ekartzea eta, eraginkortasun handienaz, ur-zerbitzuen kostuak leheneratzeko joera izatea.

2. Ur-zerbitzuen kostuak berreskuratzeko printzipioa aplikatzeko neurritzat hartuko dira, Plangintza Hidrologikoaren Araudiko 46. artikuluarekin bat etorriz, hornidura- eta saneamendu-azpiegiturak sortu eta berritzeko laguntzak, sareen eraginkortasuna areagotzekoak eta uraren erabilera eraginkorrerako bestelako neurriak: hornidura- eta saneamendu-zerbitzuen kostuak berreskuratzeko printzipioak aplikatu izatea justifikatzen duten erakundeei besterik ez zaizkie esleituko laguntza horiek.

77. artikulua. Uraren zerbitzuen kostuak

Uraren ziklo integralaren kostuak identifikatzeko, gutxienez, hura eskaintzeko beharrezko kostu guztiak kontuan hartu behar dira, kostu horiek dituen erakundea edozein izanik ere. Honela sailka daitezke:

a) Goi-hornidura eta -saneamenduko sareak mantendu, ustiatu eta berritzeko kostuak, edateko uren araztegiak (EUA) eta HUAk barne direla.

b) Goi-hornidura eta -saneamenduko sareak hobetzeko inbertsioen eta programen amortizazioa, EUAk eta HUAk barne direla (hobekuntza-programa horiek 5 urteko aldia hartu beharko dute gutxienez).

c) Behe-sarea sarea mantendu, ustiatu eta berritzeko kostuak.

d) Behe-hornidura eta -saneamenduko sareak hobetzeko inbertsioen eta programen amortizazioa (hobekuntza-programa horiek 5 urteko aldia hartu beharko dute gutxienez).

e) Abonatuen kudeaketarekin eta bezeroarentzako arretarekin lotutako kostuak.

f) Hornidura eta saneamenduko zerbitzugintzaren ondoriozko ingurumen-kostuak. Uraren erabilerek ingurumenarentzat, ekosistementzat eta ingurumenaren erabiltzaileentzat dakarten kaltearen kostuei dagozkie.

g) Baliabidearen kostuak.

78. artikulua. Uraren zerbitzuen kostuak berreskuratzeko jarraibideak

1. Urei buruzko Legearen testu bategineko 111 bis.2 artikuluaren arabera, kostuak berreskuratzeko printzipioa aplikatzearren, ur-horniduraren arloan eskumena duen administrazioak kontsumo tarteen araberako tarifa-egitura ezarriko du. Horren helburua da oinarrizko beharrei arrazoizko prezioan erantzutea eta gehiegizko kontsumoei atzera eragitea, kontuan izanik, besteak beste, gizartearen, ingurumenaren eta ekonomiaren gaineko ondorioak, eta baldintza geografikoak eta klimatikoak, eta, betiere, neurri horrek ingurumen-xedeak arriskuan jartzen ez baditu.

2. Hiri- eta industria-erabileretarako uraren zerbitzuen tarifak ezartzeko jarraibideak:

a) Tarifek, kuota finko bat ez ezik, ur-kontsumoaren arabera, nahitaezko kuota aldakor eta mailakako bat izatea gomendatzen da.

b) Kuota finkoan gutxieneko ur-kontsumorik ez sartzea proposatzen da.

c) Mailakako tarifak ezartzeko, zenbait kontsumo tarte proposatzen dira, mailakakotasun-eskala egokiaz; kostuak berreskuratzeko, baliabideak aurrezteko, eta kontsumo ez-eraginkorra eta ez-iraunkorra zigortzeko.

d) Tarifetan hiri-erabiltzaileen motak bereiztea gomendatzen da; gutxienez, honako hauek: etxekoak, industriakoak eta merkataritzakoak.

e) Industria-tarifen egiturak diseinatzean, erabilera horri lotutako kostuak kontuan hartu beharko lirateke.

f) Industria-erabileretarako, hobariak kontuan hartu ahal izango dira; eskuragarri dauden teknika hoberenak erabilita, uraren erabilera iraunkorrean eta aurrezpenean egindako ekarpenaren arabera.

79. artikulua. Eskaera kudeatzeko planak. Horiek egiteko jarraibideak

1. Uraren zerbitzuak kudeatzeko eskumena duten agintariek eskaera kudeatzeko planak egitea gomendatzen da. Planek lagundu egin behar dute mugape hidrografikoan uraren kudeaketa integrala, arrhonako jarraibide hauek proposatzen dira:

g) Uraren erabilerari buruzko informazio-sistemak ezartzea, uraren erabileren eskaerak dituen ezaugarrien eta joeren inguruko informazioa lortzeko; ura aurrezteko eta arrazoiz erabiltzeko politikak garatzearren.

h) Banakako kontagailuak instalatuta kontrola ziurtatzea.

i) Ura aurrezten duten teknologien erabilera sustatzea.

j) Sarearen eraginkortasun-mailak hobetzeko neurriak: tutuak pixkanaka berritzea, ihesak azkar antzemateko eta horiek minimizatzeko kanpainak egitea.

k) Tarifak eguneratzea, kostuak berreskuratzeko eta uraren aurrezpena sustatzeko irizpideei jarraituz.

l) Erabiltzaileak kontzientziatzeko eta informatzeko kanpainak sustatzea. Saiatu beharra dago kontsumitzaileek euren ur-kontsumoak eta horien eraginkortasun-maila zein diren jakin dezaten; fakturaren bidez, eta aurrezpena sustatzeko informazio eta sentsibilizazioko ekintzen bidez.

m) Uraren kultura berrirako parte hartzeko eremuak sustatzea.

80. artikulua. Gardentasuna eta herritarren kontzientziazioa sustatzeko jarraibideak

1. Gardentasuna nahitaezko baldintza da, uraren zerbitzuetan eskumena duten administrazio guztiek bete beharrekoa. Gardentasuna sustatzeko, kudeatzaile guztiek ezarri beharreko jarraibide hauek zehaztu dira:

a) Informazio-sistema integratua sortzea, uraren zerbitzugintzan esku hartzen duten agenteek sortutako datu interesgarri guztiak bilduko dituena; adibidez, ondoko hauek: azpiegiturak; ur-eskaerak erabiltzaile motaren arabera; zerbitzuen kostuak eta diru-sarrerak; eta eskualdean, Estatuan eta Europan zerbitzugintzan inplikatutako erakunde publikoen inbertsioek eta diru-laguntzek izandako bilakaera.

b) Uraren tarifa ezartzeko politikak gardena eta ulerterraza izan behar du, eragin pizgarria izan dezan eta erabiltzaileek baliabideak eraginkortasunez balia ditzaten. Erabiltzaileen artean, gai hauei buruzko informazioa hedatzea bultzatu beharko litzateke: uraren ziklo integralari dagozkion tarifen kontzeptuak, eta baliabidearen erabilera eraginkorrak eta iraunkorrak ingurumenean, gizartean eta ekonomian dakartzan onurak.

c) Uraren hornidurari eta tratamenduari buruzko inkesta ofizialekin lotutako informazioaren edukiak egokitu eta prozesatzea.

d) Espezializatutako erakunde autonomiko arautzaile baten figura ezartzea. Horrek zerbitzuen baldintzak eta estandarrak ezarri eta ikuskatu beharko ditu, eta tarifak finkatzeko irizpideak bateratu.

2. Herritarren kontzientziazioak, era berean, baliabideen erabilera iraunkorragoa lortzen lagundu behar du. Ildo, horretatik, zera proposatzen da:

Ura aurrezteari buruzko gizarte-kontzientziazioa sustatzea; ura egokiago erabil dezaten, herritarren, enpresen eta erakundeen portaeran eragina izaten saiatuta.

Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretua, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa onartzen duena, Estatuko Aldizkari Ofizialaren 137. zk.an argitaratua. Uraren Euskal Agentziak itzulia.

e) Herritarrak kontzientziatu eta sentsibilizatzeko kanpainak ezartzea. Horiek ondoko baliabideen bitartez antola litezke: heziketa- eta prestakuntza-programak, komunikazio-kanpainak eta jarduerak, administrazio publikoen edo partikularren arteko lankidetza-hitzarmenak nahiz komenigarritzat eta egokitzat hartzen diren bestelakoak.

81. artikulua. Parte-hartze publikoa gauzatzeko prozedura

Parte-hartze publikoa sustatzen duten aurreko atalean jasotako jarraibideen kaltetan izan gabe; Planaren Memoriaren 10. kapituluan, hura gauzatzeko prozedurak biltzen dira.

82. artikulua. Neurrien Programaren finantzaketa

Ingurumen-helburuak gauzatzeko jardun guztiak Plan Hidrologikoaren Neurrien Programan (Planaren memorian eta horren 3. eranskinean dago jasota) zerrendatzen dira. Egoera jakin batzuek (hala nola, neurrien programa finantzatzeko identifikatutako erakundeen aurrekontu-erabilgarritasunak) bideraezina egingo balute jardunetako bat edo gehiago gauzatzea, erakunde eskudunak aukera hauek izango ditu:

a) Jardun hori edo jardun multzo hori hurrengo kudeaketa-planetan (2016-2021, 2022-2027) gauzatzeko uzteko, betiere Plan Hidrologiko honetan finkatutako helburuak betetzearekin eta Neurrien Programaren jarraipen egokia egitearekin koherentea bada.

b) Jardun horren edo jardun multzo horren ordez beste jardun bat edo jardun multzo bat ezartzea, Plan Hidrologikoan ezarritako helburuak bigarren xedapen gehigarrian jasotako baldintzetan beteko direla ziurtatzeko.

9. KAPITULUA
PLAN HIDROLOGIKOAREN JARRAIPENA ETA BERRIKUSPENA

83. artikulua. Plan Hidrologikoaren jarraipena

1. Plangintza Hidrologikoaren Araudiko 88. artikuluan adierazitakoaren arabera, jarraian adierazten diren alderdiei berariazko jarraipena egingo zaie:

a) Eskuragarri dauden baliabide hidriko naturalen eta horien kalitatearen bilakaera. Azterlanean kontuan hartuko dira klima-aldaketaren ondoriozko eraginak baliabide naturalen kantitatean, ingurumen-helburuetan eta ur-eskaeretan.

b) Ur-eskaeren bilakaera.

c) Emari ekologikoen erregimenaren betetze-maila.

d) Lurrazaleko eta lurpeko ur-masen egoera.

e) Ur-masen gaineko neurrien eta eraginen programak aplikatzea. Jarraipen horren emaitzazko datuetan, informazio hau jasoko da behinik behin:

- Jarduna zerbitzuan jarri izanaren data edo, kudeaketa-tresnen kasuan, indarrean jarri izanaren data.
- Benetako inbertsioa eta mantentze-kostuak.
- Neurriaren eraginkortasunari buruzko zenbatespena.

2. Plan Hidrologikoari buruzko informazioa eta jarraipen-lanetarako beharrezko datuak biltzeko, koordinazio-mekanismoak ezarriko dira, Plangintza Hidrologikoaren Araudiko 87. artikuluaren arabera.

3. Neurrien programak abian jarri eta aplikatzeko ardura duten agintaritza eta administrazio eskudunek administrazio hidrauliko eskudunari, urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan, aurreko urtean gauzatutako jardunen garapenari buruzko informazioa eman beharko diote; Plangintza Hidrologikoaren Araudiko 87.4 artikuluan jasotako informazio-betebeharra bete ahal izateko.

Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretua, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoa onartzen duena, Estatuko Aldizkari Ofizialaren 137. zk.an argitaratua. Uraren Euskal Agentziak itzulia.

84. artikulua. Plan Hidrologikoaren berrikuspena

1. Plangintza Hidrologikoaren Araudiko 89. artikuluaren arabera, Plan Hidrologikoa berrikusi egin beharko da, Mugapeko Uraren Kontseiluak nahiz Erabiltzaileen Batzarrak proposatuta, bakoitzari dagozkion eskumenen esparruan; haien datuetan, hipotesietan edo emaitzetan antzemandako aldaketen edo desbideratzeen ondorioz gomendagarria denean.

2. Nolanahi ere, Urei buruzko testu bategineko hamaikagarren xedapen gehigarriaren arabera, Plan Hidrologikoaren berrikuspen osoa eta aldizkakoa egingo da 2015eko abenduaren 31 baino lehen, eta 6 urtean behin data horretatik aurrera.

85. artikulua. Lehorteetarako plan bereziaren berrikuspena

Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren barruan, alertako eta litekeen lehorteko egoeretan jarduteko plan bereziek euren berrikuspen-zikloa Plan Hidrologikoaren berrikuspen-ziklora egokituko dute. Hala, egiaztatu ahal izango da bai adierazleen sistema, bai lehorteetarako prebentzio- eta arintze-neurriak bat datozela plangintza hidrologikoaren helburu zehatzekin, plan hidrologiko horren ondorengo aurreikuspenetan eguneratzen doazen heinean.

86. artikulua. Uholde-arriskua kudeatzeko planaren berrikuspena

